


**TOKIKO  
IRAUNKORTASUNAREN  
DIAGNOSTIKOA**

**BERRIZ**



2006ko uztaia

## **DIAGNOSTIKOAREN OSAKETAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK**

### **Berrizko udala**

Rosa M<sup>a</sup> Ostogain Echeberria. Alkatea  
José Javier Azpitarte Ariño. 1go alkate orde  
M<sup>a</sup> Begoña Navarro Bragado. 2. alkate orde  
Rolando Isoird Refoyo jn. Zinegotzia  
M<sup>a</sup> Purificación Pérez Gallego. Zinegotzia  
Adelaida Limia González. Zinegotzia  
Cristina Hazas Zabala. Zinegotzia  
Alejandro Pérez de San Román Miño. Zinegotzia  
Koldo Méndez Gallego. Zinegotzia  
Jon Miguel Álvarez Ibáñez. Zinegotzia

### **Beste Administrazio eta Erakundeak**

Durango Merinaldearen Amankomunazgoa  
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.  
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila  
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza  
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila  
Errepideen Zuzendaritza Orokorra  
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila  
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketarako eta Ingurumen Saila  
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza  
Biodibertsitate Zuzendaritza  
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza  
Uraren Zuzendaritza  
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila  
Energiaren Euskal Erakundea  
Iberdrola SA  
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

### **Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA**

Julen Rekondo. Teknikaria  
Carlos Alonso. Teknikaria  
Arkaitz San José. Teknikaria  
Ibon Zugasti. Teknikaria  
Mikel Irasuegi. Teknikaria  
Olatz Errazkin. Teknikaria

## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA</b> .....	<b>1</b>
0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21 .....	1
0.2. Diagnostikoaren aurkezpena .....	3
<b>1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA</b> .....	<b>5</b>
1.1 Biztanleriaren garapena .....	5
1.2. Biztanleriaren egitura .....	7
1.2.1. Biztanleriaren egitura adinaren arabera.....	7
1.2.2. Biztanleriaren egituraketa generoaren arabera .....	8
1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea.....	10
1.4. Hiri-nukleoak eta biztanleriaren espazio banaketa.....	12
2.2. Sektore ekonomikoak .....	14
<b>3. GIZARTE EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA</b> .....	<b>20</b>
3.1. Laguntza, ongizatea eta gizarte zerbitzuak.....	20
3.2. Osasun Zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna.....	22
3.3. Etxebizitza .....	23
3.4. Hezkuntza .....	24
3.5. Kultura .....	25
3.6. Euskara .....	26
3.7. Kirolak .....	29
3.8. Pertsona gazteak .....	30
3.9. Emakumeen egoera.....	31
4.1.2. Flora eta fauna .....	38
4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak .....	40
4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana .....	45
4.3. Hiri Egitura eta Planeamendua .....	46
4.5. Mugikortasuna eta garraioa .....	51
4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak.....	51
4.5.2. Hiribarneko eta hiri arteko mugikortasuna.....	54
4.5.3. Irisgarritasuna .....	55
<b>5. INGURUGIRO SEKTOREAK</b> .....	<b>57</b>
5.1. Uraren ziklo osoa.....	57
5.1.1. Uraren hornikuntza, kalitatea eta kontsumoa .....	57
5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa.....	59
5.2. Atmosferaren eta akustikaren kalitatea.....	61
5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea.....	61
5.2.2. Zarata eta akustikaren kalitatea .....	65
5.3. Energia.....	67
5.4. Lurzorua .....	70
5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa .....	70
5.4.2. Jardute aukerak .....	71
5.5. Hondakinen kudeaketa .....	73
5.5.1. Hiriko hondakinak .....	73

5.5.2. Hondakin industrialak eta arriskutsuak .....	76
<b>6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA .....</b>	<b>80</b>
6.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea .....	80
6.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa .....	82
6.3. Udal egitura .....	84
6.4. Herritarren ingurumen pertzepzioa .....	85
<b>7. BERRIZKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA, ONDORIOAK ETA INTERPRETAZIOAK .....</b>	<b>100</b>
7.1. Diagnostikoaren laburpena .....	100
7.2. Ondorioak .....	108
7.3. Interpretazioak .....	112

## 0. SARRERA

### 0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21 kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) sortu zen, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurreko Goi bileran". Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" izena du eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"ri buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak elkarritzeta ezarri behar du bere komunitatearekin, gizarte-erakundeekin eta enpresa pribatuekin eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

EB-ko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Iraunkorra lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu zentzu bereko ekimenak garatzeko (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean, ICLEIk deituta (The International Council for Local Environmental Initiatives), 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentro zientifiko aholkulariak eta partikularrak. Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar honetan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europarren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-eko gutuna bezala ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21 idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasa eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, non lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta beraien ezarpenean. Urte berean, Istanbuler iragarritako Nazio Batuen Biltzarrak Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, honek Agenda 21ren printzipioak bere hartu zituen.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, autoritate nazionalen

ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdeetako mila politikarik, teknikari adituek, gobernuz kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg+10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatu Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuak helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanaz.

Azken urteetan Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saitetik batik bat Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europarra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero Udaletxeentzako diru-laguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoaren” argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerritan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-piloteak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.
- UDALSAREA 21en edo Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen osaketa, EUDELek, IHOBE-Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta honezkero tokiko Ekintza Plana duten 66 udalerrik osatzen dutena.

Gaur egun, 200 udalerrri baino gehiago eta 22 UDALTALDE 21 inplikatuta daude Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea da, banaka edo eskualdeka.

2004ko Azaroan Durangoko Merindateko Amankomunazgoak, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa den IHOBek eta Bizkaiko Foru Aldundiak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* lan taldea martxan jartzearren. Lan taldea ondoko udalerriez osatua aurkitzen da: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar. Garai beranduago barneratu zen lan talde honetan.

## **0.2. Diagnostikoaren aurkezpena**

Aurkezten den Iraunkortasunerako Diagnosi hau pertsona askoren arteko lanaren ondorio bat da, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera. Diagnosi hau 2005ko abenduaren eta 2006ko martxoa bitartean egin da.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, iraunkortasun irizpide eta modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi honetatik abiatuz, Ingurumen Diagnostika egiten da, eta hau Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria izango da. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, baizik eta Tokiko Agenda 21aren prozesuaren abiapuntua ere beharko du izan.

Tokiko Agenda 21 konpromisozko dokumentu bat nola gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrak eta biltzen diren entitateak, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearren oinarriak jarriko dituzte.

1987an iraunkortasunaren kontzeptua iritzi publikoari aurkeztu zitzaion lehendabizikoz. Gro Harlem Bruntland andereak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikita azaltzen da, hau da, gizarteak egungo beren beharrak ase behar baditu ere ondorengo generazioen beharrak konprometitu gabe izan beharko da.

Ondoko Diagnosi hau kapitulu ezberdinetan zatikatzen da ondoko gai esparruen arabera:

- Demografia eta biztanleria
- Ekonomia eta enplegua
- Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna
- Lurraldea, antolaketa eta hirigintza
- Ingurugiro sektoreak
- Udal egitura eta udalerriko gizartea

Azken Kapituluan, gai esparru bakoitzeko ondorioak aurkezten dira.

---

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *DURANGALDEKO UDALTALDE 21* Lan Taldeak egin du Udaleko arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen teknikarien eta enpresa publiko zein pribatuen elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea eta *INGURUNE S.L.* eta *PROSPEKTIKER S.A.* Aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da



## 1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

### 1.1 Biztanleriaren garapena

Berrizko udalerria Durangaldeako eskualdeko kide da honako herriein batera: eskualdeko hiriburua den Durango, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Bere koordenadak 43° 15' 47" I., eta 0° 44' 25" E. dira. Oiz gailurraren inguruko Iurretatik hasi eta Ibaizabal ibaiaren eta Okaren arro altuek osatutako arantzaraino arteko azalera hartzen du, eta 30,1 km<sup>2</sup> ditu eskualdeko udalerririk zabalenetakoa osatuz. Berrizekin mugan honako udalerririk daude: iparraldera Gerrickaitz eta Zenarruza; hegoaldera Elorrio; ekialdera Mallabia eta Zaldibar eta mendebaldera Abadiño, Garai, Durango eta Ibarruri.

#### 1. Taula. Biztanleriaren banaketa eta dentsitatea. 2001

Udalerria	Biztanleak		Km <sup>2</sup>	Dentsitatea
	Zenbakia	% Durangaldea		
<b>Abadiño</b>	6.843	12,7	36,1	189,6
<b>Atxondo</b>	1.427	2,7	23,2	61,5
<b>Berriz</b>	4.312	8,0	30,1	143,3
<b>Durango</b>	<b>25.003</b>	<b>46,5</b>	<b>10,79</b>	<b>2.315,10</b>
<b>Elorrio</b>	7.157	13,3	37,2	192,4
<b>Garai</b>	252	0,5	7,1	35,5
<b>Iurreta</b>	4.144	7,7	19	218,1
<b>Izurtza</b>	266	0,5	4,3	61,9
<b>Mañaria</b>	453	0,8	17,6	25,7
<b>Otxandio</b>	1.017	1,9	12,4	82
<b>Zaldibar</b>	2.877	5,4	11,8	243,8
<b>Durangaldea<sup>1</sup></b>	53.751	100	236	227,7
<b>BIZKAIA</b>	1.122.637	–	–	506,3


*Iurria: EUSTATEn datuetan oinarrituta*

<sup>1</sup> Estatistika hau EUSTATEk definitutako Durangaldea eskualdeari dagokio, alegia, bertan barnebiltzen dira Amorebieta-Etxano, Bedia, Ermua, Lemoa eta Mailabia eta kanpo uzten da Otxandio.

2001ean eskualdeko biztanleria osoaren %8 inguru biltzen da Berrizen eta honako biztanleria dentsitatea du: 143,3 biztanle km<sup>2</sup>-ko.

Azken bi hamarkadetako biztanleriaren garapenak gaur egun arte mantentzen den goranzko joera erakusten digu, jarraian ikusiko dugu jaiotze-tasaren igoerak eragin duela hori eta baita izan diren migrazio mugimendu positiboek ere, bai barne mailakoek (eskualdekoak bertakoak) eta baita kanpokoek ere (Estatutik eta baita atzerriatik ere). 2005eko abenduan Berrizko biztanleak 4.546 ziren.

### 1. Grafikoa. Biztanleriaren garapena. Berriz.



Iturria: Udal eroldako (1996-2005) eta EUSTATEko (1991-1995) datuetan oinarritua.

## 1.2. Biztanleriaren egitura

### 1.2.1. Biztanleriaren egitura adinaren arabera

2005ean Berrizko biztanleriaren egitura adinaren arabera modu honetan osatzen zen: biztanleriaren %16,37a 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %67,2ak 20 eta 64 urte artean zituzten eta %13ak 65 urte edo gehiago zituzten.

2. taula. Berrizko biztanleriaren egitura. 2005.

Adina	Biztanleak	%
0-19	744	16,37
20-64	3.056	67,22
65 edo +	591	13
<b>GUZTIRA</b>	4.546	100

Iturria: Udal erroldan oinarritua.

Biztanleriaren egitura adinaren arabera aztertuta, ikus dezakegu 19 urtetik beherako taldea gutxitu egin dela, aldiz, 64 urtetik gorako biztanleriaren garrantzia erlatiboa hazi egiten da eta 20 eta 65 urte artekoenak pixkanaka garatzen jarraitzen du. Datu hauek erakusten dute orain arte lan egiteko adinetik kanpo zen biztanleriak hartzen duen garrantzia, etorkizunean areagotuko den garrantzia.

Zehatzago esanda, Berrizek zahartutako biztanleriaren indize handiagoa du eskualdearekin alderatuz gero, aldiz, gaur egun, biztanleria ez horren zahartua du Bizkaiarekin edo EAArekin alderatuz gero, 20 eta 64 urte arteko biztanleria handiagoa baitu.


3. taula. Adin talde handien araberako biztanleriaren garapena.

	Adina	1986	1991	1996	2001
<b>EAE</b>	0 - 19	29,9	25,5	20,6	18,1
	20 - 64	59,7	61,9	64,0	64,9
	>= 65	10,4	12,6	15,3	17,0
<b>Bizkaia</b>	0 - 19	29,5	25,2	20,4	17,7
	20 - 64	60,0	62,1	64,0	64,7
	>= 65	10,4	12,7	15,7	17,6
<b>Durangaldea</b>	0 - 19	31,6	27,0	22,0	19,5
	20 - 64	59,3	61,7	63,9	65,1
	>= 65	9,4	11,3	14,0	15,4
<b>Berriz</b>	0 - 19	30,9	26,2	21,2	17,0
	20 - 64	58,9	62,4	64	66,4
	>= 65	10,2	11,4	14,9	16,5

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Udalerrriaren egituraren garapenak 1996-2005 aldian erakusten du biztanleriaren zahartze joera dagoela eta aldaketa sakonak ematen ari direla biztanleriaren adinkako egituraren osaketan. Zehazki, biztanleria gazteenaren indizea hamalau puntu gutxiagotu da, biztanleria zaharragoa sei puntutan hazi den bitartean.

## 2. grafikoa. Adin taldeen arabera biztanleriaren banaketa. Berriz.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

### 1.2.2. Biztanleriaren egituraketa generoaren arabera

Berrizko biztanleria modu honetan osatzen da generoaren arabera:

#### 4. taula. Biztanleriaren banaketa generoaren arabera.

	<b>Emakumezkoak</b>		<b>Gizonezkoak</b>	
	Guztira	%	Guztira	%
<b>Berriz</b>	2.289	48,6	2.420	51,39

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua. Udal errolda.

Esan dezakegu gizonezkoen kolektiboa gailentzen zaiola gizonezkoenari. Gainontzeko lurraldeekin alderatuz gero, Berrizen ez bezala, ikus dezakegu eskualdean, herrialdean eta EAEn emakumezkoen kopurua handiagoa dela.

5. taula. Biztanleria lurraldearen eta sexuaren arabera. 2004-XII-31.

	<b>Biztanleria eguneratua</b>				
	Guztira	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
		Guztira	%	Guztira	%
<b>Euskal AE</b>	2.124.846	1.040.525	48,96	1.084.321	51,04
<b>Bizkaia</b>	1.136.181	552.297	48,60	583.884	51,4
<b>Durangaldea</b>	92.796	46.257	49,84	46.539	50,16
<b>Berriz</b>	4.557	2.325	51,02	2.231	48,95

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Bestalde, biztanleriaren banaketa adin taldeen eta generoaren arabera antolatzen badugu, udalerriaz hartzen dugun ikuspegia honakoa da:

6. taula. Adin taldeen eta sexuaren araberako biztanleria. 2005.

<b>ADINA</b>	<b>EMAKUMEZKOAK</b>		<b>GIZONEZKOAK</b>		<b>GUZTIRA</b>	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
<b>0-19</b>	329	14,90	415	17,75	744	16,37
<b>20-64</b>	1.446	65,49	1.610	68,86	3.056	67,22
<b>≥ 65</b>	322	14,58	269	11,51	591	13,00


Iturria: Udal erroldako datuetan oinarritua.

Zentzu honetan esan behar da ezberdintasun handienak 0-19 eta  $\geq 65$  urte artean daudela, izan ere lehen adin tartean emakumezkoak baino gizonezko gehiago dago, bestalde, 65 edo gehiagoko adin tartean emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino. Ondorioztatu dezakegu, adinean aurrera egin ahala gizonezkoen aurrean emakumezkoen kopurua handiagotu egiten dela.

### 1.3. Berezko mugimendua eta migratzailea

EUSTATEk emandako datuen arabera, 1996-2003 aldian 263 izan ziren jaiotzak eta 300 heriotzak. Datu heuk erakusten dute berezko hazkundera aldi horretan -37koa izan zela. Beraz, berezko hazkunderaren tasako datuen azterketatik ondorioztatu dezakegu joera ezkorra dela, alegia, jaiok heriotzak baino gutxiago direla.

#### 3. grafikoa. Berezko hazkunderaren garapena. Berriz.



Iturria: EUSTATEn datuetan oinarritua.

Berrizko biztanleriaren osaketa aztertu asmoz, hurrengo taulan biztanleria jaiotze lekuaren eta garaiaren arabera banatu dugu:

#### 7. taula. Biztanleria jaiotze lekuaren eta garaiaren arabera. Berriz.

	1986	1991	1996	2001
<b>Guztira</b>	4.197	4.216	4.099	4.312
<b>Araba</b>	28	23	26	27
<b>Bizkaia</b>	2.723	2.775	2.722	2.857
<b>Gipuzkoa</b>	204	244	248	338
<b>Beste probintziak</b>	1.226	1.156	1.079	1.029
<b>Atzerria</b>	16	18	24	61


Iturria: EUSTATEn datuetan oinarritua.

Ikus dezakegu Berrizko pertsona gehienak bizkaitarrak direla. Bestalde, nabari dugu beste herrialdeetatik etorritako pertsona kopurua (EAETik kanpokoena) gutxituz joan dela urteak pasatzearekin bat. Aldiz, urtez urte hazi egin da udalerrian ezarri den atzerritar kopurua.

Mugimendu migratzaileaz ari garenean administratiboki definituta dauden bi eremu geografikoren artean ematen den bizileku ohikoaren aldaketaz ari gara; zentzu horretan, migrazioak beti bi ekinbide ditu sortzez, emigrazioa edo bizileku duen lekua bertan behera uztea, eta immigrazioa edo beste zonalde baten bizitzen hastea. Barne migrazioa abiapuntua eta helmuga EAEko udalerrri banatan duenean deitzen zaio. Kanpo migrazioak dira EAE eta Estatuaren edo atzerriaren artean ematen direnean mugimenduak.

Hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan, laurogeita hamargarren hamarkadako lehen erdian migrazio saldoa negatiboa da. Aldiz, 1996tik aurrera aldatu egiten da eta positiboa da. Zehazki, 2000-2002 urte aldian barne migrazioen saldoa asko hazi da, horrek adierazten du EAEko udalerrietatik datozen pertsonak ezarri direla udalerrian.

#### 4. grafikoa. Migrazio saldoak eremuaren eta garaiaren arabera.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Berrizko Udalak emandako datuen arabera, 2001-2005 aldian udalerrian erroldatutako atzerritarren biztanleria haziz joan da. Presentzia handiena duten naziotasunak errumaniarra eta kolonbiarra dira eta atzetik datoz boliviarra eta marokoarra. Berrizen erroldatutako pertsona atzerritarren sexu-generoari dagokionez, 2001-2005eko datu bilketak erakusten digu etorkinen %51a gizonezkoak direla eta %49a emakumezkoak.

## 1.4. Hiri-nukleoak eta biztanleriaren espazio banaketa

Berriz, bere hiriburutzat Berrizko Elizatea duena, honako auzo edo hiri-nukleoek osatzen dute: Andikoa, hirigunetik 1,5 km-ra eta 340 metroko altueran; Berriz-Olakueta; Eitua, hirigunetik 1,2 km-ra eta 160 metroko altueran; Murgoitio, hirigunetik 2 km-ra eta 200 metroko altueran; Okango, hirigunetik 1,9 km-ra eta 160 metroko altueran; Mendibil-Sallobente, hirigunetik 1,4 km-ra eta 300 metroko altueran eta Sarria, hirigunetik 2 km-ra eta 320 metroko altueran.

Biztanleriaren banaketari dagokionez esan dezakegu biztanleriaren gehiengoa (%83,1) udalerriko hirigunetan eta Sallobenteko (%4,4) eta Okangoko (%3,4) nukleoetan kokatzen dela.

1 taula. Biztanleriaren espazio banaketa.2005.

<b>Nukleoak</b>	<b>Biztanle kopurua</b>
<b>Andikoa</b>	98
<b>Berriz- Olakueta</b>	3.918
<b>Eitua</b>	181
<b>Murgoitio</b>	61
<b>Okango</b>	162
<b>Sallobente</b>	210
<b>Sarria</b>	80

Iturria: Berrizko Udalaren datuetan oinarritua.



## 2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA

### 2.1. Jarduera eta egitura ekonomikoa

Udalerrri baten garapen ekonomikoaren maila, besteak beste, biztanleko udalerrriaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) arabera neurtzen da, garai zehatz batean eremu geografiko batek duen aberastasun maila neurtzen duen adierazlea.

9. taula. Biztanleko errenta gordina lurralde eremuen arabera (eurotan) 2001.

	<i>Errenta biztanleko</i>	<i>Indizea</i>
<b>Euskal AE</b>	10.823	100
<b>Bizkaia</b>	10.571	98
<b>Durangaldea</b>	10.478	97
<b>Berriz</b>	10.242	95

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Berrizen kasuan, udalerrriko biztanleko BPG 2001ean bere ingurunean baino baxuagoa zen, zehazki, EAEkoa baino 5 puntu gutxiago, Bizkaikoa baino 3 puntu gutxiago eta Durangaldeakoa baino 2 puntu gutxiago.

Sektore ekonomikoen garrantzia aztertzerakoan, gehienez erabili ohi diren adierazleak hauek dira: balio erantsi gordinaren banaketa eta biztanleria landuna jarduera sektoreen arabera.

10. taula. Egitura ekonomikoa. Balio Erantsi Gordinaren banaketa (%)

	<b>1996</b>	<b>2000</b>
<b>Lehen sektorea</b>	1,72	1,08
<b>Industria</b>	68,61	60,43
<b>Eraikuntza</b>	3,95	14,17
<b>Zerbitzuak</b>	25,72	24,32

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

11. taula. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna lurralde eta jarduera eremuaren arabera.2001.

	<b>Guztira</b>	<b>Nekazaritza</b>	<b>Industria</b>	<b>Eraikuntza</b>	<b>Zerbitzuak</b>
<b>Euskal AE</b>	100,0	1,8	27,5	8,7	62,1
<b>Bizkaia</b>	100,0	1,5	23,6	9,3	65,6
<b>Durangaldea</b>	100,0	1,1	43,8	6,9	48,1
<b>Berriz</b>	100,0	1,8	50,5	4,2	43,6

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Aurreko tauletan ikus daitekeen moduan, industriaren sektorea da Berrizen nagusi, bai balio erantsiari dagokionez eta baita enpleguari dagokionez ere. Egitura hau ingurukoekiko ezberdina da, hirugarren sektorerako joera nabarmena baita inguruan. Nahiz eta azpimarratu behar den zerbitzuen sektorearen garrantzia handia dela, bigarren lekuan izateaz gain, eraikuntzaren eta nekazaritzaren sektoreen gainetik kokatzen baita.

Azken urteetako garapenari dagokionez, azpimarragarria da eraikuntza sektorearen hazkundea 1996-2000 aroan, industriaren eta zerbitzuen kaltetan. Bestalde, ikus dezakegu nekazaritzak garrantzia galdu duela.

## 2.2. Sektore ekonomikoak

Udalerriko jarduera ekonomikoak aldaketa handiak bizi izan ditu bere historian zehar. XX. mende hasieran Berriz abeltzaintza eta nekazaritza herria zen eta metalen lanketa egiten duen artisautza instalakuntzaren bat zuena. Instalakuntza hauek pixkanaka garatuz joan dira udalerraren eraldaketaren oinarritzko elementu bilakatu. 60. eta 70. hamarkadetan Eituako nekazal ibarretan egiten den asentamendu industrialak osatzen du garapena, Berriz izaera industrialeko udalerrri bilakatu.

Jarraian, sektore bakoitzaren garrantzia ezarri dugu bertan lan egiten duen biztanle kopuruaren eta azken hamarkadetan hauek izan duten garapenaren arabera.

2. taula. Biztanleria landuna jardueraren arabera.

	<b>1986</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>
<b>1. sektorea</b>	6,1	4,7	2,3	1,8
<b>Industria</b>	60,0	53,7	53,5	50,5
<b>Eraikuntza</b>	2,6	4,3	4,1	4,2
<b>Zerbitzuak</b>	31,3	37,3	40,1	43,6

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Aurreko taulako datuen arabera, 2001ean Berrizko biztanleria aktiboaren %50,5ak industriaren sektorean lan egiten zuen, sektore garrantzitsuena bilakatuz enpleguari dagokionean. Zerbitzuen sektorea ezartzen da bigarren tokian biztanleria aktiboaren %43,6arekin.

Azken urteetako garapenari dagokionez azpimarratu behar da 1986 eta 2001 artean Berrizko ekonomia hirugarren sektorerantz joan dela. Industria eremuko enplegua gutxitu egin da zerbitzuen sektorean areagotu den neurrian. Azkenik, nekazaritzak enpleguan duen garrantzia gutxitu egin da.

### Lehen sektorea

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei dagokionez, 1999an 260 zeuden eta hauetako %56,9 aberedunak ziren, %42,3 abere-gabeak eta ustiapenen %0,76ean euren jarduera lurrik gabe egiten zuten. Berrizen nekazal jarduerarako gordetako azalera guztira 2.189 Ha-koa zen.

13. taula. Erroldatutako ustiapenak eta azalera orotara. 1999.

	Guztira		Abereduna		Abere-gabea		Lurrik gabea
	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.
<b>Durangaldea</b>	2.821	22.932	1.514	10.313	1.284	12.619	23
<b>Berriz</b>	260	2.189	148	947	110	1.242	2

Iturria: EUSTAT.

Aurrez aipatu den moduan, nekazaritzak garrantzia galdu du biztanleria aktiboari dagokionean, 2001ean biztanleriaren %1,8ak besterik ez zuen sektore horretan lan egiten.

### Bigarren sektorea

Bigarren sektoreari dagokionean azpimarratu behar da garrantzia galdu duela balio erantsiari eta biztanleria aktiboari dagokionean.

Gaur egun, hausnarketa estrategikoa egiten ari da eskualdean industria sektorearen inguruan. "Metalgiltza" izena daraman proiektuak Elkarte bat sortu nahi du Durangaldeako Industria Sektoreko Plan Estrategikoa bultzatuz.

Gaur egun, abian jarri da industria sektorean ekiteko planifikazio estrategikorako lehen fasea, aurrez Eskualdeko Enpresa Sarearen diagnostikoa eta sektorearen formakuntza beharren inguruko azterketa egin dira.

Elkartearen helburua da eskualdeko industria sarearekin lotura duten kolektiboak bilduko dituzten lau lan talde osatzea da. Teknikari bat arduratuko da koordinazioaz eta Plan Estrategikoaren Aurrerakinean jaso diren ideia batzuen exekuzioaz.

Hauek dira lan taldeetan landu nahi diren ildoak: produktuaren bilketa eta banaketa; formakuntza eta teknologia berriak; lurraldearen antolaketa eta ingurumen eta gizarte ezaugarriak – emakumearen integrazioa.


Azterketa hauetatik eta datuen analisitik ondorioztatzen da Industria Sektorea dela aberastasun gehien sortzen duena Durangaldean (Eskualdeko BPGdaren %52,01), honek auto-mozioaz menpekotasun handiegia duela (industria jardueraren %76,03) eta langabezia tasa oso txikia dela (%5,23). Hala ere, etorkizunari begira puntu ilunak ageri dira, izan ere eskualdeko BPGdaren erdia baino gehiago industriaren sektoretik dator eta hauetan auto-mozioarekin lotutako enpresa txiki eta ertainak dira nagusi. Zehatzagoak izateko, industria horren %53a mekanizatura, hotzean egindako estanzapaziora eta artikulua metalikoetara mugatzen da, hain zuzen ere, desagertzeko arrisku gehien duten jardueretara, motorrarekin lotutako enpresek Europako Ekialderako joera baitute. Horiekin automobilaren industriak Durangaldean sortzen dituen 19.000 lanpostuak desagertu daitezke, zonaldeko enplegu guztiaren erdia. Sektorearen antolamendua osagaiak egiten dituzten beste enpresen azpikontratazkoan oinarritutakoa izateak kate arriskutsua sortzen du, katenbegietako bat apurtu orduko eteten den kate arriskutsua.

### **Hirugarren sektorea**

Industriaren garrantzia handia den arren, aurreko datuetan ikusi dezakegun moduan, zerbitzuen sektoreak garrantzia irabazi du, bigarren sektore garrantzitsuena bihurtuz biztanleriari aktiboari dagokionez eta baita, balio erantsiari dagokionez ere.

Hurrengo grafikoak udalerriko jarduera adar ezberdinen presentziaren ikuspegia eskaintzen digu, adar horietako bakoitzean dauden establezimendu kopuruaren arabera. Esan dezakegu Berrizen dauden establezimenduen %59a zerbitzuetakoak direla (merkataritza, ostalaritza eta garraioak; Bankuak, aseguruak eta enpresentzako zerbitzuak eta bestelako zerbitzuetako jarduerak), nahiz eta bigarren sektoreko establezimendu kopurua (industria eta energia eta eraikuntza), batez ere industria eta energiari dagokiona oso handia den (32,8 %).

5. grafikoa. Establezimenduak jarduera adarraren arabera. Berriz. 2004.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

## 2.3. Lan merkatua eta enplegua

Hurrengo taulan erakusten da Berrizko biztanleriaren banaketa jarduerarekin duten harremanaren arabera eta Durangaldeako, Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin alderatzen da. Berrizek 2001ean 2.059 pertsona aktibo zituen eta 2.253 ziren ez aktiboak, biztanleriaren %47,8 eta %52,2 dira, hurrenez hurren. Biztanleria osoarekiko biztanleria aktiboaren portzentajea gainontzeko lurraldeetan baino handiagoa da (Durangaldean %47a eta EAEn %46,9a, Foru lurraldean %45,4).

14. taula. Biztanleria jarduerarekin duten harremanaren arabera eta lurraldeka. 2001.

	Guztira	LANE aktiboak		LANE langabetuak			LANE ez aktiboak
		Guztira	LANE okupatuak	Guztira	Lehen enplegua	Lan egin dute	
<b>Euskal AE</b>	100,0	46,9	41,4	5,4	1,2	4,2	53,1
<b>Bizkaia</b>	100,0	45,4	39,4	6,0	1,5	4,5	54,6
<b>Durangaldea</b>	100,0	47,0	42,9	4,1	1,0	3,1	53,0
<b>Berriz</b>	100,0	47,8	43,5	4,2	0,8	3,4	52,2

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Langabetuak adinaren eta generoaren arabera banatuz gero, langabezia 25 eta 34 urte artekoen artean kokatzen da emakumezkoetan eta gizonezkoetan, gainontzeko lurraldeetan bezala. Generoaren arabera, emakumezkoen langabezia altuagoa da adin tarte guztietan.

15. taula. Langabezian dauden pertsonen banaketa generoaren eta adin taldeen arabera lurraldeka. SISPE ( 2005-XII ).


	Guztira	Gizonezkoak			Emakumezkoak		
		<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
<b>Euskal AE</b>	100,0	5,8	20,8	16,5	4,8	30,2	21,9
<b>Bizkaia</b>	100,0	6,0	21,1	17,6	5,0	29,8	20,5
<b>Durangaldea</b>	100,0	5,6	21,6	11,3	6,4	35,6	19,5
<b>Berriz</b>	100,0	3,8	20,2	6,7	7,7	49,0	12,5

Iturria: EUSTATen oinarritua.

Jarduera ekonomikoaren arabera banatuz gero langabezia, Zerbitzuen jarduera da langabetu gehien dituen, gainontzeko lurraldeetan gertatzen den moduan. Industria da bigarren lekuan

dagoena langabeziari dagokionean. Bestalde, aurrez lan egin ez duten langabetuen kopurua gainontzeko lurraldeetako bano txikiagoa da.


**6. grafikoa. Lan bila dabiltzan pertsonak lurraldearen eta sektorearen arabera.SISPE( XII-2005)**



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Azken urteetako langabeziaren alderatutako garapenari dagokionez, hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan, 1997 eta 2004 artean langabezia asko murriztu da, aztertu diren gainontzeko lurraldeetan gertatu den moduan. Hala ere, 2005ean langabeziaren hazkundera jasotzen da. Zehazki, 2005ean Berrizko langabezia tasa %5,1ean kokatzen da eta eskualdekoa bano beherago jartzen da.

**7. grafikoa. Langabezia tasaren garapena lurraldeka.**



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

### **3. GIZARTE EKINTZA, ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA**

#### **3.1. Laguntza, ongizatea eta gizarte zerbitzuak**

##### **Laguntza ekipamendua**

Udalak emandako datuen arabera Berrizek honakoak ditu:

- Jubilatuen egoitza.
- Gizarte Zerbitzuen Unitatea, eta bertan honakoak: langile sozial bat, familia hezitzaile bat, adin txikikoen hezitzaile bat eta administrazio laguntzaile bat.

Hauek dira Gizarte Zerbitzuen Unitatean gauzatzen diren programak (2004 urtea):

- *Informazio, Orientazio eta Deribazio Zerbitzua* laguntza, baliabide sozial eta zerbitzuen sistema publiko osoaren inguruan udalerriko biztanleria guztiarentzat. Gainera, bertan bideratzen dira Gizarte Baliabideak.
- *Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua*: Egunerokoan aritzeko ezintasunak dituztenentzat.
- *Pobreziaren aurkako borrokarako plana*: R.B., A.E.S., Gizarteratze Hitzarmenak eta Udal Laguntza Ekonomikoen Programa.
- *Esku hartze familiarerako programa*.
- *Komunitatearentzat Programak*: Hirugarren adinekoentzat Udal programa eta Osasun-Ongizate Udal Batzordetik sortzen diren beste batzuk.
- *Elkarlanerako Zerbitzua*.

##### **Gizarte Zerbitzuak**

###### ***ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA***

Etxez etxeko laguntza zerbitzua egunerokoan oinarrizko jarduerak egiteko arazoak dituzten familiei begirako zerbitzua da, zuzeneko arreta eskainiz etxean bertan, euren ingurune ohikoan integratzeko eta irauteko esku hartze zehatzen bidez gauzatzen da, euren jarduera autonomiaren ezintasuna orekatuz.

Udalerrian, Udaleko Zerbitzu Sozialek osatutako txostenaren arabera (2003) 2003an zerbitzu honen onuradun kopurua 16koa izan zen. Aipatu nahiko genuke 16 horietako 13 65 urtetik gorakoak zirela eta %87,5a emakumezkoak zirela.



16. taula. Etxez Etxeko zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua sexu-generoaren arabera.

	<b>Onuradunen kopurua</b>
<b>Gizonezkoak</b>	2
<b>Emakumezkoak</b>	14
<b>Guztira</b>	<b>16</b>

*Iturria: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostenean oinarritua. 2003.*

Udalaren kostua 75.970,20 eurokoa izan da.

#### **BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA PLANA**

Helburua bazterkeria pertsonala, soziala eta lanekoa aurreikusiko duten beharreko izaera sozialeko eta laguntza motako tresnak ezartzea da, eta baita bizitza menpekotasunik gabe gauzatzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikoa ez duenaren gizarteratzea laguntzea ere.

Hauek izango dira gizarteratzea eta prebentzioa ahalbidetuko duten tresnak: Oinarrizko errenta, Emergentsia Sozialeko laguntzak, eta Berrizko Udalaren Laguntza Ekonomikorako programa beharra duten familientzat, eskolako jantokiarentzat eta udal tasen murrizpenean.

2003an Oinarrizko Errenta jaso zuten pertsonak 28 izan ziren. Bestalde, Emergentsia Sozialeko laguntzak jasotzeko tramitatu ziren espedienteak 43 izan ziren.

#### **GIZARTE-HEZKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA HAURTZAROAN, GAZTEEKIN ETA FAMILIAREKIN**

Berrizko udalerrriak Gizarte-Hezkuntzarako esku hartze plana du eta mugapen pertsonal, afektibo, familiar, hezkuntzako, sozialak... dituztenen gabeziak aurreikustea helburu duten oinarrizko Zerbitzu Sozialen eskura dagoen baliabidea da. Zerbitzu hauek ingurune sozio-familiar eta komunitario ez egokietan bizi diren adin txikiko eta gazteentzat dira, aldi berean hauen ongizatea bultzatu nahi dute, euren garapen pertsonal osoa lortu gizarte-hezkuntzako ekintzen bidez adin txikikoarekin edo bere familiarekin.

Planen jasotako jardueren onuradunak honakoak dira:

- Modu honetako ekintza baten bidez hobetu daitekeen arrisku sozialen bat edo babes-gabezia egoeran dagoen haur eta gazteen biztanleria.
- Modu honetako ekintza baten bidez hobetu daitekeen egoeran diren adin txikidun familiak krisi egoeran, familia desegituratuko egoeran edo guraso eskumen gabezian direnak.

**BESTE JARDUERA BATZUK**

Gizarte Zerbitzuen sailetik jarraian aipatzen diren beste jarduera batzuk gauzatzen dira:

- Informazioa, orientazioa, deribazioa dauden zerbitzu eta baliabideen inguruan.
- Zerbitzuan gauzatzen diren kasu eta programen kasuan barne eta kanpo koordinazioa.
- Oinarrizko Unitatetik kanpoko zerbitzuekin elkarlana.
- Lan postuarekin lotutako formakuntza programetarako laguntza eta parte-hartzea.
- Programen osaketa: Hirugarren Adineko Udal Programa, Drogamenpekotasunaren prebentziorako programa, Udal Kooperaziorako Jarduerak.
- Jubilatuen Egoitzako bilerentzat, Batzordeentzat, Komisioentzat... laguntza.

**3.2. Osasun Zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna**

Eustatek emandako datuen arabera, Berrizek osasun zentro bakarra du:

**3. taula. Ospitaleak ez diren zentroak lurralde eremuaren eta zentro motaren arabera.**

	<b>Guztira</b>	<b>Anbulatorioak</b>	<b>Kontsultategiak</b>	<b>Osasun zentroak</b>	<b>Larrialdi zerbitzuak</b>	<b>Inguruko zentroak</b>	<b>Osasun mentaleko zentroak</b>	<b>Mutua laguntza zentroak</b>	<b>Besteak</b>
<b>C.A. de Euskadi</b>	440	28	52	108	37	118	50	44	3
<b>Bizkaia</b>	234	17	34	63	19	54	26	19	2
<b>Durangaldea</b>	25	1	5	7	3	4	1	4	-
<b>Berriz</b>	1	-	-	1	-	-	-	-	-

*Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.*

Ospitale harrera, tratamenduaren izaeraren arabera, bertatik bertara dagoen eskualdeko ospitalean egiten da.

### 3.3. Etxebizitza

2003an udal azterketa bat egin zen Berrizko hiritarrek zituzten etxebizitza beharren inguruan, beraz, atal honetan azterketa horren ondorioz esanguratsuenak biltzen ditugu.


Diagnostiko hau egiteko metodologiaren oinarria aurrez diseinatutako galdetegi baten osatzea izan zen, laginketa mota eta tamaina kontuan izan ziren. Osatutako galdetegiak 230 izan ziren eta hauek erantzun zituzten gehienak 33 urtetik beherako gazteak ziren. Beraz, hauek izan ziren emaitzarik interesgarrienak:

- Adinduen taldean beharrik handiena etxebizitza aldaketa da, egun duten etxebizitzak dituen gabezien ondorioz (igogailu falta, berogailurik ez...).
- Pertsonarik gehienak ezkongabeak ziren, hauek izan ziren etxebizitza eskuratzeko arrazoiak: independentzia (%46), elkarbizitza bikotearekin edo ezkontza (%16) eta bizitzeko baldintza gabezien ondorioz (%14).
- Gehienek etxebizitza eskuratu nahiko lukete. %79a lan egoera aktiboan zegoen.
- Inkestatutako pertsonen %98a udalerrian erroldatua zegoen eta gehienak Berrizen erroldatuta ziren 3 urte baino gehiagoz.
- %82arentzat etxebizitzaren lehen erosketa litzateke.
- Maila ekonomikoari dagokionez, gehienek 90.000 eta 108.000 euro artean ordainduko luke.
- Gehienek kreditua eskatu beharko lukete.
- Inkestatuak izan ziren pertsonak aipatzen zituzten metro bizigarriak 60 m<sup>2</sup>, 70, 80 eta 90 ziren. Eskaera handiena zuten pisuak 2 eta 3 logeladunak ziren.

### 3.4. Hezkuntza

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Berrizko biztanleriaren eskolatzeko maila Durangaldeakoa, Bizkaikoa eta EAEEKoa baino txikiagoa da; izan ere, ikasketarik gabeko eta lehen mailako ikasketak dituztenen pisua handia da eta txikiagoa da bigarren eta goi mailako ikasketak dituztenen garrantzia.


8. grafikoa. 10 urte edo gehiagoko biztanleria lurraldearen eta eskolatzeko mailaren arabera. 2001.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Azken urteetako datuen azterketak (1996-2001) erakusten du hazkundera izan dela bigarren mailako, ertain-goi mailako eta goi mailako ikasketak dituen biztanlerian, eta aldi beran, txikiago egin dela ikasketarik gabeko eta lehen hezkuntzako ikasketak dituenarena.

1. grafikoa. Eskolatzeko mailaren garapena (10 urte edo gehiagoko biztanleria).



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

### 3.5. Kultura

Orain gutxi osatu da diagnostiko bat udalerrian Bizkaiko Lurralde Historikoan aritzen diren Kultur Elkarten Kudeaketa hobetzeko eta orientatzeko tresnak sortzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Indartu Planaren eta Berrizko Udalaren Kalitate eta Hobekuntza jarraiturako Planaren baitan. Egindako azterketatik honakoak azpimarratu nahi izan ditugu: Udalaren helburuak eta udalerriko kultur aspektu ezberdinen inguruko eztabaida eta ondorioa garrantzitsuenak.

Helburuak gizartearen ohitura eta baloreen aldaketaren baitan kokatzen dira, beraz, kultur politika modu eraginkorrean planifikatu nahi da udalerraren beharrak parte-hartzeko mota berrietara moldatuz. Modu berean, kultur kudeaketa Udaleko gainontzeko eremuekin batera integratu nahi da, langile teknikoen arteko elkarlana bultzatzeko asmoz. Aldi berean, modu egokian optimizatu nahi da kultur eraikin berria. Modu berean, hauek dira proposatzen diren helburu zehatzak: espektakuluetara doan jende kopurua eta hauen poztasun maila aztertu; bi urtez behingo kudeaketarako adierazleak ezarri; antolakuntza hausnarketa estrategikoak gauzatu udal langile teknikoak kontuan hartuz eta kudeaketa transbertsala eginez, eta marketing eta komunikazio globalerako estrategiak planifikatu.

Hauek dira kulturarekin lotutako udalerriko egoeraren inguruko ideia nagusiak:

- Asoziazionismoa bultzatu behar dela ikusten da desagertzen ari baita.
- “Kexurako” joera dago eta ekimenak falta dira “Berrizko kide” izatearen sentimenduari begira.
- Pertsonen asteburutan duten erraztasuna udalerritik kanpora joateko aisialdi bila eta merkatal guneetara.
- Eguraldiak ere udalerriko bizitza baldintzatzen du. Izan ere, udaran eguraldi onarekin jendeak kanpora joateko ohitura du.


Beraz, ezinbestekoa da udalerrian ekimenak bultzatzeko lan egitea, bestela, jendeak mugitzeko duen erraztasunaren ondorioz jendea beste herri batzutarra joango litzateke, Berriz lo egiteko herri hutsa bihurtzeko arriskuarekin.

Gaur egun, udalerriak honako kultur ekipamenduak ditu: Kultur Etxe berria (irekitzekotan dena), egungo Kultur Etxea, Udal Liburutegia (egungo Kultur Etxean dagoena) eta Kultur Gunea.

### 3.6. Euskara

Euskararen garapenaren maila euskal udalerrri baten diagnostikoa egiterakoan kontuan izan beharreko beste faktore sozial nagusietako bat da. Eustaten datuen arabera, 2001ean biztanleriaren %42,8a alfabetatu euskaldunak ziren eta %28,2a erdalduna zen. Berriko datuak gainontzeko lurralde eremuekin alderatuz gero, ikus dezakegu udalerriko euskara ezagutza maila altuagoa dela eta biztanleria erdaldunaren portzentajea txikiagoa dela.


10. grafikoa. 2 urte eta gehiagoko biztanleria lurraldearen eta euskara maila orokorraren arabera. 2001



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

Hala ere, gaiaren azterketa osoagoa egiteko, komenigarria da kontuan izatea etxean Euskararen erabilerak izan duen garapena. Eustaten datuek erakusten dute euskararen erabilera bere horretan mantendu dela 1991-2001 epean. Baina, gaztelerak bere nagusitasuna mantentzen du, udalerriko etxeetan gehien erabiltzen den hizkuntza baita.

#### 11. grafikoa. Etxean erabilitako hizkuntzaren garapena.



Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua.

2003an udalak diagnostiko bat egin zuen udalaren errealitate linguistikoa aztertu asmoz eta Euskararen Erabilpen Plana diseinatzeko helburuarekin. Beraz, hauek dira diagnostiko horren ondorio nagusiak:

- Berrizko udalean dokumentuak osatzerakoan edo paper gainean lan egiterako garaian gaztelera da nagusi. Gero, behar den kasuetan, egin beharreko dokumentazioa osatu ostean euskarara itzultzen dira. Hala ere, ikusten da langile gazteenak dokumentazioa euskaraz egiteko joera dutela.
- Ahozko erabilerari dagokionean, euskararen erabilera maila informalago baterako eta bilera batzuetarako gordetzen da.
- Biztanleriarekin egin beharreko komunikazioetan ikusten da lan horietan ari direnen artean nahikoa ezagutza badela lan horiek ahoz euskaraz egiteko, baina ez da zerbitzua modu integralean ziurtatzen.
- Zerbitzu teknikoak dira egoera ezkorra erakusten dutenak euskararen ezagutzari dagokionean.
- Kanpo komunikazioa dokumentazio elebidunaren bitartez egiten da.
- Programa informatikoei eta teknologia berriei dagokionean, bi hizkuntzetan lan egiteko aukera ematen duen programaren bat salbuetsiz, programa informatikoen gehiengoak gazteleraz dago.

Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta neurri ezberdinak ezarri ziren Udaleko Euskararen Erabilera Bultzatzeko Plana onartu arte. Bestalde, udalerrian Euskararen Plan Estrategikoa osatu da. Plan estrategiko honen osaketan 12 lan taldek parte hartu dute, eta 190 herritar izan dira hauek. Hurrengo lerroetan udalerrian euskararen egoerarekiko dagoen ustea jasotzen da modu laburrean:

- Kirolak eta Aisialdia: ikus daiteke kirola egiterako garaian eta aisialdian gaztelera dela gehien erabiltzen den hizkuntza.
- Euskararen erabilera: Berrizko auzoetan euskararen erabilera oso ohikoa da, aldiz, hirigunean gaztelaren erabilera da nagusi.
- Komertzioak / ostalaritza / zerbitzuak: ahozko erabilerari dagokionez bi hizkuntzen erabilera antzekoa dela aipatzen da, aldiz, zehazten da gaztelera erabiltzeko joera dagoela. Bestalde, dokumentazio gehiena gaztelaraz egiten da.
- Familia eta ingurua: euskararen erabilera handiena ematen den eremua familia da. Hala ere, bikote euskaldunen artean gaztelaraz hitz egiteko joera dago.
- Pertsona gazteak: gaztelaren erabilpena lehenesteko joera dago.
- Herri erakundeak: entitate publikoekin egiten diren harreman gehienak gaztelaraz egiten dira.

Plan estrategikoaren helburua Berriz udalerrian euskalduna izatea da eta honako eremuetan euskararen erabilpena normaltzeko: hezkuntza, elkarteak, Udala, komertzioa / ostalaritza / zerbitzuak. Plan honen helburuak ere badira euskararen inguruan kontzientzia sortzea eta bera erabiltzeko ohitura bultzatzea.

Gaur egun Plan Estrategikoa eta Udalaren Euskararen Erabilerarako Plana Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak, EUDELek eta Foruzaingoak bultzatutako Euskararen Normalkuntzarako Planaren baitan kokatzen dira. Euskararen Normalkuntzarako Plan Orokorren helburua euskara maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean berreskuratzea da. EAE mailan osatutako plan honen bidez euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea bilatzen da. Hauek dira udalerrian bultzatzen diren arloak: hezkuntza (D eredua bultzatzea, ikastetxeetan hizkuntzaren normalkuntzarako planak egitea...), pertsonen alfabetatzea eta euskalduntzea (Berbalagun proiektua, euskaltegietan ikastaroak egitea etorkinen edo komertzioetako sektore zehatzetan...), euskararen erabilera soziala (aisialdiarekin lotutako ekimenetan euskararen erabilera bermatu, kulturean, kirolean... Udalaren eta herriko elkarte ezberdinen arteko elkarlanaren bitartez...), familia (belaunaldi arteko transmisioa) eta Administrazioa (Euskararen Erabilerarako Plana garatzen ari da, udal ordenantzak...).



### 3.7. Kirolak

Udalaren kirol eremuko ekinbideak hiru arlo nagusitan zehazten dira: kirol taldeei emandako diru-laguntzen kudeaketa, kirol planifikazioa eta udal kirol instalakuntzen kudeaketa.

Udalerriko kirol elkarteak honakoak dira. Hemen ikus dezakegu gaur egun geldirik direla badminton eta eskubaloi elkarteak.

4. taula. Berrizko Kirol Elkarteak.

Kirol elkarteak	Egungo egoera
Club Deportivo Berriz (futbola)	Aktibo
Berriz Bizikletari Elkartea (txirrindularitza)	Aktibo
Berrizko Oizpe pilota kirol taldea (pilota)	Aktibo
Club Karate Berriz (karatea)	Aktibo
Avar-eztandar (radikontrola)	Aktibo
Berriz Saskibaloia taldea (saskibaloia)	Aktibo
Amaraune mendi taldea (eskalada)	Aktibo
Badminton Berrizko taldea (badminton)	Ez aktibo
Berriz Eskubaloi talde (eskubaloia)	Ez aktibo

Iturria: Berrizko Udala.

Hauek dira gaur egun Berrizen diren udal instalakuntzak:

5. taula. Berrizko Udal Kirol Instalakuntzak.

Instalakuntzak	Ezaugarriak
Berrizburu futbol zelaia	Harmailak, aldagelak, Taberna, elkartearen bulegoak, belar artifizialeko joko zelaia.
Berrizburuko pista polikiroldegia	Hesitutako espazio irekia
Bolatokia	Estalitako espazio irekia
Olakueta pilotalekua	Joko kantxa, aldagelak, harmailak
Learrata Markina eskola pisa (eskola orduetatik kanpo)	Hesitutako espazio irekia
Zengotitabengoako erabilpen askotariko sala	Egurrezko lurzorua duen espazio itxia, aldagelak
Skate pista	Oztopo ezberdinak
Berrizburu polikiroldegia	Balio askotariko kantxa (44 x 28), Muskulazio sala, biltegiak, harmailak, spinning sala, egurrezko lurzoru dun gimnasioa, aldagelak, igerilekuko aldagelak, igerilekua (10.5 x 25 eta 10.5 x 5), Spa, zonalde berdea (solarium), Sauna

Iturria: Berrizko Udala.

### 3.8. Pertsona gazteak

Berrizko Udalerrriak Gazte Plana egin du tresna erraza bilakatzeko asmotan, gako irekian pentsatu da eta udalerriko pertsona gazteen beharrak eta kezkek lantzeko helburua du, kontuan izango dira hauek Planaren osaketan. Urrats garrantzitsua ematen da, beraz, zeharlerrozko politikak aplikatzerako garaian eta udalerriko gazteei bizitza kalitatea hobea erraztuz, emantzipaziorako bidean urrats bat gehiago ematea erraztuz.

Lehen urratsa Berrizko errealitatearen inguruko ikuspegi ahalik eta objektiboena lortzeko diagnostikoa osatzea izan da. Bigarren fasea ahulezien, mehatxuen, indarguneen eta aukeren diagnostikoa osatzea izan da.

DAFO-n jasotako ezaugarrien artetik azpimarratzen ditugu Berrizko gazteen bizitza kalitatean eta garapenerako aukeretan eragin handiena izan ditzaketen ezaugarriak:

- Azterketan jasotako gaietako bat etxebizitzaren egoera da. Ahulezi eta mehatxu gisa jasotzen da hutsik dauden etxebizitza kopurua eta etxebizitza alokairuan edo jabetza bidez eskuratzeko dagoen zailtasuna prezio altuek eraginda, gainera, ikus daiteke biztanleen portzentaje altu batek zailtasunak dituela bere egungo etxebizitza ordaintzeko. Bestalde, indar-gune gisa ikusten da Udalak babes ofizialeko eta tasatutako etxebizitzaren alde egindako politika.
- Aztertutako beste gaietako bat enpleguaren izaera izan da. Ahuldade gisa ikusten da langabezia diren pertsona gehienak gazteak eta 45 urtetik gorakoak direla. Gainera, biztanle gazteen portzentaje altu batek lan arrazoiengatik beste leku batzuetara joan behar izaten du egunero. Gainera, ahuldade gisa ikusten dira ikasketen amaiera adinaren igoera, dagoen prekaritatea eta lan mugimenduarekiko gazteriak duen aldentzea. Mehatxuen artean, ABLE bidez kontratatutako pertsona kopuru altua aipatzen da. Azkenik, aukeren artean, azpimarratzen dugu udalerrri mailan enplegu programak eta ekimenak bultzatzen ari direla.
- Gazteriaren hezkuntza eta formakuntzari dagokionez, alde batetik balore zibikoek ikasketan indarra egiteko beharra ikusten da. Gainera, pertsona gazteen eta gurasoen inplikazio falta nabari da. Aldiz, aitortzen da udalaren eta hezkuntza zentroen artean proiektu komunak gauzatzeko egiten ari den indarra. Mehatxu gisa ikusten da euskararekiko interes, ezagutza eta kultur identifikazio falta. Gainera, indar-gune gisa ikusten dira euskara babesteko egiten ari diren udalerrri mailako eta udalerriz gaindiko politikak.
- Azkenik, osasunari eta ekintza sozialari lotutako gaietan, azpimarratzen ditugu ahulezi eta mehatxu gisa ageri direnak: sexu bidezko transmisiozko gaixotasunen inguruko informazio gabezia; osasun mentaleko arazoak; familia perspektiba batetik landutako arretaren beharra; sozialki onartutako droga batzuen kontsumoa; etorkin

kolektiboen integrazio sozialerako egiturazko zailtasunak; gazteen elkarkidetza eskasa eta gazteria eta indibidualismoa elkartzen diren lonjen hazkundera. Indargune eta aukera gisa honako izateak azpimarratzen dira: gizarte-hezkuntza eskuhartzerako ekipo baten existentzia (EISE); drogamenpekotasunaren inguruko informazio tailerren antolatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako bidean kokatzen diren hezkuntza afektibo-sexualeko tailerrak, euskararen nagusitasuna auzoetan eta Gaztetxearen existentzia.

### **3.9. Emakumeen egoera**

2003an Berrizko Udaleko Emakumearen Batzordeak Emakumeentzako Aukera Berdintasunen II. Udal Plana osatu zuen. II Plan hau osatzeko udalerriko pertsona eta elkarte hainbatek parte hartu du, hauen iradokizunak eta ekarpenak jasoz.

Helburu nagusia emakumeen integrazioa eta euren ahalen garapen osoa mugatzen duten oztopoak ezabatzea eta jarrerak aldatzea, aukera berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko emakumezko eta gizonezkoen artean.

Hauak dira lantzen diren, eta beraz II Planean jasotzen diren, zortzi eremuak:

- Hezkidetza.
- Erantzukizun pertsonal, familiar eta profesionalen arteko bateragarritasuna.
- Enplegua. Aukera berriak.
- Hirigintza, eremu bizigarri eta seguruak.
- Osasuna eta ongizate pertsonala.
- Ongizate soziala.
- Kultura, kirola eta euskara.
- Tokiko administrazioa. Jarraitu beharreko eredia.

II Udal Plan honek EAEko Emakumeen Ekintza Positiborako IV. Planak eta Emakumezkoen eta Gizonezkoen aukera berdintasunerako eta Genero Politiken 2004-2007 planaren lerroak jarraitzen ditu. Aldi berean, Berrizko Udala emakumezkoen aurkako bortizkeriaren aurkako eta Berdintasunaren aldeko euskal Udalerrien Sareko –BERDINSAREA- kide da, EUDELeK eta Emakundek bultzatutako ekimena 2005ean.

## **4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA**

### **4.1. Ingurune fisikoa eta naturala**

#### **4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia**

##### **Geologia eta Geomorfologia**

Udalerria kokatzen den marko geografikoa Durangaldeako eremua da, eta Ibaizabalen arro altuaren jasotzaile den arroak osatzen du, bertan elkartzen dira hainbat buru hidrografiko (Mañaria, Elorrio eta abar). Modu horretan eskualdea osatzen duten aran multzoa osatzen da, paisaia eta orografia bereziak Bizkaia barruan ibilbide historiko ezberdindua eman diena. Arroa HHM-etik Durangaldeako tontorrek, Mugarrako gailurrek, Unzillaitzek, Urkiolak, Alluitzek eta Anbotoko mendizerrak ematen die, Arratia eta Aramaioko arantetik bereiziz; Ekialdetik Elgetako mendizerra du, aldi berean Elorrioko arana hartzen duena Bizkaia eta Gipuzkoa bereiziz; eta Iparraldetik Oiz mendiak ditu, ura hegoaldera (Ibaizabal) eta Iparraldera (Artibai, Lea) banatzen dituztenak.

Beraz, zonalde menditsua da, gora behera handiko erliebe duna eta biztanleria Ibaizabalen ibar eremuetan pilatzea dakarrena, hauek baitira eremurik lauenak.

Udalerrriaren topografia gora behera handikoa da, beraz, Oka ibaia Ibaizabal ibaiarekin elkartu arte sortzen duen aranak eta mendiaren maldak osatzen dute. Beste ertza gora beheratsuak Solaburu mendiak osatzen ditu, Elorriorekin eta Areitiko eta Trabakuako portuekin muga egiten duena (azken hauek Mallabia eta Zaldibar udalerriekin muga eraginez).

##### **Klima**

Euskal Herriko klima atlantiar eta mediterranean klimen arteko trantsizio eremuan kokatzen da eta hainbat faktore dinamiko orokorrek baldintzatzen dute, horien artean azpimarratu behar dira Mendebaldeko korrontea eta Frente Polarra. Mendebaldeko korrontek berarekin dakartza masa lainotsuak, hezetasunez beteta iristen dira Euskal Herrira Atlantiar ozeanoa igaro ostean eta prezipitazio askoren eragileak dira. Temperaturetan berebiziko garrantzia du Frente Polarra urrunago edo gertuago egoteak.

Bestalde, maila lokalean, Euskal Herriko klimak lotura estua du egoeraren baldintzatzaileak deitzen direnekin. Baldintzatzaileak dira erliebea eta ozeanoarekiko

gertutasuna. Erlikeak pantaila orografiko gisa ekiten du ekialdetik mendebalderako kokapena baitu orokorrean eta ozeanoarekiko gertutasuna kontraste termikoen erregulatuzailea da. Kantauriar isurialdeko baldintza klimatiko ozeanikoen ondorioz euria maiz egiten du eta tenperaturak epelak dira. Berrizko udalerria kantauriar zonaldean dago, eta beraz klima atlantikoak eragiten dio, klima epel hezea da eta ez du urtaro lehorrik.

Prezipitazioei dagokionez urteko batez bestekoa 1.100 eta 1.800 l/m<sup>2</sup> baino gehiagokoa da. Euri egunak asko dira, urtean 180 inguru batez beste.

Temperaturei dagokionez, neguko batez bestekoa 8° ingurukoa da eta izotz arriskua dago azaroa eta urtarrila bitartean. Urteko batez besteko tenperatura 14°C-koa da, nahiz eta neguaren eta udararen arteko ezberdintasunak Durangaldean nabaritu daitezkeen. Haizea mendebaldeko eta iparraldekoa izan ohi da, udaran salbuespena bada ere, haize lehorrak eta beroak nagusitzen baitira, hego-ekialdekoak. Haize bolada handienak 100 eta 105 Km/o abiadurakoak izaten dira.

## **Hidrologia**

Besteren artean, Berrizko udalerritik bere orografia zehazten duten bi ibai igarotzen dira: Oka eta Ibaizabal. Ez dugu Oka errearen inguruko informaziorik, aldiz, jarraian Ibaizabalek egiten duen ibilbidearen eta uraren kalitatearen inguruko deskribapen laburra egiten dugu.

### **IBAIZABALEN ARROA**

416 Km<sup>2</sup> inguruko azalera du arro honek Basaurin Nerbioirekin elkartu artean. Ibaizabalen jatorria askotarikoa da: batetik Intxortatik (689 m), Udalatxetik (1092 m) eta Anbototik (1296 m) datozen eta izen bereko herria zeharkatzen duen Elorrio ibaiarekin elkartzen diren Atxarte eta Orrio errekek ditu oinarrian. Bestetik, errekek Zaldu izena duen arroaren ipar-ekialdetik Zaldibarren, Berrizen eta sarrian Mañazardik (673 m) datozenak. Ezkerretik, Durangon eta harago, Urkiolatik (713 m) eta Sabigaindik (943 m) datorren Mañariaren ubide nagusia sartzen da, eta bere eskuinaldetik Magunasu Orobios, Larrea eta Larrabetzu.

Bere ibaiadar nagusia Arratia da, 25 kilometroko luzeraduna eta Gorbeiatik (1.475 m) datorrena, bere baitan Altunganetik (765 m) eta Saibigaindik (943 m) datorren 15 kilometroko Indusi jasotzen duena. Arratia ibai oso berezia da, izan ere goialdean Undurragako presak erregulatzen du. Presa honek Barazargo kanaletik arabar urtegiatiko ura eramaten du hainbat herri bizkaitar urez hornitzeko.

Lurzoru alubialetatik doa Ibaizabal, marrega, buztin eta hareharriz inguratuta. Arratiako azpi-arroak harearri, buztin eta kareharri lurak igarotzen ditu eta amaieran formazio alubialak daude.

Ibaiaren ohea zatirik handienez harkaitz handiek eta harri borobilduek osatzen dute. Arratia eta Indusi ibaietan harkaitzek, harriek eta harri borobilduek osatzen dute. Ibaizabalen gainontzeko erreketan ere gehienez harri handiek osatutako eremu harkaitztsuak dira nagusi.

Lurzoruaren erabilera gehienez nekazaritza eta abeltzaintzarako eta basogintzarako da, koniferen birpopulatzeak dira nagusi, pinuarenak bereziki. Arro nagusiaren hasieratik oso industrializatua eta biztanleria handikoa da eta honako herriak zeharkatzen ditu, besteak beste: Elorrio, Durango, Amorebieta, Etxano, Lemoa eta Galdakao. Zelaiek hartzen dute aranaren gehiengo ibaiaren arroa inguratuz eta laboreekin tartekatuz. Arroaren goi partean haritza eta pagoa ere badira. Behealdean, berriz, banatuta bada ere badira artadiak eta hariztiak.

#### *URAREN KALITATEA*

##### Uraren kalitatea

Erkidego Autonomoko Ibaien Ingurumen Egoeraren Uren Kalitatearen Zainketarako Sareak zazpi kontrol estazio ditu Ibaizabalen arroaren kontrolerako.

Berriz inguruan egiten den kutsadura aztertzeko daturik interesgarrienak I-140 (Smurfit Nervion SA papertegiaren gaineko urak) eta I-160 (Smurfit Nervion SA papertegiaren osteko urak) estazioetan jasotakoak dira.

20. taula. 2002ko laginketa.

<b>IBAIAREN EKOSISTEMAKO INPAKTUA</b>		
<b>Estazioa</b>	<b>Ekosistemaren Mantenuaren galeraren maila</b>	<b>Arrainen faunaren toxikotasuna</b>
<b>I-140</b>	99	N
<b>I-160</b>	100	B

6. taula. 2002ko laginketa.

<b>Estazioa</b>	<b>Ingurumen egoera</b>	<b>Ibai ertzen mantenua</b>	<b>Egoera ekologikoa</b>
<b>I-140</b>	E2	Eskasa	Eskasa
<b>I-160</b>	E1	Eskasa	Eskasa

1. Arrainen faunaren toxikotasuna:

N: Ur normalak

B: Efektu toxiko eta patologikoak eragiten dituen biometanizazioa duten urak.

I: Arrainen bizirako bideraezina

2. E indizeak zehazten du urek biodebirsitate ahalik eta handiena izateko probabilitatea. Terminologia: E1 Hipereutrofia-inguru oso gogorra, E2 Kutsadura; ur kutsatuak, inguru gogorra, E3 Eutrofizazioa-inguru gorabeheratsua, E4 Ur garbiak-inguru establea, E5 Ur oligomesotrofikoak; inguru oso heterogeneoa.

Datu hauetatik ondorioztatu daiteke Ibaizabal ibaiak mantenuaren %100eko galera duela, arrainen bizitzaren garapenerako inguru egoera oso gogorra da eta ibai-ertzaren mantenua oso baxua da bi estazioetan:

- EZEREZA I-140an, ertzean eraikuntzak daudelako, zuhaitzak sartu direlako eta zaborrak isurtzen direlako.
- BAXUA I-160 estazioan

22. taula. Laginketa puntuen ingurumen egoeraren garapena. .

	<b>INGURUMEN EGOERA</b>					
<b>Laginketa puntua</b>	1993 udaberria/ udara	1994 udaberria/ udara	1995 udaberria/ udara	1996 udaberria/ udara	1997 udaberria/ udara	1998 udaberria/ udara
<b>I-140</b>	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E2/E3	E3	E2
<b>I-160</b>	E2/E3	E2/E3	E3/E3	E3/E3	E2	

	<b>INGURUMEN EGOERA</b>			
<b>Laginketa puntua</b>	1999 udaberria/ udara	2000 udaberria/ udara	2001 udaberria/ udara	2002 udaberria/ udara
<b>I-140</b>	E3	E1	E1	E2
<b>I-160</b>	E2	E1	E1	E1

Ikus daiteke ibaiaren arroaren ingurumen egoeraren galera 1997tik aurrera, garai honen aurretik I-140 eta I-160 estazioek E3 motako kalitate mailak erakusten zituzten maitasun handiagoz.

Europako Artezarauek ezarritako uraren kalitaterako mailen arabera, ikus daiteke ez direla erabilgarriak ur edangarria hornitzeko, ezta bainatzeko ere. Ur hauek kutsatuta daude eta zaildu egiten dute arrainen bizitza bertan.

7. taula. Uraren kalitatea.

	<b>EUROPAKO ARTEZARAUAK</b>		
<b>Estazioa</b>	<b>Horniketa<sup>1</sup></b>	<b>Bainua<sup>2</sup></b>	<b>Arrainen Bizitza<sup>3</sup></b>
<b>I-140</b>	A4	Ez egokia	III
<b>I-160</b>	A4	Ez egokia	III

1. 75/440/CEE hornikuntza artezarauek: Hornikuntza (A1, A2, A3)

A4 ur edangarrirako erabilgarria ez den ura, salbuespen kasuetan izan ezik, tratamendu zehatzekin.

2. Kontseiluaren Artezarauek 76/160/CEE: Bainua (Egokia, Ez egokia)

3. Kontseiluaren Artezarauek 78/659/CEE: Arrainen Bizitza (S.C, III)

III Ur kutsatuak, kalitate txarra



### Uraren kalitate fisiko-kimiko orokorra

Ibaizabalen arroa oso humanizatua dago, hirigune garrantzitsuak ditu (Durango bera) eta industrializazio handia bizi du, bi arrazoi horiek kutsadura handia eragiten dut, beraz, kalitate orokorra “Ez da iristen kalitate kimiko onera”.

Urak dituen kutsatzaile organikoen presentzia handia da, azpimarratu behar dira zinka, kobrea, kromoa, burdina eta beruna. Ibaizabal ibaiko estazioetan (I-140 eta I-160) kromo maila handia jaso da, industria handia dagoelako eta inguruko emaria txikiagoa delako beste estazioetan baino. DBO5 (Oxigenoaren Eskari Biologikoa, 5 egun - *gazt. Demanda Biológica de Oxígeno, 5 días*) balioek gutxitzeko joera dute, aldiz DQO balioak iraunkorrakoak dira; badirudi egoera horrek erakusten duela izaera biologikoa duen kutsadura hori gutxitzen ari dela (saneamendurako instalakuntza berriak ezarri direlako) eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten jarraitzen duela. I-140 estazioan gatz kutsadurak hobekuntza bizi du, 1999a ezker ez dago kutsadurarik.

### Arrainen komunitatearen osaketa

Arrainen bizitzari dagokionez Ibaizabal ibaiak komunitate oso urria erakusten du, ez dago espezien erreserbak kolonizatu ahalko lukeen ibaiaren berreskurapen kimikorik. Azken urteetako garapena aztertuz, Berriztik igarotzean izan dezakeen biztanleria aberastasuna arriskuan dago. Arrainen lau espezie detektatzen dira funtsean: amuarraina, loina, zarboa eta ezkailua. Dibertsitate indizea oso baxua da. Gure ibaian gehien nabari den falta izokinarena da.

Arrainen komunitatearen Kontserbazio Diagnostikoa “Moderatu” gisa zehazten da, horrek esan nahi du azken urteetan bere horretan mantendu dela. “Faunaren osaketa eta ugaritasunaren” diagnostikoak, berriz, balorazio hau dakar: Oso Txarra edo Oso Egoera Txarrekoa.

Ibaizabal ibaiko estazioen (I-140 eta I-160) kalitate fisiko-kimikoaren garapenari dagokionez kromo maila handia jaso da, industria handia dagoelako eta inguruko emaria txikiagoa delako beste estazioetan baino. DBO5 (Oxigenoaren Eskari Biologikoa, 5 egun - *gazt. Demanda Biológica de Oxígeno, 5 días*) balioek gutxitzeko joera dute, aldiz DQO balioak iraunkorrakoak dira; badirudi egoera horrek erakusten duela izaera biologikoa duen kutsadura hori gutxitzen ari dela (saneamendurako instalakuntza berriak ezarri direlako) eta izaera kimikoa duenak garrantzitsua izaten jarraitzen duela. I-140 estazioan gatz kutsadurak hobekuntza bizi du, 1999a ezker ez dago kutsadurarik.

Ibai-ertzen kontserbazioa

I-140 estaziotik igarotzean ibai-ertzeko basoaren balorazioa eskasa da, batez ere industria eta etxebizitza eraikuntzak dituelako inguruan. Ibai-ertzean kalte gehien eragin duten inpaktuak baso-soiltzeak, nabarmentzeak eta ibaiaren arroaren gutxitzeak izan dira.

Iurretatik igarotzen denean, I-160 estazioaren paretik, ibai-ertzeko basoak degradatuak daude, euren ertzetan ezarri diren hiri eta industria erabilpenen ondorioz.

Ibaizabal ibaiaren balorazio orokorra

24. taula. Ibaizabal eta Elorrio ibaien egoera.

	<i>Egoera biologikoa</i>	<i>Egoera ekologikoa</i>	<i>Diagnostiko orokorra</i>
<b>I-140</b>	Eskasa	Eskasa	Eskasa
<b>I-160</b>	Eskasa	Eskasa	Eskasa

**4.1.2. Flora eta fauna****Flora***Landaredia potentziala*

Berrizko lurra, geologia, erliebea, klima eta hidrologia baldintzatzen dituen landaredia, landaredia potentziala deitutakoak, bost formakuntza bereizi biltzen ditu. Behe aldean (muinotarrean) harizti baso mixto atlantiarra eta harizti azidofiloa aurkitzen dira. Menditarrean, Berrizen 500 eta 700 metro ingurutik gora kokatzen dena, pagadia aurkitzen da.

Substratuari lotuta ageri diren gainontzeko bi formakuntzak hauek dira: kare krestako artadiak, lurzoru harritsu eta lehorrei lotutakoa, eta ibai ibarretan aurkitzen den haltza, urez betetzen den lurretan.

*Egungo landaredia*

Egungo Berrizko landaredia potentzialki izan beharko lukeenetik oso urrun dago, inguruan gizakiak izan duen ekintza handiaren ondorioz. Jarraian aipatzen dira modu laburtuan existitzen diren espezieak, nahiz eta beste atal baten ere aipatzen diren "Paisaiaren eta biodibertsitatearen kontserbazioan eragina duten Jarduerak" atalean.

Aurrez esan dugun moduan, landaredia baldintzatzen du, nagusiki, lurraren beraren altitudeak. Hala ere, gizakiaren ekintza handiak garai bateko paisaia aldarazi du. Udallerriaren eremu altuetan (itsasoaren mailarekiko 400 metrotik gorakoetan) landatze hostotsuak eta bereziki intsigni pinuarenak dira nagusi; eremu ertainetan zelaiak eta fruta-arbola batzuk dira nagusi (udarea, kiwia...) eta zonalde baxuetan laborantza lurrak dira nagusi eta hauen artean barazkiak ekoizteko erabiltzen diren negutegiak.

**Fauna**

Berrizen honako habitatak ditugu fauna espezientzat.

*Koniferak*

Fauna ikuspegitik ez dute baso izaera betetzen eta komunitate espezietan eskasa aurkezten dute. Hurrengo taulan ikus ditzakegu espezie garrantzitsuenak:

**8. taula. Koniferetan aurkitu daitezkeen espezie nagusiak**

<i>Koniferetako ohiko espezieak</i>	
Apo arrunta	Gerri-txori arrunta
Baso-igel gorria	Mokokerra
Zirauna	Millet satitsua
Gabiraia	Lursagu gorria
Txepetxa	Basasagua
Txantxangorria	Soro-muxarra
Erregetxo bekainzuria	Katagorria
Amilotx mottoduna	Katajineta
Pinu-kaskabeltza	Azeria

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila. 1989.*

*Hiriguneak*

Ornodunen espezie batzuk hirigune nukleo txikitara ohitu dira. Komunitate ezaugarritua eta ez eskasa osatzen dute, gainera interesa dute biztanleriak ikusteko sortzen duten aukeragatik.

**9. taula. Hirigunetan ohikoak diren espezieak.**

<i>Hiriguneetako ohiko espezieak</i>	
Sugandila	Buztanikara zuria
Horma-sugandila	Araba-zozo beltza
Zikoina	Txolarrea
Usapal turkiarra	Arratoi beltza
Hontz zuria	Arratoi arrunta
Sorbeltz arrunta	Etxe-sagua
Enara	Erbinudea
Enara azpizuria	

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila. 1989.*

*Ibaien goi ibilbideak*

Bertan dira mendiko ibaiak. Hauek dira ohikoan aurkitzen diren espezieak:

**10. taula. Ibaien goi ibilbideetako ohiko espezieak.**

<i>Ibaien goi ibilbideetako ohiko espezieak</i>	
Amuarrain arrunta	Ur-zozoa
Eskailua	Buztanikara horia
Mazkarra	Muturluze piriniarra
Aingira	Arrabioa

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila. 1989.*

**4.1.3. Paisaia eta ekologia intereseko guneak**

Ez dago gai honi dagokion daturik.

#### 4.1.4. Paisaiaren eta biodibertsitatearen mantenuan eragina duten ekimenak

Aurrez esan dugun bezala, Berrizko udalerriak 30,1 Km<sup>2</sup> ditu azaleran, gutxi gora behera.

Lurraren erabilpen banaketari dagokionez, 1996an Berrizko lurraldearen %3,28a ez zen produktiboa; %23,9a zelaiek hartzen zuten; %4,78a bazkalekuak ziren; azaleraren %5,24a sastrakak ziren; %59,90a zuhaitz askoko basoei eskaintzen zitzaion eta %2,8 zuhaitz gutxiko basoak ziren. Beraz, esan dezakegu udalerriaren zati handiena basoek hartzen dutela eta horietan, garrantzitsua dela pinuak duen presentzia.

28. taula. Lurraren erabilpenaren banaketa lurralde eremuen arabera (hektareak). 1996

	<b>Ez produktiboak</b>	<b>Zelaiak</b>	<b>Bazkalekuak</b>	<b>Sastrakak</b>	<b>Zuhaitz askoko basoak</b>	<b>Zuhaitz gutxiko basoak</b>	<b>Laborantza intentsiboa</b>	<b>Guztira</b>
<b>Euskal AE</b>	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
<b>Bizkaia</b>	19.129	50.867	4.114	17.533	121.259	6.985	1.836	221.723
<b>Durungaldea</b>	2.630	6.571	347	1.188	20.238	760	68	31.802
<b>Berriz</b>	99	720	144	158	1.803	86	-	3.010

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritz. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso errolda 1996.

Hurrengo taulan ikus dezakegu bertako espezieen aldean, nagusi direla koniferen basoak:

29. taula. Zuhaitz-dun baso azalera lurralde eremuaren eta espeziearen arabera (hektareak). 1996.

	<b>Atlantiar basoa(%)</b>	<b>Artea (%)</b>	<b>Eukalipto (%)</b>	<b>Pagoa (%)</b>	<b>Radiata pinua (%)</b>	<b>Basapinua (%)</b>	<b>Erkametzak (%)</b>	<b>Beste koniferak (%)</b>	<b>Beste hostotsuak (%)</b>	<b>Konifera denak (%)</b>	<b>Hostotsu denak (%)</b>	<b>Espezie denak (hektareak)</b>
<b>Durungaldea</b>	4,90	2,30	0,15	9,33	77,45	0,48	0,009	8,68	2,17	86,61	13,36	20.998
<b>Berriz</b>	5,71	0,05	-	0,26	85,6	2,06	-	3,28	3,01	90,99	9,05	1.889

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritz. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso errolda 1996.

Nekazal jardueretan ustiatutako azalerari dagokionez, 1999an Berrizen erroldatutako 260 ustiapenetatik %56,9a abeltzaintzakoak ziren, %42,3a abererik gabe eta %0,76ak lurrik jabe egiten zuen bere jarduera. Azkenik, nekazal erabilpena bideratutako Berrizko lur azalera orotara 2.189 Ha-koa zen.

**11. taula. Erroldatutako ustiapenak eta azalera orotara. 1999.**

	Guztira		Abereduna		Abererik gabea		Lurrik gabeko ustiapenak
	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.	Ha.	Kop.
<b>Durangaldea</b>	2.821	22.932	1.514	10.313	1.284	12.619	23
<b>Berriz</b>	260	2.189	148	947	110	1.242	2

Iturria: EUSTAT.

**Basoen birpopulatzeak**

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 2000-2005 urte artean Berrizko udalerrriak honako birpopulaketak egin ditu: 12,63 Ha. radiata pinua eta 18 Ha. Douglas izeia.

**Baso suteak**

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileko datuen arabera, 1999-2005 urte artean Berrizen 12 sute izan ziren eta 64.150 m<sup>2</sup>-tan zuen eragina.

**31. taula. Udaltalde 21en kide diren udalerrietan izandako suteak 1999 eta 2005 artean.**

<b>UDALERRIA</b>	<b>Suteak</b>	<b>Erretako azalera (m<sup>2</sup>)</b>
Abadiño	10	19.800
Atxondo	1	3.000
Berriz	12	64.150
<b>Durango</b>	<b>4</b>	<b>6.000</b>
Elorrio	12	35.300
Garai	4	10.000
Iurreta	5	800
Izurtza	1	10.000
Mañaria	2	Alarma faltsuak
Otxandio	0	-
Zaldibar	10	29.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>61</b>	<b>178.050</b>

Iturria: EUSTAT. Eusko Jaurlaritza. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila. .

**Erauzteak**

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren informazioaren arabera udalerrian ez dago erauzketarik.

## **4.2. Lurralde antolaketa eta planifikazioa**

### **4.2.1. Lurraldean Antolaketarako Artezbideak (LAA) eta Lurraldearen Zatikako Plana**

#### **Lurraldearen Antolaketarako Artezbideak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolaketarako Artezbideak (LAA) dira lurraldearen legegietan aurreikusitako antolaketa planak eta lurraldearen antolaketarako tresnak osatzeko erreferentziazko marko nagusia.

Artezbideek finkatzen dute jarduerarako eremu egoki gisa lurraldearen antolaketarako eskualdeko eremua, gure kasuan Durangoko Jarduera Eremua.

Lurraldearen Antolaketarako Artezbideek zonalde hauen mugapena "jarduera" irizpideen arabera zehaztu behar dira, eta bera osatu behar dute udalerrri ardatzak eta bere eragin eremuan dauden udalerriek. Honako baldintzak jaso behar dira Lurraldearen Jarduera Eremu ezberdinen osaketa eta egituratze egokia egiteko:

- Homogenitate geografikoa
- Bere inguru geografikoarekiko hirigune baten edo gehiagoren lidergoa
- Osagarritasuna, barne mailako harreman handiagoa dagoenean kanpo mailakoa baino.

Irizpide horiek kontuan hartuz osatu da Durangoko Jarduera Eremua, Durango da eremuko ardatza eta berarekin batera dira honako udalerrriak: Abadiño, Amorebieta - Etxano, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

LAA-ek proposatzen duten Lurralde Ereduak lurzorua kudeaketarako irizpideak ematen ditu bizitegiarako edo jarduera ekonomikorako lurraldearen erabilpen gaitasuna definituz eta horretarako landuko diren eremuak zehazten ditu; bereziki Amorebieta-Etxano – Durango ardatza zehaztuz. Azken urtetako joera ikusita, ardatz hau zabaldu ahalko litzateke Amorebietatik Berriz, Abadiño, Atxondo eta Elorrio arte. Hala ere, azpimarragarria da eremuak Erkidego Autonomoaren jarduera industrialen baitan hartzen duen garrantzia. Bizitegiarako lurraldearen erabilpenaren aurreikuspenei dagokionez, Durango-Abadiñoaren hazkunde garrantzitsua proposatzen da, eta bigarren etxerako erabilpena bezalako aukerei ez zaie garrantzirik ematen.

Ingurune Fisikoaren gaineko irizpideei dagokionez, Berrizen ia-ia ez dute eraginik; izan ere landa lur gutxi dago Berrizen, soilik, Mugarrara lotutako eremuak du paisaia eta natura interesa eta bere kontserbazioa Urkiolako Parke Naturaleko zati izateak bermatzen du.

## Lurraldearen Zatikako Plana

Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren (EHSP) baitan eta Lurralde Antolamendurako Artezbidetean (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 12/2/97an EAO.-n argitaratuak) zehaztutako jardute eremuen barruan Durango ardatz gisa ageri da Durangoko Jarduera Eremuan.

Lurraldearen Zatikako Planek (LZP) LAA-ek zehazten dituzten udalerriz gaindiko guneen garapena dute xede, berak aurkeztutako irizpideak zehaztuz.

Durangoko Jarduera Eremua Lurraldearen Zatikako Plana lantzen ari da eta bere lehen bi faseak bete ditu: Informazioa eta Diagnostikoa egitea eta Aurrerakinaren osaketa.

Durangoko Jarduera Eremuko LZPren aurrerakina 2002ko otsailean osatu da eta COTPV-ra (Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Komisiora) bidaltzekotan da.

Bere Memorian proposatzen diren helburu nagusiak hauek dira:

- Durangoko Jarduera Eremua indartu Euskal Herriaren eta Bizkaiaren artikulaziorako gako gisa, bere kokapen estrategikoagatik.
- Aranaren amaierako urbanizazio handiaren eta baserrian oinarritutako nekazal jardueraren arteko elkarbizitza zaintzea.
- Lurraldearen erabilpen egoki horretan oinarritutako hiri garapena bultzatzea.
- Ibaizabalgo korridorearen konpetibitate eta birkualifikatze elementuak indartzea.
- Eusko Tren Jarduera Eremuaren elementu artikulatzailea: bikoizketaren ezaugarri baikorrak.
- Bitarteko naturalean eta landa paisaiaren babes aktiboa bermatzea, paisaia kalitatearen berme den baserriaren bideragarritasuna ziurtatuz.

Etxebizitzari dagokionean Berrizen aurreikusten da 2000-2003 lau urtean 447 etxebizitzako eskaintza behar dela.

Garraioari dagokionez, Ardatz Nagusietatik inguruko lurraldeekin lotzen diren korridoreak (Sare Nagusikoak) bultzatu nahi dira; zehazki, aipatzen da Berriz Hegoaldetik Apatamonasteriorako hegoaldeko saihebidetako zabala egitearen garrantzia, Durango-Abadiño-Apatamonasterio-Elorrio hirigune ardatza birgaitzea bultzatzeko asmoz.



#### 4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana

Behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planei dagokionez, Berrizko udalerrientzako aurreikuspen zehatzak gutxi dira. Garrantzitsuenei erreferentzia motza egingo diegu:

- Ibaien eta Erreken hertzak antolatzeko Antolaketa Plana - . Isurialde Kantauriarra (Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak onartua). Ibaizabal ibaiaren eta bere isurkideen inguruan babes arau orokorrak aurreikusten dira.
- EAEko Errepideen Plan Orokorra, 355/1992 dekretuaren bidez onartua. Diagnostiko honen beste atal batzuetan garatzen dira aurreikuspenak.
- EAEko Trenbide Sarearen Plana (otsailaren 27ko 41/2001 dekretuak onartua). Udalerria zeharkatzen duen Abiadura Handiko Trenari eta Eusko Treni dagozkion aurreikuspenak jasotzen ditu. Proposatzen den ekinbideetako baten helburua Bilbo eta Durango arteko bidea hobetzea da. Ekinbide hau, hirigintza jarduera funtsezkoa da, ez tren jarduera, ekinbidearen ondorioz hiriguneko lur azalera handia lortuko bailitzateke.
- Hezeguneen Antolaketa Plana (uztailaren 27ko 160/2004 dekretuak onartua).
- Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Plana, abenduaren 21eko 262/2005 dekretuak onartua (EAEAO 28/1/05). Iaz azaldutako LAAPren aurrerakinean, Durangoko Jarduera Eremuaren diagnostikoan, hiri egituratzea eta jarduera ekonomikoa atertzen dira, komunikazio sarea, kalifikatutako lur erretserbak eta eskariaren aurreikuspenak. Durangoko Jarduera eremuak 757 Ha. lur kalifikatu ditu, horietako 510 Ha. okupatuta daude eta 247 ha. ez okupatuta. Lurzoru ez okupatuko erretserba handiena Amorebieta-Etxanok du 117 ha-rekin (70 ha. Boroan). Durangok 48 ha. ditu, Abadiñok 13 ha., lurretak 34 ha. eta Berrizek 6 ha. Jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez duten gainontzeko udalerriek, Garaik salbu, 5 ha. inguruko erretserbak dituzte bakoitzak.

### 4.3. Hiri Egitura eta Planeamendua

Hirigunearen Udalerriko Planeamendua udal lurraldearen Antolaketa Integralerako tresna gisa osatzen da, bere helburu nagusia udalerrientzat moldatzen den lurralde antolaketarako ereduaren zehaztapena eta definizioa egitea da, lurzorua dagokion erregimen juridikoaren arabera sailkatuz. Gaur egun Berrizen dauden Arau Subsidiarioak 1997ko irailekoak dira.

Egungo arau subsidiarioek hiriguneko lurraldea hirigintzarako erabilgarria eta erabiltezinaren artean banatzen dute.

#### *HIRI-LURRA*

Lurzoru honen baitan barnebiltzen dira beregain eraikitzeke ezaugarri egokiak dituzten bizitegitarako eta industriarako eremuak, eta eraikuntzarako trinkotuak daudenak, edo osotasunean izan ezean udalerrriaren hiri sarea osatzeko barnebiltzea eskatzen dutenak. Arau subsidiarioek honako hiri-lurrak bereizten dituzte:

- Trinkotutako Bizitegitarako Hiri-Lurrak.

Lehen sailkapen honen baitan honako eremuak kokatzen dira: Olakueta eta Elizondoko nukleo historikoak eta hiriguneko jasan duen ondorengo hirigintza garapena.

- Bizitegitarako Exekuzio Unitateak.

Sailkapen honen baitan dira momentu honetan eraikinik gabe edo eraikin ez berdinak dituzten hiri-lurdun eremuak eta hauei udalerriri eman nahi zaion hiri eredu berria ahalbidetuko duen antolaketa eman nahi zaiena. Arau subsidiarioetan 18 Exekuzio Unitate proposatzen dira.

- Trinkotutako Industriarako Hiri-Lurrak.

Udalerrian dauden industria eraikinen multzoa biltzen da. Sailkapen honen baitan dira Eituako poligonoa eta honakoek osatzen dituzten industria irlak: Forjas de Berriz eta Tortillería Amezua (Olakuetako hirigunea); TAES eta Tornillería San Pedro (Olabe auzoa) eta Elix eta Egaña (Okango auzoa).

- Industriarako Exekuzio Unitateak.

Sailkapen honen baitan dira momentu honetan eraikinik gabe edo eraikin ez berdinak dituzten industria hiri-lurdun eremuak. Arau Subsidiarioetan Industriarako 4 Exekuzio Unitate biltzen dira, denak Eituako industrigunean.

Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, udalerriko hiri-lurraren erdia baino gehiago (%53,07) bizitegitarako erabiltzen da (bizitegitarako hiri-lurra + bizitegitarako exekuzio unitateak), aldiz, esan dezakegu gainontzeko ia erdia industria erabilpenerako dela sektoreak lurzoruaren okupazioarekiko duen garrantzia erakutsiz.

**12. taula. Hiru-lurrek Berrizen hartzen duten azalera.**

<b>Lurzoruaren sailkapena</b>	<b>Azalera</b>	<b>%</b>
<b>Trinkotutako Bizitegitarako Hiri-Lurra</b>	198.107 m <sup>2</sup>	37,9
<b>Bizitegitarako Exekuzio Unitateak</b>	79.234 m <sup>2</sup>	15,17
<b>Trinkotutako Industriarako Hiri-Lurra</b>	204.676 m <sup>2</sup>	39,19
<b>Industriarako Exekuzio Unitateak</b>	40.140 m <sup>2</sup>	7,68
<b>HIRI-LURRA OROTARA</b>	<b>522.157 m<sup>2</sup></b>	<b>100</b>

*Iturria: 1997ko irailaren 16eko arau subsidiarioetan oinarritua.*

#### **HIRIGINTZARAKO ERABILI DAITEKEEN LURZORUA**

Arau subsidiarioek honako sailkapena egiten dute:

- Hirigintzarako erabilgarria den lurzorua -0: bizitegitarako erabilpeneko sektorea da, dentsitate baxukoa, hirigunearen iparraldera kokatua, Margarita Marutana etorbidearen eta Markinako errepidean kokatua.
- Hirigintzarako erabilgarria den lurzorua -1: bizitegitarako erabilpeneko sektorea da, dentsitate ertainekoa, hirigunearen ipar-ekialdera kokatua, Learreta-Markina kalearen eta Abeletze Auzoko urbanizazio berrien artean.
- Hirigintzarako erabilgarria den lurzorua -2: bizitegitarako erabilpeneko sektorea da, dentsitate ertainekoa, hirigunearen iparraldera kokatua, eta mugatzen dute iparraldera Learreta-Markina Ikastetxe Publikoak eta Berrizko Markesaren Jauregia inguratzen duen Eremu Libreen Sistema Orokorrak; hegoaldera udalerriko hiriguneak; ekialdera Iturritza kaleak eta mendebaldera oinezkoen pasealekuak eta belodromoaren lurrek. Espero da aurreikusitako etxebizitzaren %25a udalaren jabetzakoak izango direla eta nolabaiteko babes publikoko erregimenen batenpean eraikiko direla.

- Hirigintzarako erabilgarria den lurzorua -3: Bizitegitarako erabilpeneko sektorea da, dentsitate baxukoa, hirigunearen hegoaldera kokatua, A-8 autobidearen eta Bilbo-Donostia trenbidearen artean.
- Industriadarako erabilgarria den lurzorua-0: sektore ez-jarraitua da, erabilpen industrialerakoa, Eituako zonaldean kokatutako lau azpisektorek osatzen dute, CN-634 errepidearen (Bilbo-Donostia) bi albotara kokatuak.
- Industriadarako erabilgarria den lurzorua-1: industria erabilpenera bideratutako sektorea da, hirigunearen ekialdera kokatua, CN-634 errepidearen (Bilbo-Donostia) eta A-8 autobidearen artean kokatua. Eremu honetan kutsatzaileak ez diren jarduera industrialak eta zerbitzuetakoak kokatzea da asmoa.
- Industriadarako erabilgarria den lurzorua-2: industria erabilpenera bideratutako sektorea da, udalerraren ekialdeko ertzean kokatua, CN-634 errepideak eta A-8 autobideak mugatutako eremuan. Sektore honen helburua aurrekoaren berbera da eta beraren jarraipena litzateke.

Hurrengo taulan erakusten den hirigintzarako erabilgarria den luraren banaketaren arabera, hirigintzarako egokia den lurzoruen %60,46a industria erabilpenerako da.

13. taula. Hirigintzarako egokia den lur-azalera.

<b>Lurraren sailkapena</b>	<b>Azalera</b>	<b>%</b>
<b>Hirigintzarako erabilgarria den lurra-0</b>	19.000 m <sup>2</sup>	6,04
<b>Hirigintzarako erabilgarria den lurra -1</b>	29.400 m <sup>2</sup>	9,35
<b>Hirigintzarako erabilgarria den lurra -2</b>	38.114 m <sup>2</sup>	12,12
<b>Hirigintzarako erabilgarria den lurra -3</b>	37.700 m <sup>2</sup>	11,99
<b>Industriadarako erabilgarria den lurra -0</b>	146.483 m <sup>2</sup>	46,59
<b>Industriadarako erabilgarria den lurra -1</b>	26.119 m <sup>2</sup>	8,30
<b>Industriadarako erabilgarria den lurra -2</b>	17.533 m <sup>2</sup>	5,57
<b>HIRIGINTZARAKO ERABILGARRIA DEN LURZORUA OROTARA</b>	<b>314.349 m<sup>2</sup></b>	<b>100</b>

Iturria: 1997ko irailaren 16eko arau subsidiarioetan oinarritua.

**HIRIGINTZARAKO ERABILGARRIA EZ DEN LURZORUA**

Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan hirigintzarako erabilgarria ez den lurzorua kategoria ezberdinetan sailkatzen da:

**14. taula. Hirigintzarako erabilgarria ez den lur-azalera.**

<b>Lurraren sailkapena</b>	<b>Azalera</b>	<b>%</b>
<b>Landa-lur orokorra</b>	8.343.360 m <sup>2</sup>	28,66
<b>Paisaiaren babes naturala</b>	19.806.833 m <sup>2</sup>	68,05
<b>Landatar nukleoak</b>	502.563 m <sup>2</sup>	1,72
<b>Erretserba lurzorua</b>	19.260 m <sup>2</sup>	0,066
<b>Azaleko uren babes zonaldea</b>	430.178 m <sup>2</sup>	1,47
<b>HIRIGINTZARAKO ERABILGARRIA EZ DEN LURZORUA OROTARA</b>	<b>29.102.194 m<sup>2</sup></b>	<b>100</b>

*Iturria: 1997ko irailaren 16eko arau subsidiarioetan oinarritua.*

Esan dezakegu hirigintzarako erabilgarria ez den lurzoruaren gehiengoa paisaiaren babes naturalerako hartua dela (hirigintzarako erabilgarria ez den lurzoruaren %68a).

**SISTEMA OROKORRAK**

Honakoa da arau subsidiarioetan egiten den Sistema Orokorren banaketa:

**15. taula. Sistema Orokorrak diren lur-azalerak.**

<b>Lurraren sailkapena</b>	<b>Azalera</b>	<b>%</b>
<b>Komunikazioen Sistema Orokorra</b>	512.595 m <sup>2</sup>	41,35
<b>Eremu libreen Sistema Orokorra</b>	251.738 m <sup>2</sup>	20,30
<b>Kirol ekipamenduen Sistema Orokorra</b>	75.262 m <sup>2</sup>	6,07
<b>Azpiegituren Sistema Orokorra</b>	355.499 m <sup>2</sup>	28,67
<b>Ekipamendu komunitariorako Sistema Orokorra</b>	44.596 m <sup>2</sup>	3,59
<b>SISTEMA OROKORRAK OROTARA</b>	<b>1.239.630 m<sup>2</sup></b>	<b>100</b>

*Iturria: 1997ko irailaren 16eko arau subsidiarioetan oinarritua.*

**LURZORUAREN ERABILPENA**

Jarraian lurzoru mota bakoitzaren azalera azaltzen dira, erabilpen nagusiaren arabera eta udalerraren guztiarekiko portzentajearen arabera:

**16. taula. Azalera erabilpen nagusiaren eta guztiarekiko portzentajearen arabera.**

	<i>Hiriguneko lurra</i>	<i>Hirigintzarako erabilgarria den lurra</i>	<i>Hirigintzarako erabilgarria ez den lurra</i>	<b>GUZTIRA</b>	<b>%</b>
<b>BIZITEGIAK</b>	27,73 Ha	12,42 Ha	50,26 Ha	90,41 Ha	3%
<b>INDUSTRIALA</b>	24,48 Ha	19,01 Ha	---	43,49 Ha	2%
<b>LEHEN SEKTOREA</b>	---	---	2.859,97 Ha	2.859,97 Ha	95%
<b>GUZTIRA</b>	<b>52,21 Ha</b>	<b>31,41 Ha</b>	<b>2.910,23 Ha</b>	<b>2.993,87 Ha</b>	<b>100%</b>

*Iturria: 1997ko irailaren 16eko arau subsidiarioetan oinarritua.*

Ondorio gisa aipatu behar da udalerriko lehen sektorearen garrantzia, azalaren %95a hartzen du, nahiz eta enplegu sorreran eragin txikia duen.

**ETXEBIZITZA**

Hiri-lurrean 284 etxebizitza berriren eraikuntza ahalbidetzen da, erauzteek 25 etxebizitzetan izango dute eragina. Hirigintzarako erabilgarria den lurzoruari dagokionez, 251 etxebizitza egitea proposatzen da. Beraz, etxebizitza eskaintza 510 etxebizitza berrirena izango da, hala ere, kontuan izan behar da unitateetako bi aurrez trinkotutakoenak direla, beraz 510 etxebizitzako kopuru hori murriztu egingo litzatekeela.

**4.4. Ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa**

Ez dago daturik.

## **4.5. Mugikortasuna eta garraioa**

### **4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak**

Udalerrria maila altuagoko lurralde eremuekin lotzen duen errepide sareari dagokionez, Berrizek Interes Lehenetsiko Sareko (Sare Gorriko) errepide bat du, N-634 errepidea eta Oinarrizko Sareko (Sare Laranja) errepide bat du, BI-633 errepidea. Gainera, udalerrria A-8 autobideak zeharkatzen du, baina ez du sarrera-irteerarik bertan.

Hauetako dira udalerriko tokiko errepide sarean osatzen duten errepideak (Sare horia):

- BI-3340: Berriz eta Ermua arteko errepidea.
- BI-3321: Berriz eta Elorrio arteko errepidea.
- BI-3342: Areitio gaina eta Berriz arteko errepidea.
- BI-3341: Berriz eta Garai arteko errepidea.

### **Udalerrria zeharkatzen duten azpiegiturak**

Berriz zeharkatzen duten errepide nagusien trafiko intentsitatearen datuak Bizkaiko Foru Aldundiko Herri lan eta Garraio sailaren edukiera estazioek eskainitako informaziotik hartu dira.

A-8 autobideko eguneroko batez besteko intentsitatearen garapenak honako egoera erakusten digu:

177. taula. A-8 autobideko Eguneroko Batez besteko intentsitatea. 2004.

Korridorea	Errepide tartea	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko tasa pilatua (1999-2004)
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004		
								EBI	% Pisutsuak	
A-8 Autobidea	E. Basauri – E. El Gallo	5,2	29.505	31.226	33.418	34.508	36.725	33.308	12,2	2,5
	E. El Gallo – E. Erletxe	2,5	25.506	27.077	28.730	29.726	31.615	28.701	11,8	2,4
	E. Erletxe – Amorebieta O.	3,1	28.684	30.540	32.312	33.453	36.192	38.821	11,9	6,2
	Amorebieta O. – Amorebieta E.	3,7	22.893	24.269	25.557	26.412	28.292	30.476	11,9	5,9
	Amorebieta E. – E. Durango	8,2	23.815	25.291	26.653	27.545	29.597	31.936	11,9	6,0
	E. Durango – E. Ermua	13,4	17.603	18.559	19.385	20.027	20.945	23.124	15,1	5,6
	<b>Guztira</b>	<b>36,1</b>	<b>22.769</b>	<b>24.117</b>	<b>25.447</b>	<b>26.300</b>	<b>27.985</b>	<b>29.080</b>	<b>12,9</b>	<b>5,0</b>

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta herrilan Saila, 2004.

Informazio honetatik abiatuz ondorioztatu dezakegu eguneroko batez besteko intentsitatea %21,70 igo dela 1999-2004 epealdian. Azken urtean Amorebieta E. – E. Durango tartean jasotako trafikoa 31.963 ibilgailukoa izan zen, horietako %11,9a ibilgailu pisutsuak ziren. E. Durango – E. Ermua tarteari dagokionez eguneroko batez besteko intentsitateak 23.124 ibilgailu neurtu zituen eta horietako %15,1a ziren pisutsuak.

Beste edukiera estazioekin alderatuz gero, ikus daiteke Berrizko udalerria zeharkatzen duen tartean trafikoaren bolumena txikiagoa dela.



Interes handieneko errepidea den N-634ko ibilgailu kopuruari dagokionez, azpimarratu behar dugu Berriztik igarotzen diren bi tarteetan, 1999-2004 epealdian trafikoaren bolumena txikiagotu egin dela. Gainera errepidearen gainontzeko tarteekin alderatuz gero trafiko bolumen txikiena duten errepideak direla ikus daiteke. Hala ere, bi tarte hauetatik igarotzen den kamioi kopurua handia da gainontzekoekin alderatuz gero.

188. taula. Eguneroko batez besteko intentsitatea N-634 errepidean. 2004.

Korridorea	Errepide tarteak	Km.	Eguneroko Batez besteko Intentsitatea (EBI)							Urteko pilatutako Tasa (1999-2004)	
			1999 EBI	2000 EBI	2001 EBI	2002 EBI	2003 EBI	2004			
								EBI	% Pisutsuak		
N-634	E. Ibarsusi – Iru Bide	4,0	40.656	43.716	44.129	45.741	46.654	45.072	6,0	2,1	
	Iru Bide – Galdakao	1,9	40.179	42.884	42.839	42.680	41.150	40.708	8,3	0,3	
	Galdakao – El Gallo	2,8	39.010	38.805	39.720	40.190	39.019	37.331	8,4	-0,9	
	El Gallo – Erletxe	1,6	26.844	26.897	27.535	27.427	27.373	28.181	12,0	1,0	
	Erletxe – Amorebiet a O.	3,2	21.963	23.404	23.503	23.161	22.105	23.851	14,0	1,7	
	Amorebiet a O. – Amorebiet a E.	3,8	21.111	22.496	22.592	22.263	21.248	22.014	16,0	0,8	
	<b>Amorebiet a E. – lurreta</b>	<b>8,5</b>	<b>23.326</b>	<b>26.354</b>	<b>27.144</b>	<b>27.630</b>	<b>26.415</b>	<b>26.630</b>	<b>15,4</b>	<b>2,7</b>	
	Iurreta – Matiena	2,9	20.292	21.663	21.045	20.546	21.141	20.781	8,5	0,5	
	Matiena – Olakueta (Berriz)	3,7	12.657	12.986	12.768	12.876	12.452	12.039	10,8	-1,0	
	Olakueta (Berriz) – Ermua	8,0	7.516	7.493	7.205	7.368	7.220	6.931	12,5	-1,6	
	Ermua – L.P. Gipuzkoa (Eibar)	1,6	16.593	16.275	15.929	16.312	17.109	15.916	6,5	-0,8	
	<b>Guztira</b>	<b>42,0</b>	<b>22.197</b>	<b>23.554</b>	<b>23.723</b>	<b>23.960</b>	<b>23.485</b>	<b>23.317</b>	<b>11,1</b>	<b>1,0</b>	

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Saila, 2004.

#### 4.5.2. Hiribarneko eta hiri arteko mugikortasuna

Ez dago hiribarneko mugikortasunaren inguruko daturik duen azterketarik.

##### Garraio publikoa

Berrizko garraio publikoaren eskaintza nagusia Bizkaibuseko lineak dira:

- Eibar-Ermua- Durango-Lemoa- Galdakao Ospitalea-Bilbo.
- Ondarroa-Durango-Bilbo.
- Ermua-Durango-Bilbo.

Eusko-trenek geltokiak ditu Zaldibarren, Berrizen, Abadiñon eta Durangon. Bilbo eta Donostia artea betetzen ditu. Maiztasuna Durangaldeatik, gutxi gora behera, orduko bi zerbitzu Bilbo eta Ermuraino eta bakarra Donostiara.

##### Parke mugikorra

Eustaten 2004ko datuen arabera, Berrizen dagoen ibilgailu kopurua 2.660koa da; ibilgailu kopuru honek 4.479 biztanleko herriarentzat, 593 ibilgailu/1.000 biztanleko motorizazio indizea eragiten du, balio altua esan nahi du. Ibilgailu motaren arabera sailkapenaren baitan, kamioi kopuru handia azpimarragarria da, Berrizko parke mugikor guztiaren %17,85a hartzen dute.

19. taula. Berrizko parke mugikorra. 2004.

	<b>Autoak</b>	<b>Motorrak</b>	<b>Kamioiak</b>	<b>Autobusak</b>	<b>Traktore industrialak</b>	<b>Besteak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Berriz</b>	2.000	117	475	1	8	59	2.660

Iturria: Eustaten datuetan oinarritua

### 4.5.3. Irisgarritasuna

Berrizko udalerrriak 2004tik Irisgarritasun Plana du. Irisgarritasun Plana udalerrri mailako tresna bat da eta irisgarritasunari eragiten dioten honako ezaugarriak hartzen dira kontuan: hirigintza, eraikuntza, garraioa eta komunikazioa.

Helburua modu jarraituan udalerrian aplikatzea da baliabideak ahalik eta pertsona gehien onuradun egiteko moduan erabiltzeko helburuarekin. Ezin dira modu puntual eta zentralizatuan zonalde baten aplikatu, beste baten egokitzapena kaltetuz. Udalerrriaren moldatzea ez da jasagarria ekonomikoki fase bakarrean. Horregatik, ezinbestekoa da kostua etapa ezberdinetan banatzea.

Udalerrriaren ezagutza ezinbestekoa da Irisgarritasun Plana garatzen den eremu guztietan. Bidearen, udal eraikinen eta garraioaren mantenu egoeraren baitan kokatzen da Irisgarritasun Plana.

Beraz etapakako Plana osatzen da, hirigunearen eta eraikinen azterketa ezberdinetan egin beharreko esku hartzerako proposamenak lau-urteka egituratzen dira bertan. Faseen ordena udalerrriaren beharrak eta lehenespen irizpideak elkarrekin baloratu eta teknikariek eta ordezkari politikoekin jarduera proposamenak aztertu ostean hartzen da. Garrantzitsua fase ezberdinetako aurrekontuak orekatzen saiatzea ere. Etapakako Planaren egituratzean, hirigunean, oso garrantzitsua da ezarritako ordena jarraitzea, proposatutako ibilbideei koherentzia eta jarraikortasuna eman ahal izateko.

Hala ere, aurreikuspen hauek ez dira Eraikinen Ekintza Planekin lotzen (aurrekontu orokorretan sortuko liratekeen moldaketa txikien kasuan izan ezik). Beraz, ordena udal irizpideen arabera moldatu daiteke, eta Irisgarritasun Plana ez da oztopoa horretarako. Udal beharren moldaketa izaten bada edo udal aurrekontuen portzentaje oso altua diren eta horiek gabe ekintza handiak egitea ezinezkoa den diru-laguntzak lortzeko aukerak mugatzen badira, ez dago inolako arazorik plana moldatzeko.

Hauk dira faseen ordena eta hauetako bakoitzean egin beharrekoen zerrenda eta aurrekontuak:

**20. taula. Udal Irisgarritasun Planaren baitan aurreikusitako jarduerak.**

<b>FASEA/URTEA JARDUERA</b>	<b>JARDUERAK ERAIKINETAN</b>	<b>HIRIGUNEAN</b>	<b>P.E.M.</b>	<b>KOSTUA OROTARA (P.E.M. + B.I.+ G.G. +BEZ+ HON + Coef)</b>
<b>I FASEA (2.005 urtea)</b>				
	Posta lokala		11.022,50	16.737,01
	Dantza lokala		10.900,00	16.551,00
	Gaztetxea		37.465,50	56.889,12
		Geltoki kalea (Geltoki plaza 6)	15.066,00	22.564,86
		Geltoki kalea (Kultur etxea)	48.186,80	72.171,01
		Matzagabarrena auzoa	41.548,25	62.228,23
		Murgoitio-Urzabal-Gernika enparantza	29.590,16	44.318,19
		Camino a zona deportiva	93.266,25	139.688,03
		Abeletxe auzoa	34.752,00	52.049,25
	GUZTIRA 2.005 URTEAN		321797,46	483.196,70
<b>II FASEA (2.006 urtea)</b>				
	Learreta Markina ikastetxea (1go fasea)		258.624,75	408.414,42
		Iturritza 13-19	69.047,55	107.551,46
		Iturritza 20-21	31.219,10	48.628,22
		Zengotitabengoa 1-5	45.462,22	70.813,93
		Zengotitabengoa kalea 6-13	31.403,75	48.915,84
	GUZTIRA 2.006 URTEAN		435.757,37	684.323,87
<b>III FASEA (2.007 urtea)</b>				
	Learreta Markina ikastetxea (2. fase)		258.624,75	424.750,99
		Iturritza kalea 23-29	78.569,30	127.278,27
		Iturritza 30-48 Gabiola kalea	156.301,30	253.200,15
		Learreteta Markina Kalea 1-8	109.913,80	178.054,76
	GUZTIRA 2.007 URTEAN		603.409,15	983.284,17
<b>IV FASEA (2.008 urtea)</b>				
	Polikiroldegia – igerilekuak		90.815,00	155.115,52
	Adinduen etxean		21.239,50	36.277,88
		Lehendakari Agirre pasealekua (1 zatia)	167.442,50	282.098,26
		Lehendakari Agirre pasealekua (2 zatia)	303.485,50	511.296,30
	GUZTIRA 2.008 URTEA		582.982,50	984.787,96
<b>GUZTIRA EKINTZA PLANAREN EXKUZIORAKO AURREKONTUA. . . . 3.135.592,70 €</b>				

Iturria: Udal Irisgarritasunerako Plana. 2004.

## **5. INGURUGIRO SEKTOREAK**

### **5.1. Uraren ziklo osoa**

#### **5.1.1. Uraren hornikuntza, kalitatea eta kontsumoa**

Gaur egun, Berrizko udalerrria bera da goiko eta beheko sareetan ur hornikuntza kudeatzen duena.

Berrizek udalerrriaren iparraldeko mendietan dauden amaigabeko iturburu kopurua du. Banaketa sare konplexu baten bitartez hirigunea eta auzo denak eta baserriak hornitzen ditu. Elkarrekin lotutako bilketa eta erregulazio ur-biltegiak dauden udalerrian banatuta.

Hiru zonalde daude iturburu gehienak kokatzen direna. Aritxian Urdelako iturburuak daude. Altuenak eta zaharrenak dira. Karga hausteko kutxatilen bidez eta elkartze kaseten bidez ura Andikoako ur biltegiara eramaten da, honek udalerrriaren mendebaldera dauden baserriak eta auzoak hornitzen ditu urez bilketa depositoen bitartez. Andikoako ur-biltegitik soberan dena San Lorentzoko ur-biltegiara eramaten da.

Olea eta Arribarriako iturburuak Betzuen baserriaren gainaldean daude. Antzinako zentral hidroelektriko baten hodietatik eramaten da ura. Hodi horri gehitzen zaizkio Okako iturriak eta baita "La Marquesa" izena daramana ere, hauek dira San Lorentzoko ur-biltegiaren ur ekarpen handiena egiten dutenak.

Udalerrriaren iparraldera San Trokas eta Lasuen deritzoten kaptazioak daude. San Trokasekoak Lupita eta Armozako ur-biltegiak hornitzen ditu. Hauek udalerrriaren ekialdeko auzoak eta baserriak hornitzen dituzte. Lasuengo kaptazioek ere San Lorentzoko ur-biltegia hornitzen dute eta bertatik hirigunera banatzen hasten da eta Batarrita eta Matzako akumulazio biltegiatara. Hiriguneko hornikuntza eraztunen bidez egiten da, elkarren artean lotutako auzoen bidez eta biltegi ezberdinetara lotuta, matxuraren bat izan ezker, euren artean loturik daudenez edozein biltegitatik egin ahalko litzateke hornikuntza.

Udalerrriaren hegoaldera, San Juan auzoan Murgoitio izena daraman biltegia dago. Biltegi honek, presioa neurtzeaz gain, Berrizko hegoaldeko baserriak eta auzoak hornitzeko balio du. Instalakuntza hau Partzuergoaren sare orokorretik hornitu daiteke, beharra edo lehortea dagoenean. Lehorte edo behar egoeretarako Oiz-Etxebarrietako zundaketa bat egin da. Zundaketatik ekarritako ura edozein biltegi edo zonaldek erabili dezake.



## Ur kontsumoa

Berrizko Udalak emandako datuen arabera, 2005ean udalerrian kontsumitutako ur kopurua 294.748 m<sup>3</sup> izan zen.

21. taula. Berrizen kontsumitutako uraren urteko bolumenaren garapena (m<sup>3</sup>)

	2001	2002	2003	2004	2005
<b>Berriz</b>	311.363	328.731	330.209	317.128	294.748

Iturria: Berrizko Udalak eskainitako datuetan oinarritua.

Datu horietatik ondorioztatu dezakegu ur kontsumoa txikiagotu egin dela azken bi urteetan.

### 5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa

#### Etxeko hondakin-urak

Berrizko uren arazketa sistema Oka ibaiaren ertzean dagoen kolektore batek osatzen du, bertan hiriguneko urak jasotzen dira eta hortik Arriandiko Arazketa Estaziora eramaten dira.

22. taula. Etxeko emarien banaketa.2004.

<b>Udalerriak</b>	<b>Etxeko emariak (m<sup>3</sup>/ urteko)</b>
<b>Abadiño</b>	989.013
<b>Atxondo</b>	151.980
<b>Berriz</b>	642.911
<b>Durango</b>	<b>3.432.413</b>
<b>Iurreta</b>	390.068
<b>Izurtza</b>	35.295
<b>Mañaria</b>	67.395
<b>Zaldibar</b>	367.248
<b>Guztira</b>	<b>6.076.324</b>

Iturria: Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoa.

Arriandiko Arazketa Estazioak tratatutako ura 2004ean 6.076.324 m<sup>3</sup> izan zen eta horietako 642.911 m<sup>3</sup> (10,58%) Berrizkoa zen.

Landa lurlean diren etxebizitzek saneamendurako sistema propioa dute, ur hondakinen putzuekin, izan ere, ez dute saneamendu sarerako loturarik.

### **Industriako hondakin-urak**

Ez dago gaiari dagokion daturik.



## 5.2. Atmosferaren eta akustikaren kalitatea

### 5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea

Ez dago Berrizen EAeko Airearen Kalitatearen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak kudeatzen duen Sare horrek ezarritako zonifikatzearen baitan Durangoko estazioa dago.


#### Udalerriaren atmosferaren kalitatea

Aurrez esan den moduan, ez dago Berrizen EAeko Airearen Kalitatearen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik, baina bai Durangon. Estazio horrek 15 parametro ezberdin neurtzen ditu. Berriztik dagoen distantziak eta kutsatzaile bakoitzaren ezaugarrien arabera, denek ez dute esanahi bera, dagokien neurrian hartu behar dira kontuan.

Airearen kalitate indizea ona, onargarria, txarra eta oso txarra bezala kalifikatzen da. Esan behar da, 2004an bi egunetan airearen kalitatea oso txarra izan zela, 2003an 4 izan ziren mota horretako egunak eta 2001ean bakarra.

Hurrengo taulan Durangaldeako Airearen Kalitatearen Indizea ikus daiteke.

#### 2. grafikoa. Durangaldeako airearen kalitatearen indizea.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eskainitako datuetan oinarritua.

Aztertutako datuen arabera, esan daiteke airearen kalitatea ez dela txarra, baina hobetu daitekeela.

Modu orokorrean, Euskal Herriko zonalde industrialetan komunak diren joera edo fenomeno batzuk azpimarratu daitezke:

- Jatorri industrialeko kutsaduraren gutxitze jarraitua, bereziki balio onargarrietan diren eta legezko mugatik oso behera dauden SO<sub>2</sub> eta NO<sub>x</sub>-en kasuan, kasu zehatzetan izan ezik. Gutxitze honen arrazoi nagusiak teknologia oso zaharra zuten enpresen itxiera, sufre gutxi duten erregaien erabilera, erregai alternatibo gisa gas naturala ezartzeko politikaren sorrera eta minimizazio politikak dira.
- PST-ek eta nitrogeno oxidoek (NO<sub>x</sub>) garapen txikiagoa dute, txikitze bat dagoen arren denboran gutxiago nabari dena. Euren balio handienak trafiko intentsitate handia edo merkantzia trafiko intentsitate handia duten hirigune zonaldeetan jasotzen dira.
- Gurpildun trafikoak eragindako atmosferaren kutsaduraren hazkuntza jarraitua, bereziki tamaina handiko hiriguneetan, eta CO eta O<sub>3</sub> mailetan arazoak sortzen dituen dentsitatea.

### Atmosferaren kutsadura eragiten duten iturriak

#### *Ibilgailuen trafikoa*

Berrizko ibilgailu parkeak 2004an 2.660 ibilgailu zituen. Honek honako indizea ematen digu: 594,8 ibilgailu/1.000 biztanleko.

**23. taula. Ibilgailu Parkea. 2004.**

<b>Autoak</b>	<b>Motorrak</b>	<b>Kamioiak</b>	<b>Autobusak</b>	<b>Traktore industrialak</b>	<b>Besteak</b>	<b>Guztira</b>
2.000	117	475	1	8	59	2.660

*Iturria: Eustaten datuetan oinarritua*

Modu orokorrean, Euskal Herriko zonalde industrialetan komunak diren joera edo fenomeno batzuk azpimarratu daitezke:

- Jatorri industrialeko kutsaduraren gutxitze jarraitua, bereziki balio onargarrietan diren eta legezko mugatik oso behera dauden SO<sub>2</sub> eta NO<sub>x</sub>-en kasuan, kasu zehatzetan izan ezik.
- Gurpildun trafikoak eragindako atmosferaren kutsaduraren hazkuntza jarraitua, bereziki tamaina handiko hiriguneetan, eta CO eta O<sub>3</sub> mailetan arazoak sortzen dituen dentsitatea.

*Industria*

Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Antolaketa, Parte Hartze eta Kontrolerako Zuzendaritzako informazioaren arabera Berrizko industria hauek “Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaileak diren Jardueren Katalogoan” daude, otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak ezarria, Atmosferaren Ingurumenerako Babeserako 38/1972 legea garatzen duena.

**24. taula. Atmosferaren kutsatzaileak diren fokuak dituzten industriak eta foku kopurua.**

<b>ENPRESA</b>	<b>FOKO KOPURUA</b>
<b>Industrias Garita, S.L.</b>	3
<b>Pintuberri Industrial, S.L.</b>	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>13</b>

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Antolaketa, Parte Hartze eta Kontrolerako Zuzendaritzako.*

IPPC legean barneratutako jarduerak

Lurraren Antolaketa eta Ingurumen Sailak abian jarri du Euskadi EPER inbentarioa, tresna horren bidez modu normalizatu baten lortu nahi da IPPC gisa ezagutzen den Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrolerako uztailaren 1eko 16/2002 legearen Igo eranskinaren baitan dauden euskal entitateen igorpenen eta horien fokuen ingurumen informazioa.

EPER Euskadiren lana da substantzia kutsatzaileen datuak modu sistematizatuan biltzea jakinaraziak izan behar baitute 2000ko uztailaren 17ko 2000/479/CE Erabakian zehaztutakoaren arabera; IPPC Legearen Igo eranskinarekin lotutako jardueraren baterako instalakuntzak dituzten entitateek osatzen duten Europako Igorpen Kutsatzaileen Inbentarioa osatzeko.

EPER Euskadi 2003ko inbentarioaren (Europako Igorpen Kutsatzaileen Inbentarioa) arabera enpresa bakarra dago EPER Euskadi 2003ren baitan eta Garbiker-Berriz da. Enpresa honi erreferentzia egin nahi izan diogu, baina, enpresa honek uretara isurketak egiten ditu eta ez atmosferara igorpenik.

### *Bizitegien eta Zerbitzuen iturriak*

Etxeke igorpen kutsatzaileen iturri dira, gehien bat, berogailuak eta uraren berotzea. Erabilitako erregaiaren arabera aldatu egiten da igorritako gas mota, zentzu horretan, petroliotik eratorritako likido erregaien ordeztasun gas naturala erabiltzeak txikiagotu egin du kutsatzaile batzuen igorpena, karbono monoxidoa eta sulfuro dioxidoaren kasuan, esate baterako.

### *Besteak*

Badira aldikako izaera duen kutsatzaile biotiko batek eragindako arazo eratorriak ere: polenak eragindakoak. Garai zehatzetan (bereziki, martxoa eta ekaina artean) atmosferan euren ugalketa funtzioa betetzeko aurkitzen diren landare organo biziak dira, eta arnasketa arazoak eta prozesu alergiko eta asmatikoen bizitzea eragin dezakete. Gaur egun, ez dago inolako laginketarik atmosferan duen presentziaren eta giza osasunean duen efektuaren inguruan.

Beste ezaugarri garrantzitsua “energiaren formek” eragiten duten airearen kutsadura da, zarataz eta bibrazioez gain (beste atal baten lantzen dira) irradiazio ionizanteak eta uhin elektromagnetikoak ere bere baitan hartzen ditu.

Irradiazio ionizagarrien kasuan udalerraren eskumenetik at dagoen arazoa da; nahiz eta posible den osasun, zientzia eta industria erabilpenerako instalakuntzekiko kontrola egitea Udalak eskumena duten herri erakundeekin elkarlanean.

Uhin elektromagnetikoen arazoa konplexuagoa da osasunarekiko eta ingurumenarekiko duen eraginaren inguruan dagoen eztabaida zientifikoarengatik eta ez dagoelako behar bezalako lege arautzailerik. Tentsio altuko sare elektrikoak eta antenen izateari lotuta dago (hazten ari den arazoa, telefonia mugikorraren hazkundearen ondorioz).

Azkenik, argiaren kutsadura dago, argiak zeruan egiten duen distira, argi artifizialak atmosferako gasetan eta partikularretan eragiten duena. Distira honek, kanpo argiztapeneko instalakuntzetako argiak sortzen duena, zeruaren berezko distira handiagotzen du. Ez dago Berrizko neurketarik, baina eremu batzuetan gehiegizko kutsadura nabari da.

## 5.2.2. Zarata eta akustikaren kalitatea

Zarata gizakiaren osasunerako kaltegarria den zarata da (gorreria, zefalea, iritabilitatea, loaren galaraztea... sortu ditzake) eta akustikaren kutsadura eragiten du.

Biztanleria batek pairatzen duen hots maila zarata sortzen duten agente ezberdinen konbinaziotik ondorioztatzen da. Zarataren sortzaile ohikoenak honakoak dira: industriak, herri lanak, merkataritza establezimenduak eta ibilgailuen joan etorria, azken hau da denbora eta espazio intzidentzia orokortuena duena. Esan daiteke mugikortasunaren eta zarataren arteko harreman handia dagoela, zarataren azterketa batek mugikortasunarekin lotutako kontuen berri ere ematen du.

Puntu bati eragiten dion soinu maia dBtan (dezibetan) jasotzen da, baina dBA-k ere erabiliko dira, gizakiak entzuten duenarekiko gertuago baitaude. Leq-a (ordu betean izandako soinu maila jarraitua) da erabilitako magnitude akustikoa.

Zarataren intentsitatearen arabeko dezibel terminoekin gidatzeko, hurrengo taulak zarata (dBtan) eta ahozko komunikazioa harremantzen ditu:

25. taula. Entzute atariak.

<b>0-20</b>	<b>Entzumen ataria</b>
<b>20-50</b>	Komunikazio erraza
<b>50-80</b>	Komunikazio balekoa
<b>80-110</b>	Arrisku muga 8 orduko lan egunean
<b>110-140</b>	Komunikazio ia ezinezkoa
<b>&gt;140</b>	Mina

Berrizek ez du udalerriko akustikaren kalitatea ezagutzeko aukera emango lukeen zaraten maparik edo azterketa zehatzik. Hala ere, EAEko hotsen Mapak, Eusko Jaurlaritzako Lurraren Antolaketa eta Ingurumen Sailak egindakoak, udalerrian dauden hots foku nagusiak azaltzen ditu.

- Errepide sarea:

Berrizek udalerriz gaindiko errepide sarea du eta hortik honakoak azpimarratuko ditugu euren soinu mailaren arabera:

- Berriz-Elorrio arteko BI-3351 errepidea, 55-60 dBA arteko soinu mailak hartzen baititu.
- A-8an eta N-634 errepidean jasotzen diren zarata mailak 70 dBA-tik goragoko soinu mailak hartzen dituzte 10 metrora.

- Industria jarduera:

Industria zarata mota oso menpekoa da sortzen duen industriarekiko. Frekuentziarik desatseginena duten zaratak (haizagailuak, sirenak, makina errotatibak, transformatzaile handiak...) dira deserosoenak biztanleriarentzat.

- Trenbidea:

Trenbideak soinu maila altuak sortzen ditu trenbidetik gertu dauden etxebizitzetan. Momentu zehatzetan 90 dB-ko maximak hartzen dira eta gauez ez da maila hori jaisten. Hala ere, 10 metrotik gorako distantzietan zaratak ez du sekula 70 dB-ko maila gainditzen, beraz, oso gertuko etxebizitzetan kasuan izan ezik, trenbidea ez da arazo foku gisa ikusten.

Berrizen kasuan, garraiobide honek duen eragina Eusko Trenek Donostia eta Bilbo artean duen lineara mugatzen da. Trenbide horrek 55 eta 60 dBA arteko mailak sortzen ditu Berriz eta Donostia artean, Durango eta Berriz artean, berriz, 60 eta 65 dBA artekoa da.

### 5.3. Energia

Energia industrializatutako edozein herrialdeko ekonomiaren oinarritzko sektorea da eta garapen ekonomikoaren eremu guztiekin harremanetan dago: etxebizitza, industria eta zerbitzuak, trafikoa eta garraioa... Gainera, eragin zuzena du gizakiaren ekinbidearen ingurumen aspektu guztiekin.

Energiaren kontua udalerriko politikaren mugetatik haratago doan arren, eremu horretatik ere ezarri daitezke energiaren kudeaketa orekatua eta jasangarriagoa eragingo duten politiken garapenean lagunduko dute programak. Bi jardute ardatzetan:

- Zuzena, Udala bera energia kontsumitzaile gisa ikusita, udalaren zerbitzu eta instalakuntzetan energiaren aurrezteak bultzatuz, erregai garbiagoak erabiliz eta iturri berriztagarriengandik datozen energiak erabiliz.
- Zeharkakoa, hiritarren sentsibilizazio eta kontzientziazio lana eginez eta kontsumo energetikoaren beharrak kontuan izango dituen hirigintza garapenerako neurriak hartuz (etxebizitzaren garapenean eta garapen ekonomikoan, hiriko mugikortasunean...)

Udalerrri baten kontsumo energetikoa ikuspegi ezberdinetatik aztertu daiteke:

- Kontsumitzen den energia mota, bere jatorriaren edo kontsumo moduaren arabera.
- Udalerrian gauzatzen diren eta energia kontsumitzaileak diren aktibitate sozial eta ekonomikoak.

Lehenengoaren zentzuan, kontsumo energetiko nagusiak lehengaien konbustio zuzenaren bidez (petrolioak edo bere eratorriak, gas naturala eta erregai solidoak) edo lehengai horiek berak edo beste prozesu batzuk (nuklearra, ura, haizea, eguzkitikoa...) erabiltzen dituzten ekoizpen zentralerako elektrizitate kontsumoaren bitartez egiten dira. Energiaren sorrerako prozesu hauetako edozeinek ingurumen inpaktu handia du, inpaktu hori ekoizpen edo kontsumo eremuan sor daiteke.

Udalerriko energia kontsumitzaile diren jarduerak, modu honetan banatu daitezke:

- Etxebizitzakoak
- Industrialak
- Zerbitzuak
- Besteak

### Energia kontsumoak

IBERDROLAK eskaintako datuen arabera, Berrizko kontsumo elektrikoak, sektore ezberdinen arabera eta 2000-2004 epealdian honakoak dira:

46. taula. Energia kontsumoaren garapena.

<b>ENERGIA FAKTURATUA (kWh)</b>										
<b>Sektore</b>	<b>2000</b>		<b>2001</b>		<b>2002</b>		<b>2003</b>		<b>2004</b>	
<b>Ekonomikoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
<b>Etxebizitza</b>	4.554.861	15,3	4.776.952	15,9	5.073.864	16,5	5.255.862	16,5	6.458.656	30,6
<b>Industria</b>	20.040.677	67,3	19.984.615	66,5	19.581.638	63,9	20.277.485	64,6	21.155.088	42,8
<b>Zerbitzuak</b>	4.486.314	15,0	4.770.037	15,8	5.477.841	17,8	5.633.821	17,7	5.898.797	25,0
<b>Ez sailkatua</b>	682.939	2,29	496.366	1,65	504.402	1,64	526.306	1,66	564.540	1,44
<b>GUZTIRA</b>	<b>29.764.791</b>	<b>100</b>	<b>30.027.970</b>	<b>100</b>	<b>30.637.745</b>	<b>100</b>	<b>31.693.474</b>	<b>100</b>	<b>34.077.082</b>	<b>100</b>

Iturria: IBERDROLAren datuetan oinarritua.

2000-2004 epealdian kontsumoaren %12,64ko igoera ikus daiteke orotara, 2000. urtean 29.764.791 kWh-eko kontsumo orokorretik 2004ko 34.077.083 kWh-tara igaroz.

Industriaren sektorea Berrizko energia elektrikoaren kontsumitzaile nagusia da. 2004an kontsumo guztiaren %62a zen, etxebizitzetako kontsumoa du atzetik (%18,96a) eta zerbitzuetakoa (%17,31).

Etxeko kontsumoari dagokionez, esan dugun moduan 2004an udalerraren %18,96a zen, azken urteetan goranzko garapen hau erakutsiz:

- 2000: 1.096 kWh urteko biztanleko.
- 2001: 1.131 kWh urteko biztanleko.
- 2002: 1.173 kWh urteko biztanleko.
- 2003: 1.182 kWh urteko biztanleko.
- 2004: 1.441 kWh urteko biztanleko.



### **Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa**

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE-EVE) emandako datuen arabera, udalerrian gaur egun dauden energia berriztagarrien instalakuntzak honakoak dira:

- Energia Minihidraulikoa:
  - Instalakuntza kopurua: 1.
  - Potentzia (kW):528
  - Ekoizpena (kWh/urteko): 1.531.200
- Biomasa:
  - Enpresa kopurua: 10.

Gainera, Oizko Parke Eolikoak udalerriko zati bat hartzen du.

## 5.4. Lurzorua

### 5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa

Batzuetan, gizakiaren jarduerak lurzuaren konposaketa eraldatzen du, kutsatzaileak txertatuz eta denbora askoan eusten dutenak direlako edo kontzentrazio altua ematen delako deskonposatzen ez direnak. Kutsatzaile hauen pilaketak, izaera kimikodunak normalean, lurzuaren funtzioan eragin dezake, lurzoru kutsatua deitzen dena sorraraziz.

Lurrari eragiten dioten kutsatzaile nagusienak metal pisutsuak, atmosferak baztertutako elementu azidoak, fitosanitarioak eta ongarriak. Industrietatik, nekazaritazatik eta trafikotik iritsi ohi dira lurrera.

Azken urteetan EAEko Udalek daramaten hirigintza berrikuntzaren prozesuak agerian utzi du lur kutsatu asko dagoela. Horregatik, eta ondo landu ostean, Euskadiko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorrak 1998an lehen aldiz lurra airearen eta uraren pare jarri zuen babesari dagokionez.

Arazoak identifikatzea ezinbestekoa da inolako hirigintza garapen eman aurretik, ez soilik giza osasuna eta ingurumena babesteko, baita eskura dauden baliabide ekonomikoak optimizatzeko ere.

Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen sailarentzat IHOBek egindako "EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioan" erakusten da informazio historikoaren pilaketa egin ostean posible dela denbora luzez lurzoru zehatz batek izan duen jarduerak baldintzatzea potentzialki lur horri zegokion jardueraren jarraipena.

Definizio hori abiapuntu harturik, potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak (industrialak edo isurketak) jaso dituzten lurak biltzen dira. Darabiltzaten material eta substantzien eraginez giza osasunarentzat, ingurumenarentzat, azpiegiturentzat edo lurzuaren produktibitatearentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituztenak.

Laginak hartzeak eta aztertzeak, soilik, berretsi dezake kutsadura dagoen ala ez.

Inbentarioaren helburua izango da kutsatuta egoteko probabilitate handiena duten kokapenei kasu egitea.

Potentzialki kutsagarriak diren jarduerak orokorrean lau kokapen motatan banatzen dira, guztiak inbentarioan jasotzen dira, eta jarraian aipatzen dira epe motzean landu beharreko garrantziaren arabera, handitik txikira:

**Kokapen ez aktiboak:** aurrez potentzialki kutsagarria izan zitekeen jardueraren bat jaso ostean orain erabiltzen ari ez diren eremuak dira. Posible da hiru azpi-talde definitzea: orubeak, eraikuntza zantzurik ez dutenak; aurriak, egoera kaskarrean dauden eraikinak dituztenak; eta azkenik, industria ez aktiboak, jarduera amaitu arren, euren eraikuntzak berriz erabiltzeko moduan mantentzen dituztenak.

**Hondakindegia:** aktiboak eta ez aktiboak barnebiltzen dira, baimenduak edo ez, hemen biltzen dira hondakindegia kategoria izan ez arren, hondakinak isurtzen diren eremuak. Kokapen ez aktiboekin batera, kutsatutako lurrikiko politikaren lehentasunezko helburua dira; izan ere, askotan arriskutsuak izateaz gain, berriz erabiliak izan daitezke erabilpen berrien segurtasuna bermatu gabe. Talde honetan daude hondakindegia berreskuratuak ere, askotan kokapenean hondakinak mantentzen baitira, kutsadura fokua garrantzitsua izanik.

**Kokapen aktiboak:** Gaur egun potentzialki lurraren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten eremuak. Hasteko, inbentariatuak egon behar dute, beharrezkoak diren prebentzio neurriak hartu behar direla ez ahazteko, eta gainera, jardueraren amaieran lurraren kalitatearen azterketa eskatu behar da, eta beharrezkoa balitz baita berreskurapena ere. Talde honen barruko kasu bereziak dira etxabeetan egindakoak. Hauek, orokorrean, ondo babestutako lurren gainean garatutako tamaina txikiko jarduerak dira.

**Kokapen eraldatuak:** Bere garaian potentzialki kutsagarriak ziren jarduerak jaso ostean eraldatu eta gaur egun kutsatzaileak ez diren jarduerak dituzten lurzoruak. Ez dira jasotzen inguruko jarduerak eraginda kutsatu diren zoruak. Beraz, sailkapen honetatik kanpo daude kutsadura zehatza jaso ez dutenak (atmosfera baztertutako hondakinak, plagen aurkako trataera intentsiboak jasan dituztenak eta abar).

IHOBEk eskainitako “EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioko” datuen arabera udalerrian potentzialki kutsagarriak diren kokapenak 13 dira eta 6,14 hektarea hartzen dituzte.

#### 5.4.2. Jardute aukerak

IHOBEk osatutako “EAEko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Jarduerak dituzten Eremuen Inbentarioko” abiapuntu gisa du inbentarioan bildutako kokapen asko ez direla, azkenean, kutsatuta izango, beraz, helburua da lurzoruaren kudeaketa eraginkorra izatea eta

ingurumenarekin errespetuan aritzea. Inbentario honek oinarritzko informazio eta tresna gisa balio behar du Udaleko teknikarientzat hirigintza planteamendua eta hiriaren kudeaketa egiteko eta horien baitan lurzorua kalitatearen faktorea kontuan hartzeko.

Inbentarioan kapitulu berezi bat dago Udaleko teknikariari ekinbide bakoitzean lurzorua kalitatearen faktorea barnebiltzeko irizpideak jasotzen dituena.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Batzordeak 2004ko martxoan Lurzorua Kutsaduraren Prebentzio eta Zuzenketarako Lege proiektua onartu zuen, geroago eztabaidatu eta onartzeko.

Lege horren helburua da EAEko lurzorua babeserako politika oinarritzen den hiru helburuak betetzea:

- Lurzoruko alterazio berriak aurreikustea
- Kasurik larrienei konponbidea ematea
- Epe ertain eta luzean gaur egun urgentziazkoa ez den lur kutsatuen berreskurapena planifikatzea.

Azkenik, aipatu behar da Berrizen diren hondakin inkontrolatu berreskuratuak 5 direla.

## 5.5. Hondakinen kudeaketa

Edozein izaki bizidunen ekimenak hondakinak sortzen ditu eta modu naturalean degradatzen dira eta materiaren ziklo berri batera gehitzen dira. Azken mendeetan gizakiaren ekimenak bi berrikuntza eragin ditu: aurrez ezagutu ez den mailatan ezarri du hondakin sorrera, eta bestalde, deskonposaketa zaileko hondakinak sortzen ditu, toxikoak ez direnean.

Jaiotza tasaren txikitzea eta bizitza esperantzaren handitzea, emakumea lan merkatura batzea, kostan eta hirietan ematen den biztanleriaren pilatzea, lan ordutegiaren murriztapena, biztanleriaren hezkuntza eta kultura mailaren areagotzea... familiaren kontsumo egitura aldarazi duten faktoreak dira, eta ondorioz, hiriko hondakinen sorreran aldaketak eragin dituzte.

Datu azpimarragarri gisa esango dugu 2004ean Bizkaiko biztanle bakoitzak batez beste 1,09 Kg. Hondakin sortu zuela eguneko.

### 5.5.1. Hiriko hondakinak

Konpaktatutako kamioi bidez jasotako zaborra Durangon Garbiker SA-k kudeatzen duen plantara eramaten dira, bertan konpaktazio handiagoa egiten da zabortegi kontrolatu batera eramateko. Garbiker SA enpresak kudeatzen du azken hau ere.

### Etxeko hondakinen sorrera (EH)

Berrizko biztanle bakoitzak eguneko 2005ean 0,94 Kg. sortu zituen. Hurrengo taulan ikus daiteke 2001-2005 urtealdiko garapena. Bertan azpimarragarria da epealdi horretan txikiagotu egin dela etxeko hondakinen sorrera.

26. taula. Etxeko hondakinen sorrera 2001-2005.

	2001	2002	2003	2004	2005
<b>Kg.</b>	1.613.940	1.592.710	1.520.480	1.458.860	1.566.460
<b>Kg/bzt/eguneko</b>	1,04	1,0	0,93	0,89	0,94
<b>Kg/bzt/urteko</b>	382,3	368,5	341,98	325,7	344,5

*Iturria: Udalak emandako datuetan oinarritua.*

## Sailkatutako bilketak

### Beiraren sailkatutako bilketa

Beira jasotzen da ondoren ECOVIDRIO enpresak birziklatu ahal izateko.

Berrizen eduki ontzietan jasotako beira kilogramo kopurua hazi egin da modu jarraituan 2001-2004 epean. 2004ean jasotako kopurua etxeko hondakinen %6,75a da.

#### 27. taula. Beiraren sailkatutako bilketa.

Urtea	KG.	% Berreskuratua
2001	86.568	4,4
2002	97.620	5,09
2003	119.557	6,32
2004	125.558	6,75

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

### Paperaren/kartoiaren sailkatutako bilketa

Eduki ontzietan 2001-2004 epean jasotako paper eta kartoi kilogramo kopurua hazi egin da. 2004ean etxean sortutako hondakinen %11,5a izan zen mota honetakoak.

#### 28. taula. Paperaren / kartoiaren sailkatutako bilketa.

Urtea	Kg.	% Berreskuratua
2001	174.876	9,06
2002	176.730	9,21
2003	188.515	9,97
2004	214.060	11,5

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

### Ontzi arinen sailkatutako bilketa

Bilketa Garbikerrek egiten du eta Amorebietako BZB Bizkaiko Zabor Birziklategia SL enpresaren iglu hori baten ezartzen du bildutakoak. Bertan sailkatu egiten dira eta birziklapen industriak eskatzen dituen gutxiengoaren arabera prestatzen dira.

Europako artezarauaren ondorioz azkenekoz barneratu den bilketa izan da ontzi arinena, ondoren, berreskurapen helburu garrantzitsuetara behartzen duen ontzien legeak behartu du bilketa.

Oraindik baxuak dira ontzien berreskurapen indizeak, segur aski orain gutxi ezarri delako sistema. Hala ere, bilketa gora egiten ari da urtez urte. 2004ean etxean sortutako hondakinen %3,23a izan ziren mota honetakoak.

**29. taula. Ontzi arinen sailkatutako bilketa.**

Urtea	Kg.	% Berreskuratua
2001	55.457	2,87
2002	49.846	2,60
2003	61.700	3,26
2004	60.139	3,23

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

*Erabilitako landare-olioaren sailkatutako bilketa*

Erabilitako landare-olioaren bilketa Rafrinor enpresak gauzatzen du. Kontuan hartzekoa da 2002a ezker abian den zerbitzua dela. Hurrengo datuek erakusten digute etxeko hondakin honen bilketaren garapena:

**30. taula. Erabilitako landare-olioaren sailkatutako bilketa.**

Urtea	Litroak
2002	902
2003	606
2004	700
2005	755

Iturria: Udalaren datuetan oinarritua.

**Udalerrian dagoen eduki ontzi kopurua**

Hurrengo taulan jasotzen da udalerrian dagoen edukiontzi kopurua, gainera, zehazten da zein den edukiontzi bakoitzeko biztanle kopuruaren ratioa. Berrizko udalerriak Hiriguneko Hondakinen Plan Nazionalak ezarritako helburuekiko duen ratioa, 2006rako edukiontzi bat 500 biztanleko ratioa proposatzen duena, betetzen du, pilen bilketarako edukiontzien kopuruan izan ezik.

**31. taula. Berrizen instalatutako edukiontzi kopurua. 2.005.**

UDALERRIA	Bilketa masiboa		Papera eta kartoia		Beira	
	Unitateak	Bizt/edukiontz.	Unitateak	Bizt/edukiontz.	Unitateak	Bizt/edukiontz.
Berriz	148	31	19	239	18	252
<b>Ontziak</b>			<b>Pilak</b>			
<b>Unitateak</b>		<b>Biz./edukiontz.</b>	<b>Unitateak</b>		<b>Biz./edukiontz.</b>	
20		227	6		757	

Iturria: Garbiker-Bizkaiko Foru Aldundia.

## Hondakinen Biltoki Alternatiboak, Garbiguneak

Garbikerrek kudeatzen ditu Garbiguneak.

Berriz Durangoko Garbigunearen eremuan dago. 2001eko abuztuaren 20ean inauguratu zen Garbigune hau eta Durango-Elorrio errepidean dago, Sabecoren parean. Durangaldeko beste bederatzi udalerritako hondakinak jasotzen ditu, zerbitzua 53.808 biztanleri eskainiz. 2.200 m<sup>2</sup>-ko azalera du. 2004an jasotako kopurua 1.428.473 Kg izan zen, eta ez daude udalerrien arabera bereizita, beraz, ezin da jakin Berriztik iritsitako hondakin kopurua. Durangoko Garbigunean sailkatutako bilketak gai hauekin egiten dira: bizigabeak, metalikoak, zura, papera eta kartoia, plastikoak, beira, pilak, akumuladoreak, etxetresna elektrikoak, fluoreszenteak eta abar.

### 5.5.2. Hondakin industrialak eta arriskutsuak

Ingurumen Sailburuordetzako Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuak eskaintako datuen arabera hondakin arriskutsuak sortzen dituzten enpresak honakoak dira: Aurkena, S.C.L.; Melchor Gabilondo, S.A.; Egaña, S.A. y Mafisa-Manufacturas Phillips Screw, S.A.

Hurrengo taulan ikus dezakegu 1998-2003 urtealdian sortutako hondakin arriskutsuen neurria.

#### 53. taula. Berrizko hondakin arriskutsuen sorreraren garapena.

1998	1999	2000	2001	2002	2003
383.514	444.490	457.624,9	378.295,3	406.188,4	374.700

Iturria: Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurjaritza.

2003an Berrizen sortu ziren hondakin arriskutsuak 383.514 Kg izan ziren, neurri handiko emaitza da eta erakusten du industria sektore zehatz batzuk daudela udalerrian (mekanika, auto-mozioa, siderurgia) eta hondakin asko sortzen dutela.




## 5.6. Jardueren ingurumen eragina eta arriskua

### 5.6.1. Jarduera ekonomikoaren ingurumen eragina

Berrizko jarduera ekonomikoaren inguruko datuak Eustaten bidez lortu dira. 2004. urteari dagozkionak erakusten dira jarraian:

#### 13. grafikoa. Udalerriko establezimendu kopurua jarduera adarraren arabera. 2004.



Iturria: Eustaten datuetan oinarritua.

Diagnostiko honen beste kapitulu batzuetan aztertzen da industriak ingurumen naturalaren elementu ezberdinetan duen eragin nagusia: atmosferan, zaratak, ur arroetan, lurzoruan... laburbilduz, azpimarratu ditzakegun inpaktu nagusiak honakoak dira:

- Airea eta zarata. Dokumentu honen beste atal batean azaltzen da dagoen akustikaren eta atmosferaren kutsadura. EAEn orokorrean, esan behar da industriak utzi diola, jada, atmosferaren kutsadurarako faktore nagusia izateari. Airearen kontrol eta jarraipen etengabea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak egiten du.
- Ura. Ibaien egoerarekiko utzikieriazko historia tradizionalaren ordezturaren babes eta kontserbazio kultura ari da nagusitzen. Hala ere, saneamendu planak atzeratuta dabilta eta erabilpen industrialerako uraren hornikuntzaren kontrola eskasa da, horrek arazoak sortu ditzake etorkizun hurbilean.

### Ingurumen kudeaketarako sistemadun enpresak (ISO 14001, EMAS eta Ekoscan)

Hauek dira ingurumen kudeaketarako sistemak dituzten enpresak:

- ISO 14001: Bi enpresek dute ISO 14001
- EKOSCAN: Codipauto, Forjas Berriz, S.A., Tornillería Amezua, S.A., Felipe Amezua, S.A., Ugarte Lantegiak, S.L., Grip on tools, S.A, Trefilerías Berriz, S. A., Taladrados Especiales, S.L., Manufacturas Phillips Screw, S.A.

### Arrisku natural eta industrialak eta horien kudeaketa

2003ko EPER-Euskadi inbentarioaren arabera, Berrizen enpresa bakarrak burutzen ditu IPPC Legearen barnean dauden jarduerak:

#### 32. taula. Garbiker-Berriz enpresaren isurketak.

Enpresa	Isurketak	Kopurua (Kg/urteko)	Atariko balioa (Kg/urteko)
GARBIKER-BERRIZ	ARTSENIKOA eta bere konposatuak	0,041	5
	KARBONO ORGANIKOA	2588,09	50000
	KLORUROAK	4831,106	2000000
	KOBREA eta bere konposatuak	0,1807	50
	KONPOSATU ORGANOHALOGENATUAK ETA MODU HONETAKOKONPOSATUAK URETAN SORRARAZI DITZAKETEN SUSTANTZIAK	4,19	1000
	KROMOA eta bere konposatuak	0,098	50
	FENOLAK	1,97	20
	FLUORUROAK	49,297	2000
	FÓSFOROA	5,91	5000
	NIKELA eta bere konposatuak	1,643	20
	NITRÓGENOA	898,68	50000
	ZINKA eta bere konposatuak	1,36	100

Iturria: EPER Euskadiko Gidaren datuetan oinarritua.

### Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintzako jardueren eragina

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ingurumenean duten eraginari dagokionez, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Hondakinen trataera eta sorrera, batez ere abeltzaintzatik datozenak. Beste atal batean garatzen da.

Basogintzako jarduerari dagokionez, hauek azpimarratzen ditugu inpaktu nagusi gisa:

- Koniferen birpopulatzeen gehiegikeriak, lurzoruen gaitasun produktiboaren txikitze garrantzitsua eragiten dute.
- Baso hustutzeek larriagotu egiten dute, gainera lurzoru produktiboaren galera eragiten dute, prozesu erosiboak eta isurketen areagotzea.
- Baso ustiapenak, gainera, baso pistak egitea dakar; eta horrek lurzoruaren mugimendu handiak eragiten ditu aldapa handiko lekuetan, paisaia inpaktu handia eragiten dute eta ez dira behar bezalako hustubideak egiten.

#### **5.5.2. Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa**

Udalerriak ez du Larrialdietarako Planik.

## **6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA**

### **6.1. Gizartea eta hiritarren parte-hartzea**

Berrizko Udala Garapen Iraunkorrerako Udal Estrategia izango dena osatzen ari da. Tokiko Agenda 21en garapenean planteatzen den erronka handienetakoa eragile sozialen eta ekonomikoen parte-hartzearekin Ingurumen Ekintza Plan bat osatzea da, modu horretan bermatzen da tokiko komunitateko kideen parte-hartzea.

Udal bakoitzaren ingurumen informazioa, ingurumen hezkuntza jarduerak eta egun martxan dauden ingurumen arloko parte-hartzerako organoak Udalaren ingurumen komunikazio politikari lotzen zatazkie.

Hiritarren parte-hartze honek garrantzia du Agenda 21n prozesu osoan, baita Diagnostikoaren fasean ere, horregatik, Iraunkortasun Foroa deitzea espero da. Bertan, udalerriko eragile eta elkarteek aukera izango dute prozesuan modu aktiboan parte hartzeko eta Berrizko ingurumen egoeraren eta errealitate sozio-ekonomikoaren gainean eztabaidatzeko.

#### **Berrizko parte-hartzearen inguruko hausnarketa**

Parte Hartuz lan taldearen gidaritzapean parte-hartzearen inguruko hausnarketa egin da udalerrian. Ekimen honen helburua parte-hartze politikorako eta demokrazia parte-hartzaileerako eta politika parte-hartzaileen kulturaren sustapenerako azterketa egitea da.

Hau izan da hausnarketa gauzatzeko metodologia: lehenbizi, Berrizko parte-hartze kulturaren diagnostikoa osatzeko, hainbat elkarrizketa egin zitzairen elkarteei eta Udaleko teknikariei; bigarren urratsa hausnarketa honetan parte-hartzeko interesa izan zezaketen pertsona eta elkarteei begirako foro bat deitzea izan zen, bilera horretatik lan talde bat osatu zen; lanari aurre egin asmoz, lan taldeak erabaki zuen honakoak izan behar zirela kontuan: Udala (politikariak eta teknikariak) eta biztanleria (elkarteak eta elkartetan ez dabilzan herritarrak). Azkenik, gidoi baten arabera elkarrizketak egin zitzaizkien Udaleko langileei eta hiritarrei.

Elkarrizketa horiek egiteko honako eskemaren arabera gidatuta jarraitu zen: Berrizen irudia (herria eta jendea), parte hartzea, Berriz eta parte hartzea (esperientzia parte-hartzaileak; Udalarekin harremanetan jartzeko moduak; elkarteekiko ezagutza eta harremana; biztanle-elkarteen harremana politikari eta teknikariekin; independenteak instituzioetatik desagertzeak eta Batasunaren legez kanporatzeak izan duen eragina) eta parte hartzeko zailtasunak eta aukerak (herria eta Udala).

Hausnarketa honetan herri ikuspegia azaltzen da, eta zehazki Berrizen hiritarrek duten parte-hartzea, elkarrekin dutena, Udaleko teknikari eta politikariek dutena.

Hausnarketan jasotzen diren ideia garrantzitsuenetako batzuk hurrengo lerrootan zehazten ditugu:

- Bada uste bat adierazten duena beti pertsona berberak parte hartzen dutela. Ikusten da ez dagoela erreleborik elkarrekin eta joera orokorra norbanakerizkoa dela. Modu berean, elkarrekin artean koordinazioa falta dela ikusten da eta elkarrekin gutxitan lan egiten dutela. Bestalde, puntu baikor gisa, azaltzen da udalerriko jendeak elkar ezagutzen duela harremanerako aukerak erraztuz. Modu berean, elkarrekin motor izaera aitortzen zaie zirkulu itxietan gera ez daitezen.
- Eremu politikoan, azpimarratzen da interes politikoa interes soziala baino handiagoa dela, gainera, aipatzen da ez dutela praktikara eramaten darabilten diskurtso politikoa eta gardentasuna falta dela. Bestalde, azpimarratzen da gehiengo osoaz gobernatzen dela eta arrazoi ezberdinen ondorioz ez dagoela oposiziorik. Gainera, Udalaren eta herritarren arteko distantzia areagotzen ari dela zehazten da. Hala ere, aukera gisa ikusten da parte-hartzeko eremuak irekitzea eta politika parte-hartzaileetan sinestea.
- Udalean lan egiten duten pertsonetako, eragin politikoa garrantzitsua dela ikusten da, gainera, beharrezko ikusten da pertsona hauek udalerriaren gaineko ezagutza zabalagoa izatea. Aipatzen da Batzordeak itxiak direla eta izaera informatzailea dutela. Hala ere, modu baikorren eta aukera gisa ikusten da Udaleko teknikariak pertsona gazteak direla eta udalerriarekiko ezagutza dutela eta harreman ona dagoela biztanleriaren eta Udalean lan egiten dutenen artean. Modu beran, beharrezkoa da Udalaren eremu ezberdinen arteko koordinazioa izatea. Azkenik, aipatzen da informazioarako jarduerak egituratzearen beharra.

## **6.2. Ingurumen informazioa eta sentsibilizazioa**

### **Udalerriko ingurumenaren gaineko informazioa**

2004ean eta 2005ean Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin lotutako ekintzak egin ziren.

Hauek dira Learreta Markina ikastetxean udalaren laguntzarekin 2004-2005 tartean landutako gaiak:

#### *2004an egindako ekintzak:*

- Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan: Eskolarako bidaia seguruak (ikasleriarekin aztertu egunero etxetik ikastetxera bidean egin beharreko bidea eta aztertu zein segurtasun maila duten)
- Loreak aldatzea.

#### *2005ean egindako ekintzak:*

- Aste berdea: Erreka eguna eta ur mozketa.
- Mugikortasun iraunkorraren astea.
- Loreen aldatzea.
- Hiri hondakinak eta hauen birziklapena. Bilketa eta birziklatze sistema ezagutzea.

### **Tokiko Elkarte Sarea**

Berrizen elkarte ugari dago eta jarraian zerrendatzen dira:

- Guraso Elkarteak: Gorostia Guraso Elkarteak eta Berriz Guraso Elkarteak
- Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizate Batzordea, gizarte gaietarako eta osasunerako parte-hartze entitate gisa.
- Kirol Elkarteak: Berrizko Kirol Elkarteak, Berrizko Kadete Elkarteak, Oizpe Pilota Elkarteak, Berriz Bizikleta Elkarteak, Amarauna, Badminton Berrizko Taldea, Avar-Eztanda.
- Kultur elkarteak: Gure Izarrak, Gure Izerdia, Berriz-ere, Berbie, Berrizko-Gaztedi.
- Berrizko Merkatarikari Elkarteak
- Iremine dantza taldea.
- Festa Batzordeak.

Beste elkarte batzuk:

- Gaztetxea.
- Caritas.
- Katekistak.
- Parroki taldeak.

### 6.3. Udal egitura

#### EGITURA POLITIKOA:

##### *Udala:*

- Rosa M<sup>a</sup> Ostogain Echeberria. **Alkatea. EAJ-EA.**
- Jose Javier Azpitarte Ariño. **1go alkate orde. EAJ-EA.**
- M<sup>a</sup> Begoña Navarro Bragado. **2go alkate orde. EAJ-EA.**
- Rolando Isoird Refoyo jn. **Zinegotzia. EAJ-EA.**
- M<sup>a</sup> Purificación Pérez Gallego. **Zinegotzia. EAJ-EA.**
- Adelaida Limia González. **Zinegotzia. EAJ-EA.**
- Cristina Hazas Zabala. **Zinegotzia. EAJ-EA.**
- Alejandro Pérez de San Román Miño. **Zinegotzia. EAJ-EA.**
- Koldo Méndez Gallego. **Zinegotzia. PSOE.**
- Juan Carlos Justo Fernández. **Zinegotzia. PSOE.**
- Jon Miguel Álvarez Ibáñez. **Zinegotzia. PP.**

##### *Informazio batzordeak:*

- Kontu, Ogasun, Lan eta Zerbitzuen eta Hirigintzako Batzordea.
- Informazio Batzordea.



## 6.4. Herritarren ingurumen pertzepzioa

Atal honetan biltzen ditugu Tokiko Agenda 21 osatzeko prozesuaren baitan Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerri guztietan egin den galdeketa Berrizko hiritarrek iraunkortasunaren problematikari buruz azaldu dituzten iritziak.

Informazioaren bilketa egiteko galdera-sorta modu honetan antolatzen zen: arazo sozioekonomikoen, ingurumenezkoen eta sozialen inguruko poztasun maila jakin nahi zen, baita Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietako hiritarrek zein balorazio egiten duten hauetaz ere, administrazioaren sentsibilizazioa, bizitzaren kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna, jarduera ezberdinak abiatzeko beharraz duten iritzia eta Tokiko Agenda 21 prozesuaren garapenaz duten ezagutza eta problematika horren gaineko foroetan parte hartzeko prestutasuna.

Galdeketa prozesu hau telefono bidez osatu da Durangaldeako Udaltalde 21 udalerrietan bizi diren 834 pertsonako lagin batekin, 2006ko urtarrila eta otsaila artean egin dira elkarrizketak. Horretarako Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrien eta eskualdearen iraunkortasunarekin lotutako gai sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoen inguruan zituzten kezka, iritzi eta jarrerak jasotzen zituen galdeketa egituratua erabili da. Berrizen 76 elkarrizketa egin dira:

55. taula. Inkesten banaketa genero eta adinaren arabera.


	<i>Gizona</i>				<i>Emakumea</i>				<i>GUZTIRA</i>
	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	18-25 urte	26-40 urte	41-64 urte	≥65	
<b>Berriz</b>	3	12	16	6	3	12	17	7	76

Jarraian udalerrian galdekatuak izan diren pertsonen emandako datu esanguratsuenak biltzen ditugu, eta alderatzeko, kide den udalerri taldearenak eta laginketaren osotasunarenak.

*Udalerriak eta eskualdeak bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa sortzen dien poztasun maila*

Hurrengo taulan alde batetik Berrizko herritarrek euren udalerriarekiko eta eskualdearekiko duten poztasun maila jasotzen dugu (1etik 4rako eskalan); eta aldi berean, Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerrietan lortutako batez bestekoarekin alderatu dugu. Berrizko herritarrek udalerriarekiko eta eskualdearekiko bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa duten poztasun maila 3,13koa da. Eskualdeari dagokion lan egiteko eta bizitzeko poztasun mailari dagokionez, batez bestekoa 3,03ra igotzen da; beraz, esan dezakegu pertsonak poztasun maila altuagoa dutela bizitzeko eta lan egiteko eskualdearekiko udalerriarekiko baino. Bestalde, ikus dezakegu Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietako poztasun mailaren batez bestekoa baxuxeagoa dela (eskualdearekiko eta udalerriarekiko) Berrizen baino.

**14. grafikoa. Poztasun maila eskualdearekiko eta udalerriarekiko.**



*Hiritarren poztasun maila txikiena izan duten gaiak*

Hurrengo taulan Berrizko pertsonentzat kezkarrienak diren gaiak zerrendatzen dira.

**56. taula. Poztasun maila txikiena jaso duten lehen 10 gaiak.**

<b>Poztasun maila txikiena jaso duten lehen 10 gaiak</b>	<b>Batez beste</b>	<b>Eremua</b>
<b>1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa</b>	1,45	Soziala
<b>2. Dauden txirrindu bideak</b>	1,45	Ingurumena
<b>3. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoera</b>	2,01	Sozioekonomikoa
<b>4. Gazteentzako zerbitzuak eta hauen kalitatea</b>	2,05	Soziala
<b>5. Adinduentzako arreta zerbitzuak (eguneko zentroak, pisu zainduak...)</b>	2,08	Soziala
<b>6. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna</b>	2,09	Ingurumena
<b>7. Nekazaritza ekologikoaren egoera</b>	2,15	Sozioekonomikoa
<b>8. Enplegu aukerak</b>	2,17	Sozioekonomikoa
<b>9. Enpresek sortutako kutsadura maila</b>	2,21	Ingurumena
<b>10. Turismoaren egoera</b>	2,24	Sozioekonomikoa

Hiritarren ustearen arabera, gaur egun Berrizen kezka handiena sortzen duen arazoa etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa da. Ingurumenari dagokionez, azpimarragarriak dira txirrindu bideak falta direla. Gai sozioekonomikoei dagokionez nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearen egoera, eta honi lotuta, nekazaritza ekologikoaren egoera dira durangarren kezka-iturri.

Hauak dira ingurumen eremuan poztasun maila txikiena erakutsi duten gaiak:

33. taula. Poztasun maila txikiena izan duten ingurumen gaiak.

<b>Poztasun maila txikiena izan duten ingurumen gaiak</b>	<b>Batez beste</b>	<b>Eremua</b>
<b>1. Dauden txirrindu bideak</b>	1,45	Ingurumena
<b>2. Mugitzeko ezintasuna duten pertsonen irisgarritasuna</b>	2,09	Ingurumena
<b>3. Enpresek sortutako kutsadura maila</b>	2,21	Ingurumena
<b>4. Abiadura Handiko Trenaren proiektua</b>	2,41	Ingurumena
<b>5. Norberaren autoaz egiten den erabilera</b>	2,43	Ingurumena

Ikus dezakegu txirrindu bideen gabezia dela inkestatuak izan diren pertsonen iritziz arazorik handiena edo poztasun maila txikiena duena. Ikusten da udalerrriak ez duela bermatzen mugitzeko ezintasuna duten pertsonen mugikortasuna. Gainera, uste da Abiadura Handiko Trenaren proiektuak kaltea eragin dezakeela herriaren etorkizuneko garapenean eta proiektu

horrekiko poztasun maila baxua da. Azkenik, uste da gehiegizko erabilera egiten dela norberaren autoaz, eta beraz, kezka dago herritarren artean Berrizko pertsonen dituzten mugikortasun ohituren inguruan.

Berrizko biztanleriaren artean poztasun maila txikiena duten gaiak honakoak dira:

**34. taula. Poztasun maila txikiena duten gai sozialak.**

<b>Poztasun maila txikiena jaso duten lehen 10 gaiak</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>Eremua</b>
<b>1. Etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa</b>	1,45	Soziala
<b>2. Gazteentzako zerbitzuak eta hauen kalitatea</b>	2,05	Soziala
<b>3. Adinduentzako zerbitzuak (eguneko zentroak, pisu zainduak,...)</b>	2,08	Soziala
<b>4. Pobrezia, gizarte bazterkeria eta desberdintasunei arreta zerbitzuak</b>	2,34	Soziala
<b>5. Eskolako porrotaren problematikari aurre egiteko arreta</b>	2,43	Soziala

Aurreko taularen arabera, etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa dira biztanleentzat kezka gehien sortzen duen arazoa. Bestalde, gazteentzako zerbitzuak eta hauen kalitatea ez direla ona uste da edo ez diotela, behintzat, biztanleriaren asmoei erantzuten. Gainera, adinduentzat dauden zerbitzuak ere ez direla nahikoak uste da. Gainera, pobrezia egoera, gizarte desberdintasunak eta bazterkeria sozialari ez zaiela behar bezala eusten uste da. Azkenik, eskolako porrotaren problematikak kezka sortzen du.

Azkenik, eremu sozioekonomikoan poztasun gutxien sortzen duten gaiak honakoak dira:

35. taula. Sozioekonomiarekin lotutako poztasun maila txikiena duten gaiak

<b>Poztasun maila txikiena jaso duten gaiak</b>	<b>Batez besteko</b>	<b>Eremua</b>
<b>1. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoera</b>	2,01	Sozioekonomikoa
<b>2. Nekazaritza ekologikoaren egoera</b>	2,15	Sozioekonomikoa
<b>3. Enplegu aukerak</b>	2,17	Sozioekonomikoa
<b>4. Turismoaren egoera</b>	2,24	Sozioekonomikoa
<b>5. Merkataritzaren egoera</b>	2,54	Sozioekonomikoa


Kezka sortzen du nekazaritzaren eta abeltzaintzaren egoerak eta baita, nekazaritza ekologikoaren egoerak ere. Gainera, inkestatutako pertsonak ez daude udalerrian eskaintzen den lan aukerarekin. Bestalde, udalerriko turismoaren eta merkataritzaren egoerak ere kezka sortzen du.

¿Zer hondakin mota birziklatzen da?

Birziklatzen dituen elementuekiko biztanleriak duen ustea jaso asmoz, inkestan elementu sail bat proposatu zen birziklaketa egiten den ala ez ondorioztatzeko.

Hurrengo grafikoan kasu honen emaitzak jasotzen dira, bertan Berrizko eta Durangaldeako Udaltalde 21eko kide diren udalerrien batez bestekoak ematen dira, 1 “inoiz ez” da eta 3 “maiz”.

15. grafikoa. Birziklatzen den hondakin mota.




Ikus dezakegu papera, plastikoa, beira eta baita pilak ere normalean birziklatzen direla. Beraz, esan dezakegu biztanleriaren portzentaje altu batek birziklatu egiten dituela material hauek. Zehazki, %68,90ak pilak birziklatzen ditu ohikoan, %85,30ak plastikoak birziklatzen ditu, %82,90ak papera eta %91,70ak beira, azken hau da gehien birziklatzen dena. Olioak ohikoan soilik %39,1ak birziklatzen du eta pintura eta disolbagarriak bezalako lidiko arriskutsuak, soilik Berrizen bizi direnen %6,70ak birziklatzen ditu. Aldi berean, Berrizko hondakinen birziklatzearen batez bestekoa Udaltalde 21en batez bestekoaren antzekoa da, are gehiago, beira eta plastiko birziklapenaren kasuan Udaltalde 21ekoa baino altuagoa da Berrizko batez bestekoa.

Ez dago ezberdintasun esanguratsurik erantzunetan gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

#### *Bere inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasuna*

Galdera-sortari erantzuten dioten pertsonen euren inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak zein neurritan aldatzeko prest egongo ziren erakusten dute, hurrengo grafikoan jasotzen da emaitza. Bertako biztanleen erantzunak honako eskalan zehaztu ditugu: 1etik "inoiz ez" 3ra "maiz".

16. grafikoa Biztanleen ohiturak aldatzeko prestutasuna.



Aurreko grafikoaren arabera, Berrizko udalerrian ohiturak aldatzeko batez bestekoa eskualdekoa baino pixka bat altuxeagoa da. Bestalde, hauek dira aldatzeko prestutasun gutxien sortzen duten ohiturak:

- Garapen iraunkorrean inbertitzeko tasa edo zerga gehiago ordaintzea.
- Iraunkortasunaren inguruko bileretan aktiboki parte hartzea.
- Ekoizpen ekologikoak kontsumitzea edo erabiltzea, nahiz eta hauek garestiagoak izan.
- Mendien eta ibaien garbiketarako kanpainetan parte hartzea.




*Jarrera iraunkorra eguneroko bizitzan*

Inkestari erantzuten dioten pertsonak euren inguruko bizitza kalitatea hobetzeko iraunkortasunaren mesedetan zein neurritan jarduten duten zehazten dute. Jarraian azaldu dugu Berrizko pertsonak hainbat eremutan iraunkortasunaren mesedetan jarduten duten neurria 1etik (inoiz ez) 3ra (maiz).

Hurrengo grafikoan jasotzen dira datu horiek.

**17. grafikoa. Iraunkortasunaren mesedetan jarduten du egunerokoan.**



Ikus dezakegu pertsona gehienek maiz iraunkortasunaren mesedetan jarduten dutela energiaren eta uraren kasuan. Aldiz, maiztasun hori txikiagotu egiten da erosketak egiterako garaian. Aldi berean, esan dezakegu Berrizko maiztasunaren batez bestekoa Udaltalde 21eko batez bestekoa baino handiagoa dela eremu guztietan, energia kontsumoaren kasuan izan ezik.


*Bere udalerrian Tokiko Agenda 21 garatzen ari den badaki*

Hurrengo grafikoaren arabera, biztanleriaren ia %8,90ak badaki Berrizen Tokiko Agenda 21 prozesua bultzatzen ari dela. Aldiz, %39,40ak prozesu hori Berrizen egiten ari denik ez daki.

Gizonezkoen %11,1ak badaki bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari dela eta emakumezkoen %5,70a da prozesuaren berri duena.

Aipagarria da portzentaje altu batek, zehazki %51,70ak, ez diola galderari erantzuten, segur aski gaiaz ideiarik ere ez dutelako.


**18. grafikoa. Badaki bere udalerrian Tokiko Agenda 21 bultzatzen ari dela.**



Zerbitzuen gertutasuna oinez joanda

Hurrengo grafikoan Berrizen bizi diren pertsonen oinez 15 minutu baino gutxiagora dituzten zerbitzuak jasotzen dira.

19. grafikoa. 15 minutu baino gutxiagora biztanleek dituzten zerbitzuak.



Grafikoan jasotako datuetatik azpimarratzen da bertan bizi diren pertsonen %97,7ak badituela birziklatzeko edukiontziak oinez 15 minutu baino gutxira eta %16,1ak soilik du zine bat 15 minutu baino gutxiagora. Aldi berean, Berrizko pertsonen %18,3ak garbigune bat du 15 minutu baino gutxiagora.

Hurrengo taulan portzentajeen arabera biltzen ditugu zerbitzuak 15 minutu baino gutxiagora dutela erantzuten duten pertsonak.

64. taula. Oinez 15 minutu baino gutxiagora dauden zerbitzuak.

	<b>15 minutu baino gutxiago %</b>
<b>Osasun sorospen zerbitzuak (medikua, anbulatorioa, farmazia...)</b>	88,1
<b>Garraio publiko zerbitzuaren geltokia (autobusa, trena...)</b>	90,1
<b>Haur eta derrigorrezko hezkuntzarako zentroak</b>	75,5
<b>Elikadura komertzioak</b>	93,9
<b>Hondakinen birziklaketarako edukiontziak</b>	97,7
<b>Garbigunea</b>	18,3
<b>Aurrezki kutxak eta bankuak</b>	90,3
<b>Kirol eremuak (polikiroldegiak, estalitako igerilekuak, estalitako frontoiak)</b>	71,3
<b>Kultur Etxea</b>	83,1
<b>Liburutegia</b>	82
<b>Zinema</b>	16,1
<b>Gazte lokala</b>	48,3
<b>Parke, lorategi edo espazio publiko irekiak (oinekoentzako eta aisialdirako plazak)</b>	91,5
<b>Doako erabilpeneko estali gabeko kirol instalakuntzak (publikoak)</b>	51
<b>Guztientzat doako sarrera duten zonalde pribatuak (parke pribatuak)</b>	21,3

Taularen irakurketatik ikus dezakegu zerbitzu gehienak biztanleriaren gehiengoarentzat 15 minutu baino gutxiagora daudela. Hala ere zineak, Garbiguneak eta guztientzat doako sarrera duten zonalde pribatuak (parke pribatuak) 15 minutu baino gutxiagora dituzten pertsonen portzentajea baxuagoa da.

#### *Berrizen bizi direnen joan-etorriak*

Hurrengo taulan Berrizen bizi diren pertsonen aste egun batean egiten dituzten joan-etorriak azaltzen dira eta datuak jaso ditugu Durangaldeako Udaltalde 21 osatzen duten udalerriekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoekin alderatuta.

**Bertako pertsona batek eguneko egiten duen batez besteko bidaiak kopurua 1,9 da, joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantzia 8.7 km da, eta batez beste 16,13 minutuko iraupenekoak dira.**

**Egunero pertsona bakoitzak egiten duen batez besteko distantzia 17,15 km-koa da eta joan-etorrietan pertsona bakoitzak hartutako denbora 33,51 minutukoa da batez beste.**

Datu hauek Udaltalde 21ekoekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegokoarekin alderatuta (2004ko Ekobarometro Sozialean jasoak) honako ezberdintasunak lortzen ditugu.

Bidaia kopurua Udaltalde 21ekoakoa da. Joan-etorri bakoitzean egindako batez besteko distantziari dagokionez, Berrizen 8,7 km-koa da, Udaltalde 21ekoa (8,2 km) eta EAEkoa (10,34 km) baino txikiagoa da.


Joan-etorrien denbora txikiagoa da Berrizen gainontzeko lurraldeetan baino. Berrizko pertsonak egindako joan-etorrietan egindako batez besteko distantzia (8,7 km) Udaltalde 21ekoa (8,2) baino altuagoa da, baina aldiz, EAEkoa (10,34 km) batez bestekoa baino baxuagoa da. Pertsona bakoitzak egunero behar duen denborari dagokionez, Berrizen gainontzeko lurraldeetan baino baxuagoa da, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan.

**36. taula. Berrizen, Durangaldeko Udaltalde 21n eta EAEn bizi direnen joan-etorriak.**

<b>Adierazleak</b>	<b>Berriz</b>	<b>Udaltalde 21</b>	<b>EAE</b>
<b><i>Pertsona bakoitzak egiten duen bidaiak kopurua</i></b>	1,9	2	2,55
<b><i>Joan-etorrien batez besteko distantzia</i></b>	8,7	8,2	10,34
<b><i>Joan-etorrien denbora</i></b>	16,13	16,55	20,0
<b><i>Pertsona bakoitzak egunero egindako distantzia</i></b>	17,15	14,86	26,37
<b><i>Joan-etorrietan pertsona bakoitzak iragandako denbora</i></b>	33,51	35,05	51,0

Garraioaren arabera joan-etorriei dagokionez, hurrengo grafikoan ikus ditzakegu Berrizko datuak.


**20. grafikoa. Joan-etorriak garraioaren arabera.**



Berrizko biztanleriaren %57,2ak bere joan-etorriak auto pribatuan egiten ditu. Euren joan-etorriak oinez egiten dituzten pertsonen kopurua %27,1era igotzen da, modu horretan, esan dezakegu bi modu hauek direla Berrizko biztanleriak gehien erabiltzen dituenak. Trena / metroa (%9,1a) eta autobusa (% 4,2a) tamaina txikiagoan erabiltzen dira. Gainontzeko garraio bideen erabilpena oso txikia da.


Hurrengo grafikoan Berrizko biztanleen joan-etorriak erakusten dira arrazoiaren arabera.

**21. grafikoa. Joan-etorriak arrazoiaren arabera.**



Joan-etorrien arrozoi nagusia lana da (%44,9). Aisialdia eta asteroko erosketak, ordena horretan, dira hurrengo arrozoi nagusiak, atzetik haurrak eskolara eramatea eta eguneroko erosketak.

**22. grafikoa. Joan-etorriak iragandako denboraren arabera.**



Aurreko grafikoaren arabera, 6 eta 10 minutu arteko joan-etorriak Berrizko biztanleriaren %36,3ak egiten ditu. 11 eta 20 minutu arteko joan-etorrien portzentajea baxuagoa da (%19,5). Esan dezakegu joan-etorri gehien iraupena 6 eta 20 minutu artekoa dela.

## 7. BERRIZKO TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA, ONDORIOAK ETA INTERPRETAZIOAK

### 7.1. Diagnostikoaren laburpena

#### Demografía eta biztanleria

- **Biztanleriaren garapena.** Udal erroldaren arabera, 2005ean Berrizek 4.546 biztanle zituen. Azken bi hamarkadetako garapenak erakusten digu goranzko joera nabarmena.
- **Biztanleriaren egitura.** 2001ean Berrizko biztanleriaren egitura modu honetan osatzen zen: biztanleriaren %17a 19 urtetik beherako pertsonak ziren, %66,4ak 20 eta 64 urte artean zituen eta %16,5ak 65 urte edo gehiago zituzten. Udalerriko biztanleriaren egituraren garapenak biztanleriaren zahartze joera erakusten du eta aldaketa esanguratsuak ematen dira adinen egituratzean. Zehazki, biztanleria gazteenaren indizea jaitsi egin da, eta aldi berean adin handieneko biztanleria hazi egin da.
- **Berezko mugimenduak eta migrazioak.** 1996-2003 urte aldian, berezko hazkunde tasako datuen azterketatik joera positiboa ondorioztatzen da, horrek esan nahi du jaiotza gehiago izan direla heriotzak baino. Migrazio saldoari dagokionez, 1996tik aurrera saldoa positiboa da, bereziki, barne migrazio saldoagatik (barne migrazioak dira EAEko udalerritik EAEko beste udalerrira batera egiten direnak). Berrizko Udalak emandako datuen arabera, 2001-2005 tartean udalerrian erroldatutako biztanleria kanpotarra asko hazi da. Presentzia gehien duten naziotasunak errumaniarra eta kolonbiarra dira, atzetik dira boliviarra eta marokoarra.

#### Ekonomia eta enplegua

- **Jarduera eta egitura ekonomikoa.** Industriaren sektorea Berrizko jarduera sektore nagusi gisa azaltzen da, bai balio erantsiari dagokionez eta baita enpleguari dagokionez ere. Hala ere, zerbitzuen sektorearen garrantzia handia da, bigarren tokian izateaz gain, eraikuntza eta nekazaritza sektoreak baino askoz ere garrantzitsuagoa delako.
- **Biztanleria aktiboa.** Berrizek 2001ean 2.059 pertsonak aktibo zituen eta 2.253 ez aktibo; biztanleriaren %47,8 eta %52,2 osatzen dute biek, hurrenez hurren.



- **Langabezia.** Adinaren eta sexu generoaren arabera langabetuei dagokionez, langabezia handiena 25 eta 34 urte artekoen artean dago, bai gizonezkoen kasuan eta baita emakumezkoen kasuan ere. Hala ere, sexuaren arabera datuei begiratu gero, ikus dezakegu adin talde guztietan emakumezko langabetu gehiago dagoela gizonezkoena baino. Jarduera ekonomikoaren arabera langabeziari dagokionez, Zerbitzuen jarduera da langabetu gehien dituen. Bigarren lekuan industriaren sektorea kokatzen da.
- **Langabeziaren garapena.** Azken urteetako langabeziaren garapenari dagokionez, langabezia asko jaitsi da 1997 eta 2004 urteen artean, gainontzeko lurraldeetan gertatu den moduan. Hala ere, 2005ean langabeziaren hazkundea bizi da. Zehazki, 2005ean langabezia tasa Berrizen %5,1ekoa da, eta gainontzeko lurraldeetako (eskualdea, herrialdea eta EAE) tasetatik beherako kokatzen da.

### Gizarte ekintza, elkarbizitza eta elkartasuna

- **Gizarte zerbitzuak.** Hauek dira Gizarte Zerbitzuen Unitatean garatutako programak: Udalerriko biztanleria guztiarentzat dauden zerbitzuen, laguntzen eta baliabide sozialen Informazio, Orientazio eta Deribazio Zerbitzua; etxez etxeko laguntza zerbitzua (egunerokoan arazoak dituzten pertsonentzat); pobrezia aurkako borroka plana: RB, AES eta gizarteratze hitzarmenak; Esku-hartze familiarerako programa; komunitateari begirako programak; Hirugarren Adinekoentzat udal programa eta Osasun-ongizaterako eta elkarlanerako udal batzordetik eta elkarlanerako zerbitzutik sortzen diren beste batzuk. Gizarte Ongizate Sailak emandako datuen arabera, 2003an 28 familiek jasotzen zuten Berrizen Oinarrizko Errenta, 43 espediente tramitatu ziren Larrialdi Sozialeko Laguntzentzat eta 16 pertsonak jaso zituzten etxez etxeko laguntza zerbitzuak.
- **Laguntza ekipamenduak.** Udalerriak Zaharren Egoitza eta Zerbitzu Sozialetarako Unitatea ditu, hauetan honakoak daude: langile sozial bat, familia hezitzaile bat, adin txikien hezitzaile bat eta administrazio laguntzaile bat
- **Haur, gazte era familietan gizarte-hezkuntza esku-hartzerako plana.** Udalerriak gabezia pertsonal, afektibo, familiar, hezkuntzazkoak, sozialak aurrez lantzea helburu duten Oinarrizko Zerbitzu Sozialen eskutara dagoen gizarte-hezkuntzazko esku-hartzerako plana du. Zerbitzu hauek inguru sozio-familiar edo komunitario ez egokietan diren adin txikienentzat eta gazteentzat dira, eta aldi beran, hauen garapen pertsonal osoa bilatu nahi da, gizarte-hezkuntza ekinbidearen bidez, bai adin txikioarekin landuz edo bere familiarekin arituz.
- **Hezkuntza.** Berrizko biztanleriaren formakuntza maila orokorra Durangaldeako, Bizkaiko eta EAeko batez bestekoa baino baxuagoa da; izan ere, ikasketarik gabeko eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen garrantzia handia da eta bigarren edo goi mailako ikasketak dituztenena baxuagoa da. Hala ere, azken

urteetan (1996-2001) bigarren mailako, ertain-goi mailako eta goi mailako ikasketak dituztenen hazkundera izan dela ikus daiteke. Aldi berean, txikitu egin da ikasketarik gabeko eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen kopurua.

- **Kultura.** Orain gutxi diagnostikoa egin da Berrizko Udalaren Hobekuntza eta Kalitate jarraiturako planaren eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren Kultur Elkarten Kudeaketa hobetu eta gidatzeko tresnak sortzeko Indartu Planaren baitan. Diagnostiko honen ondorioetako bat da udalerrian ekintzak bultzatzeko lan egitea, bestela, mugikortasun aukeren ondorioz jendea beste udalerrira batzuetara joango litzateke, Berriz lotarako hiri bihurtzeko arriskuarekin. Udal kultur ekipamenduei dagokionez, udalerririk honakoak ditu: Kultur Etxe berria (apirilean irekitzekotan), egungo Kultur Etxea, udal liburutegia (egungo kultur etxean dagoena) eta Kultur Gunea.
- **Euskara.** Eustaten datuen arabera, 2001ean biztanleriaren %42,8a alfabetatu euskaldunak ziren eta %28,2a erdalduna zen. Gainera, gaztelaren erabilera hazi egin da, udalerriko etxeetan bere nagusitasuna indartuz. Gaur egun Plan Estrategikoa eta Udalaren Euskararen Erabilerarako Plana Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak, EUDELEk eta Foruzaingoak bultzatutako Euskararen Normalkuntzarako Planaren baitan kokatzen dira. Euskararen Normalkuntzarako Plan Orokorren helburua euskara maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean berreskuratzea da. EAE mailan osatutako plan honen bidez euskara belaunaldi belaunaldi transmititzea bilatzen da.
- **Kirolak.** Gaur egun, Berrizen dauden Udal instalakuntzak honakoak dira: Berrizburu Futbol Zelaia, Berrizburuko pista polikiroldegia, Bolatokia, Olakueta pilotalekua, Learrata Markina eskolako pista, Zengotitabengoako erabilera anitzeko sala, Skate pista eta Berrizburuko polikiroldegia.
- **Pertsona gazteak.** Gaur egun Gazte Plana osatzen ari da eta helburua da tresna erraza izatea, gako irekian pentsatu da eta udalerriko pertsona gazteen beharrak eta kezkek lantzeko helburua du, kontuan izango dira hauek Planaren osaketan.
- **Emakumeen egoera.** 2003an Berrizko Udaleko Emakumearen Batzordeak Emakumeentzako Aukera Berdintasunen II. Udal Plana osatu zuen. Hauek dira landu nahi diren zortzi gaiak: hezkidetzak; erantzukizun pertsonal, familiar eta profesionalen arteko bateragarritasuna; enplegua; hirigintza, eremu bizigarri eta seguruak; osasuna eta ongizate pertsonala; gizarte ongizatea; kultura, kirola eta euskara eta tokiko administrazioa.

## Lurraldea

- **Ingurune fisikoa.** Udalerriaren topografia gorabeheratsua da, izan ere Oka ibaiaren aranak eta mendiak osatzen dute Ibaizabal ibaiak osatzen duen aranarekin elkartu artean.
- **Hidrologia.** Beste batzuen artean Berriztik bere orografia moldatzen duten bi ibai igarotzen dira: Oka eta Ibaizabal ibaiak.
- **Flora.** Gaur egun Berrizko landaredia potentzialki behar lukeenetik oso ezberdina da, bere inguruan izan den gizakiaren jarduera intentsuaren ondorioz. Landaredia baldintzatzen du, nagusiki, lurraren beraren altuerak, hala ere, gizakiaren jardunbideak garai bateko paisaia aldatu du. Horrela, udalerriaren goi aldean (itsasoaren mailarekiko 400 metrotik gora) nagusi dira hostotsuak eta bereziki, intsigni pinua; eremu ertainetan zelaiak eta fruta-arbolak dira nagusi (udarea, kiwia...) zonalderik baxuenetan labore lurrak eta barazkien negutegiak dira nagusi. Azpimarratu behar da konifera basoak direla nagusi bertako berezkoekin alderatuz.
- **Fauna.** Berrizen honako habitatak aurkitzen ditugu fauna espeziarentzat: koniferak (fauna ikuspegitik ez dute baso izaera betetzen eta espeziarentzat oso ugaria ez den komunitatea izaten dute), hiriguneak (ornodun espezie batzuk ohitu egin dira hirigune txikietan bizitzera) eta ibaien goi arroak (bertan sartzen ditugu mendiko ibaiak ere).

## Lurraldearen antolaketa

- **Lurraldearen Antolamendurako Artezbidetarako (LAA).** LAA-etatik proposatzen den Lurralde Eredua, lurraren politika orokorrerako irizpideekin, erabilpen ekonomikorako edo bizitegiarako gaitasuna definituz, horretarako guneak zehazten ditu eta bereziki zehazten dute Amorebieta-Etxano – Durango ardatza. Azken urteetako joerari begiratu gero, ardatz hau modu egokiagoan handitu ahalko litzateke Amorebietatik Berriz, Abadiño, Atxondo eta Elorrioraino.
- **Lurraldearen Zatikako Plana (LZP).** Lurraldearen Zatikako Planen (LZP) helburua da LAA-k garatzea azken tresna honek zehaztutako udalaz gaindiko zonaldeetan, berak zehaztutako irizpideak indartuz. Durangoko Jarduera Eremuaz Lurraldearen Zatikako Plana egiten ari da eta honezkero lehen bi faseak osatu ditu, informazioa eta diagnostikoari dagokiona lehena eta aurrerakinarena bigarrena. Berrizi dagokionez, aipatzen da 2000-2003 lau-urteko 447 etxebizitzako eskaintza behar dela. Bestalde, errepide Ardatz Nagusietatik inguruko lurraldeekin lotzen duten korridoreak (oinarrizko sarekoak) bultzatu nahi dira; eta bereziki aipatzen da Berriz hegoaldeetik Apatamonasteriora doan saihebidetaren garrantzia, Durango-Abadiño-Apatamonasterio-Elorrio hirigune ardatzaren birgaitzea indartuz.

- **Jarduera ekonomiko eta merkatal ekipamenduentzako Lurzoruaren arloko plana.** Durangoko Jarduera eremuak 757 Ha. lur kalifikatu ditu, horietako 510 Ha. okupatuta daude eta 247 ha. ez okupatuta. Lurzoru ez okupatuko erretserba handiena Amorebieta-Etxanok du 117 ha-rekin (70 ha. Boroan). Durangok 48 ha. ditu, Abadiñok 13 ha., lurretak 34 ha. eta Berrizek 6 ha. Jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez duten gainontzeko udalerriek, Garaik salbu, 5 ha. inguruko erretserbak dituzte bakoitzak.
- **Indarrean dauden Arau Subsidiarioak.** Berrizko egungo arau subsidiarioak 1997ko irailaren 16koak dira. Jarraian lurzoru mota bakoitzaren azalera azaltzen dira, erabilpen nagusiaren arabera eta udalerraren guztiarekiko portzentajearen arabera:

37. taula. Azalera erabilpen nagusiaren eta guztiarekiko portzentajearen arabera.

	Hiriguneko lurra	Hirigintzarako erabilgarria den lurra	Hirigintzarako erabilgarria ez den lurra	GUZTIRA	%
<b>BIZITEGIAK</b>	27,73 Ha	12,42 Ha	50,26 Ha	90,41 Ha	3%
<b>INDUSTRIALA</b>	24,48 Ha	19,01 Ha	---	43,49 Ha	2%
<b>LEHEN SEKTOREA</b>	---	---	2.859,97 Ha	2.859,97 Ha	95%
<b>GUZTIRA</b>	52,21 Ha	31,41 Ha	2.910,23 Ha	2.993,87 Ha	100%

Iturria: 1997ko irailaren 16ko arau subsidiarioetan oinarritua.

- **Etxebizitza.** Arau subsidiarioen aurreikuspenaren arabera Hiri-lurrean 284 etxebizitza berriren eraikuntza ahalbidetzen da, erauzteek 25 etxebizitzetan izango dute eragina. Hirigintzarako erabilgarria den lurzoruari dagokionez, 251 etxebizitza egitea proposatzen da. Beraz, etxebizitza eskaintza 510 etxebizitza berrirena izango da, hala ere, kontuan izan behar da unitateetako bi aurrez trinkotutakoena direla, beraz 510 etxebizitzako kopuru hori murriztu egingo litzatekeela.

### Mugikortasuna eta garraioa

- **Errepide sarea.** Berrizek Interes Lehenetsiko Sareko (Sare Gorriko) errepide bat du, N-634 errepidea eta Oinarrizko Sareko (Sare Laranja) errepide bat du, BI-633 errepidea. Gainera, udalerria A-8 autobideak zeharkatzen du, baina ez du sarrera-irteerarik bertan. Hauek dira udalerriko tokiko errepide sarea osatzen duten errepideak (sare horia): BI-3340: Berriz eta Ermua arteko errepidea, BI-3321: Berriz eta Elorrio arteko errepidea, BI-3342: Areitio gaina eta Berriz arteko errepidea, BI-3341: Berriz eta Garai arteko errepidea.
- **Parke mugikorra.** Eustaten 2004ko datuen arabera, Berrizen dagoen ibilgailu kopurua 2.660koa da; ibilgailu kopuru honek 4.479 biztanleko herriarentzat, 593 ibilgailu/1.000 biztanleko motorizazio indizea eragiten du, balio altua esan nahi du.

Ibilgailu motaren araberako sailkapenaren baitan, kamioi kopuru handia azpimarragarria da, Berrizko parke mugikor guztiaren %17,85a hartzen dute.

- **Irisgarritasuna.** Berrizko udalerriak 2004tik Irisgarritasun Plana du.

### **Ingurugiro sektoreak**

#### *URA*

- **Uraren hornikuntza eta kontsumoa.** Gaur egun, Berrizko udalerria bera da goiko eta beheko sareetan ur hornikuntza kudeatzen duena. Berrizko Udalak emandako datuen arabera, 2005ean udalerrian kontsumitutako ur kopurua 294.748 m<sup>3</sup> izan zen. Uraren kontsumoaren garapenak erakusten digu hazkunde txiki bat izan dela 2001 eta 2003 artean, eta urte horretatik aurrera kontsumoa asko jaitsi dela ikus dezakegu..
- **Saneamendua.** Arriandiko arazketa estazioak landutako bolumena 2004ean 6.076.324 m<sup>3</sup> izan ziren eta horietako 642.911 m<sup>3</sup> (10,58%) Berrizkoa zen (beste udalerriak: Abadiño, Atxondo, Durango, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar).

## ATMOSFERAREN ETA AKUSTIKAREN KALITATEA

- **Atmosferaren kalitatea.** Ez dago Berrizen EAEko Airearen Kalitatearen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Sareko estaziorik, baina bai Durangon. Estazio horrek 15 parametro ezberdin neurtzen ditu. Berriztik dagoen distantziak eta kutsatzaile bakoitzaren ezaugarrien arabera, denek ez dute esanahi bera, dagokien neurrian hartu behar dira kontuan. Airearen kalitate indizea ona, onargarria, txarra eta oso txarra bezala kalifikatzen da. Esan behar da, 2004an bi egunetan airearen kalitatea oso txarra izan zela, 2003an 4 izan ziren mota horretako egunak eta 2001ean bakarra.
- **Zarata eta akustikaren kalitatea.** Errepideei dagokionez, Berrizek udalerriz gaindiko errepide sare bat du eta hor Berriz eta Elorrio arteko BI-3351 azpimarratuko gurutze 55-60 dBA arteko soinu mailak hartzen baititu. A-8an eta N-634 errepidean jasotzen diren zarata mailak dagokionean, 70 dBAtik goragoko soinu mailak hartzen dituzte 10 metrora. Trenbidearen eraginari dagokionez, Euskotrenek Donostia eta Bilbo artean duen lineak 55 eta 60 dBA arteko mailak sortzen ditu Berriz eta Donostia artean, Durango eta Berriz artean, berriz, 60 eta 65 dBA artekoa da.

## ENERGIA

- **Energia kontsumoa.** IBERDROLA konpainiak emandako datuen arabera, 2000-2004 artean %12,64ko igoera ikus daiteke. Industria sektorea da Berrizen energia elektriko gehien kontsumitzen duena (%62a), atzetik du bizitegitako erabilpena (%18,96) eta zerbitzuetakoa (%17,31).
- **Energia berriztagarriak.** EVE-EEEk eskainitako datuen arabera gaur egun udalerrian dauden energia berriztagarriko instalakuntzak hauek dira: energia minihidraulikorako instalakuntza bat eta biomasaren bidez funtzionatzen duten 10 enpresa.

## LURZORUA

- **Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen inbentarioa.** IHOBek eskainitako "EAEko lurzoruko potentzialki kutsagarriak diren jarduerak dituzten eremuen inbentarioak" erakusten du udalerrian potentzialki kutsatuta dauden eremuak 23 direla eta 9,06 hektarea hartzen dituztela.

## HONDAKINAK

- **Hiriguneko hondakinen sorrera.** 2005ean Berrizen biztanleko eta eguneko sortutako etxeko hondakinak 1,10 Kg /bizt./eguneko dira. Hondakinen sorreraren garapenak 1995 eta 2005 artean joera hazkorra erakusten digu.
- **Gaikako bilketa:**
  - *Beira.* Berrizen edukiontzietan jasotako beira kopurua hazi egin da modu jarraituan 2001 eta 2004 urteen artean. 2004an jasotako kopurua etxean sortutako hondakinen %6,75 dira.
  - *Papera/Kartoia.* 2001-2004 urte artean jasotako paper eta kartoi kilogramo kopurua hazi egin da. 2004ean etxean sortutako hondakinen %11,5a osatu zuten.
  - *Ontzi arinak.* Ontzien berreskurapen indizeak txikiak dira oraindik, segur aski sistema orain gutxi ezarri delako. Hala ere, urtez urte hazten ari da honen bilketa. 2004ean etxean sortutako hondakinen %3,23a izan ziren hauek.
- **Hondakin industrialak eta arriskutsuak.** Berrizen hondakin arriskutsuen ekoizpena 383.514 kg. Izan zen 2003an, maila altua da eta erakusten du industria sektore jakin batzuen ezarpena zein neurritakoa den udalerrian (mekanika, automozioa, siderurgia).

## 7.2. Ondorioak

Berriz Durangaldean kokatzen da eta bertako udalerrri zabalenetakoa da 30,1 km<sup>2</sup>rekin eta bere orografia gora beheretsua du ezaugarri. Euskadiko Autonomia Erkidegoan duen kokapen estrategikoak eragin du bere lurzoria zeharkatzea hainbat azpiegiturek eta baita bere hirigintza eta ekonomia garapena ere.

2005ean 4.546 biztanle zituen, azken urteetan hazi egin da kopuru hori, bereziki jaso duen immigrazioagatik, bai kanpotarra eta baita barnekoa ere. Barneko migrazioak (EAEko udalerrri batetik EAEko beste batera egiten direnak, kasu honetan Berrizera) areagotu egin dira eskualdeko beste udalerrietan eman den etxebizitzaren garestitzearen ondorioz. Aldi berean, bere biztanleriaren garapenaren ezaugarria da biztanleriaren zahartzea. Ikus daiteke biztanleriaren egituraren adin nagusikoen garrantzia hazi egin dela gazteena murriztu den neurrian. Modu berean, ikusten da adinean aurrera egin ahala emakumezkoen portzentajea altuagoa dela, beraz kolektibo honen beharrak asetzeko neurriak eta politikak landu beharko direla uste da.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, industriaren sektorea da Berrizko jarduera sektore nagusia. Aberastasun eta enplegu iturri garrantzitsua da. Hala ere, udalerriko industria metalaren sektorera mugatzen da gehiegi, ez da dibertsifikatua eta familiaren ingurukoa izan da. Modu berean, azken urteetako langabeziaren garapenak erakusten du gutxitu egin dela langabetu kopurua, nahiz eta salatzen den sortu den enpleguaren kalitate txarra, prekarietatea eta aldibatekotasuna ezaugarri baititu, bereziki gazteen artean.

Zerbitzu sozialen osaketari dagokionez, kezka sortzen dute udalerriko adin nagusien egoerak eta beharrek, eta baita garrantzia hartzen ari den azken fenomenoak ere: immigrazioak. Lehenengoaren kasuan, udalerriak Zaharren Etxea eta Egunekeo zentroa ditu. Etorkinen kasuan, udalerriko hainbat elkartek hauen integrazioarako lan egiten dute.

Gaur egun, udalerriko emakumeen eta gazteen egoera Udala lantzen ari den eremua dira. Lehenengoaren kasuan Aukera Berdintasunen II. Udal Plana osatu da, emakumezkoen eta gizonezkoen artean aukera berdintasuna eta egiazkoa lantzeko asmoarekin. Gazteei dagokionez, besteren artean, honakoak proposatzen dira: aisialdiaren kontsumo individualista, enplegu prekarietatea, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak... lantzen da nola egin aurre egoera hauei instituzioen eskutik eta interesa duten pertsonen eskutik.

Udalerriko ingurumen fisikoaren osaketa eta moldaketa hainbat faktoreren eraginpean izan da: industriaren ezarpena, azpiegituren ezarpena eta inguruan izan den gizakiaren ekintza. Industriaren ezarpen garrantzitsuak eragin du udalerriko lurzoru eremu handia sektore honetako pabilioiek hartzea eta jarduera honetarako lurzoru aurreikuspena izatea.



Bestalde, Berriz udalerriz gaindiko hainbat azpiegiturek zeharkatzen dute, udalerrriaren unitatea zatituz eta auzo ezberdinekiko hirigintza lana oztopatuz. Gainera, lehen sektorearen beherakada, eta honen desagertzea, eragin du udalerriko basoak intsigni pinuaren moduko koniferen monolaborantza izatea.

Udalerrriaren hirigintza garapena da Berrizko biztanleengan kezka gehien sortzen duen gaietako bat, izan ere, azken urteetan udalerriak bizi izan duen hazkunde oso handia izan da. Honen kontra, etxebizitzaren inguruan dagoen problematika, alegia, honen kalitatea eta prezioa, ezinezon nagusia sortzen duen gaia da. Dagoen alokairuzko merkatu murrizkak eta honen prezioak, eta etxebizitza erosteko dauden gehiegizko prezioek pertsona gazteen emantzipazioa oztopatzen dute.

Pertsona eta merkantzien mugikortasun indize altuak gure gizartearen arazo nagusienetako bat dira, izan ere norbere autoarekiko menpekotasuna eta honen erabilpen orokortuak, akustikaren eta atmosferaren kutsadura eragiteaz gain, errepide berrien moduko azpiegiturak eraikitzea, aparkamenduak eta abar eskatzen ditu, lurzorua okupazio altua eraginez. Zehazki Berrizen, parke mugikorra hazi egin da azken urteetan, 2004ean 1.000 biztanleko 593 ibilgailuren motorizazio indizera iritsiz. Modu berean, hirigunean aparkatzeko geroz eta arazo gehiago sortzen dira. Hala ere, udalerrian bizi diren pertsonak diote garraio publiko zerbitzua egokia dela (Euskotren eta Bizkaibus), beraz, pertsonak kontzientziatu beharko liriateke garraio publikoaren erabilpenaren inguruan.

Ingurumen sektoreei dagokionez, aipatu behar da udalerrriaren ezaugarriak inguruarekin oso lotuta daudela. Akustikaren eta atmosferaren kalitatea oso lotuta dago industriaren ezarpenari eta udalerria zeharkatzen duten azpiegitura ezberdinei (A-8 autobidea, Euskotren linea...) eta baita biztanleriaren ohiturei ere, adibidez, norberaren autoarekiko dagoen menpekotasuna eta kontsumo jarrerak. Energiaren kontsumoa hazten ari da, eta industria da sektore kontsumitzaile nagusia. Hondakinen sorrerari dagokionez, garapenak gutxitzeko joera erakusten digu, eta aldi berean berreskurapen indizeak hazten ari direla ikusten da, nahiz eta oraindik, berreskurapen ratioak oso baxuak diren sorrera ratioekin alderatuz gero.

Udalerrriaren iraunkortasun diagnostikoarekin batera, Durangaldeako Udaltalde 21eko udalerriei galdeketa prozesua egin zaie, eta Berrizko biztanleen eskutik iritziak eta usteak jaso dira iraunkortasunaren problematikarekiko.

Eskualdean identifikatu daitezkeen problematiken inguruan daude bertako biztanleen artean ikusten diren kezka nagusiak. Modu honetan, etxebizitzarako sarbidea eta honen prezioa da arazo nagusia eta gakoa durangarrentzat, etxebizitzaren gain-balioak familien zorpetzean eta gazteen emantzipazio gaitasunean eragin du.

Eremu soziala utzi gabe, adinduei arreta zerbitzuak hobetzeko beharra ikusten da. Ikus dezakegu udal diagnostikoak egoera hau berresten duela, izan ere biztanleriaren zahartzea udalerrian momentu honetan bizitzen ari den prozesua dela ikusten da, zerbitzu kopurua eta eskatzaile kopurua haziz.

Modu berean, inkesta prozesuan ikusi da udalerrian pertsona gazteentzat azpiegiturak eta zerbitzuak falta direla. Gaur egun, Berrizen bada Gazte Plan bat eta bertan udalerriko gazteen egoeraren inguruko ikuspegi orokorra jasotzen da. Ikus daiteke gazteriak aisialdiaren kontsumo indibidualista baterako joera duela. Modu berean, joera orokortua dago lagun taldeak bakoitza bere lokaletan elkartzeko. Bestalde, ikus daiteke administrazioak antolatutako ekintzak ez direla oso erakargarriak kolektibo honentzat, eta beraz, uste da formula berriak ezarri beharko lirakeela komunikaziorako, pertsona hauen beharrak hobeto ezagutzeko eta herriko gizartean hauen aukerak hobetzeko.

Sozioekonomiari lotutako kontuetan, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearekiko eta nekazaritza ekologikoarekiko kezka dago, kezka horri lotzen zaio sektorea ia desagertu egin dela udalerrian, izan ere, sektore horrek udalerriko ekonomian duen pisua ia ezereza da. Modu berean, udalerrian dagoen enplegu eskaintza eta honen izaera ere kezka-iturri da, bereziki, Berrizko marko ekonomikoa metalaren eta auto-mozioaren menpeko delako eta sortzen den enplegua oso lotuta dagoelako berari. Gainera enpleguaren prekaritatea eta aldibatekotasuna hazi egin da.

Ingurumenari dagokionez, mugikortasun iraunkorrari lotutako gaiak azpimarratu behar dira. Bidegorrien gabezia salatzen da eta baita irisgarritasunari lotutakoa ere. Baina inkestaren datuek erakusten dute joan-etorri gehienen arrazoia lana dela eta norbere autoan egiten dela, beraz, bide iraunkorragoen erabilera minimoa da (oinez, txirrinduz, garraio publikoa...)

Aldi berean, kezka dago biztanleriaren artean industriak sortzen duen kutsadurarekiko, honen ezarpen handiaren ondorioa da hori. Ikus dezakegu industria aberastasun iturri bezala ikusten dela, nahiz eta biztanleriak badakien zer eragiten duen industria udalerriko lurzoruan izateak (lurraren okupazioa, akustikaren eta atmosferaren kutsadura, isurketak ibaira...), beraz, bermeak nahi dituzte sektore honen ondorio kaltegarriak ahalik eta txikiak izateko.

Ingurumen bektoreei dagokionez, azpimarratu behar da inkestak diola berriztarrek euren hondakin gehienak maiz birziklatzen dituztela (beira, plastikoa, papera eta pilak). Modu berean, inkestatutako pertsonen gehiengoak dio birziklapen edukiontzia dituztela oinez 15 minutu baino gutxiagora. Inkestatutako ia pertsona guztiek diote euren ohiturak alatzeko prest direla gaikako bilketarako edukiontzia erabiliz. Hala ere, ikus dezakegu azken urteetan birziklapena hazi bada ere eta hondakinen sorrera gutxitu bada ere, birziklapen ratioak txikiak izaten jarraitzen dutela sorrera ratioekin alderatuz gero.

Azkenik, azpimarratu behar da galdekatuak izan direnetako asko ez daudela prest euren udalerriko garapen iraunkorrari dagokien bileretan parte hartzeko. Gainera, pertsona gehienek ez dakite euren udalerrian Tokiko Agenda 21 prozesua gauzatzen ari denik.

### 7.3. Interpretazioak

Interpretazioen azpiatal honi heldu asmoz azpimarratu nahi izan ditugu udalerrian detektatzen diren problematika edo egoera posibleak.

Berrizko udalerrria, diagnostikoan zehazten den moduan, eskualde ezberdinen arteko lotura gisa ikusten den eremuan kokatzen da. Bere kokapen estrategikoaren ondorioz udalerriz gaindiko hainbat azpiegiturek zeharkatzen dute, honek udalerrriaren garapena baldintzatu du, eta gaur egun, antolaketa arazoak sortzeaz gain, udalerriko eremu ezberdinen arteko lotura oztopatzen du. Gainera, azpiegiturak hainbat problematika eragiten dituzte, kutsadura eta zarata, lurzorua okupazioa... horren ondorioz ekimen ezberdinak proposatu dira, adibidez trena lurpera sartzea.

Arlo sozialean berriztar gizartearen garapenean zuzenean eragiten duten bi fenomeno azpimarratzen ditugu. Lehenengoaren kasuan aipagarria da nola hazi den Errumania, Kolonbia, Bolivia, Maroko... herrialdeetatik etorritako jende kopurua. Instituzioen eskutik babesik gabe aurkitzen dira legezko bihurtu artean, baina ordura arte ezin dute zerbitzu sozialik eskuratu.

Modu berean, EAEn bezala, biztanleriaren zahartze fenomenoak ikusten da, alegia, zaharragoen garrantzia areagotzen ari da biztanleriaren egituren bizitza esperantzaren igoeraren ondorioz. Eremu sozial eta ekonomiko guztietan eragina duen prozesua da. Beraz, lanerako adinean ez dauden pertsonen eskaintza handia da, izan ere, geroz eta gehiago dira formakuntza handia dutenak eta gizarteari asko emateko izan dezaketenak, beraz aukera bat izan daiteke hori. Modu berean, lanerako beste ildo bat pertsona hauei euren bizitza kalitatea hobetzeko balioko duten azpiegiturak eta laguntzak sozialak ematea da, txirotasunaren mugapera eror ez daitezen.

Arlo ekonomikoari dagokionean, azpimarratzen dugu industriaren sektoreak duen garrantzia udalerrian, hala ere, aurrez aipatu den moduan, metalaren eta auto-mozioaren sektorean kontzentratzen da eta oso gutxi dibertsifikatua da, honek ahultasuna eragiten diote sektoreari globalizazioaren fenomenoaren eta Europa ekialdeko beste herrialdeen konkurrentziaren ondorioz, beraz, beharrezkoa litzateke sektorearen modernizatzea eta beste sektore batzuetara dibertsifikatzea.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen egoerak eta hau desagertzeko arriskuak egonezina sortzen du Berrizko biztanleen artean. Lehen sektorearen gainbeheraren ondorioz beste arazo batzuk sortu dira, izan ere, tradizionalki abeltzaintza jarduerak ziurtatu du baserriak mantentzea eta beraz, udalerrriaren lurzorua eta lur sailak mantentzea. Gaur egun, ikus daiteke udalerriko landa lur gehiena konifera basoek hartzen

dutela, eta bereziki intsigni pinuak.

Langabeziari dagokionean, azken urteetan asko txikiagotu den arren, bereziki emakumezkoen kolektiboan eta gazteen artean kokatzen da, eta bere ezaugarri dira prekarietatea eta aldibatekotasuna, beraz, beharrezko ikusten da enplegua bultzatzea sektore hauen artean eta egonkortasuna ziurtatzea.

Ingurune fisikoari dagokionean, gizakiaren jarduera intentsuaren ondorioz, Berriz inguruan eraldaketa handiak izan dira, ikus dezakegu industriaren ezarpen handia dagoela eta leku gutxian azpiegitura asko daudela. Beraz, uste da interesgarria litzatekeela lurraldearen antolaketan gai hauei heltzea eta etorkizuneko eraikuntzen inpaktua gutxitzeko azterketak bultzatzea. Bestalde industria aurrien, lur kutsatuen eta kontrolik gabeko zabortegeien berreskurapenak asko lagunduko lukeela ingurumena hobetzeko eta Berrizko pertsonen bizitza kalitatean urratsak emateko. Udalerriko mendien biodibertsitatea zaintzeko beharra ere ikusten dugu, izan ere koniferak, soilik, dira basoetan nagusi.

Pertsonen eta merkantzien mugikortasuna administrazio ezberdinen arreta-gune izan behar dute. Zehazki, Berrizen ikus daiteke norberaren autoaren erabilera handia dela, eta egun batean egiten diren joan-etorrien erdia lanera joateko direla. Gainera, iraunkortasunaren alde baliabide honi uko egiteko biztanleek duten disponibilitatea oso murrizta da. Bestalde, Berrizko pertsona gehienak norberaren autoa erabiltzearen zeharkako ondorioak pairatzen hasi dira: hirigunean aparkatzeko zailtasunak, erregaiaren kostua, sortzen duen kutsadura eta zarata... Errealitate honen parean, Berrizko pertsonak diote garraio publiko ona dutela, beraz uste dugu indartu egin behar dela garraio publikoa erabiltzeko kontzientzia.

Ingurumen bektoreei dagokionez azpimarratzen dugu udalerrria zeharkatzen duten azpiegiturek sortzen duten atmosferaren eta akustikaren kutsadura. Hauen ondorio kaltegarriak baretu asmoz baliabide ezberdinak kontuan hartu beharko lirateke: landaredizko pantaila akustikoak... Modu berean, orokorrean dagoen energiaren kontsumoaren areagotzeak, eta zehazki industrian dagoen kontsumo energetikoak honen arrazionalizazio eta eraginkortasuna areagotzeko neurriak hartzea eskatzen du, biztanleengan gai honekiko kontzientzia sortzeaz gain. Azkenik, nahiz eta hondakinen sorreran gutxitzea nabari den, oraindik sorrera maila oso altua da eta birziklapen maila baxua da; beraz beharrezkoa da jendea kontzientziaztea gure ohiturek duten inpaktuaren inguruan. Izan ere, hondakinak gutxitzeko neurririk egokiena ez sortzea baita.